


Aldahitz

IKERKETA

2014

EUSLE METODOLOGIA ETA
HIZKUNTZA OHITUREN
ALDAKETA LAN MUNDUAN



Pello Jauregi Etxaniz



Pablo Suberbiola Unanue

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA


Argitaraldia: 2015eko otsaila
Argitaratzailea: Soziolinguistika Klusterra
Egileak: Pello Jauregi Etxaniz, Pablo Suberbiola Unanue

Osaketa grafikoa: Zirrimarra (Andoain)
ISBN: 978-84-606-5706-4



Argitalpen digitala

Babesleak:



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**




Laguntzailea: Zarauzko Udala

Aldahitz proiektuaren Garapen Taldean parte hartzen duten erakundeak (alfabetikoki zerrendatuta): AHIZE-AEK, Elhuyar Aholkularitza, Emun, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Hernaniko Udala, UPV/EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila eta Soziolinguistika Klusterra.

2015eko urtarrila

Aldahitz IKERKETA 2014

EUSLE METODOLOGIA ETA HIZKUNTZA
OHITUREN ALDAKETA LAN MUNDUAN



Pello Jauregi Etxaniz

Pablo Suberbiola Unanue


SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA<





Aldahitz IKERKETA 2014

EUSLE METODOLOGIA ETA HIZKUNTZA
OHITUREN ALDAKETA LAN MUNDUAN



Aurkibidea	5
1. Sarrera	8
2. EREMU KONTZEPTUALA HIZKUNTZA-JOKAERA ULERTZEKO	10
2.1. Hizkuntza-jokaera gizarte-jokaera gisa ulertuta	10
2.1.1. Taldetasuna: ikuspegi sistemikoa	10
2.1.2. Elkarrekintza lehenbizi	12
2.1.3. Orekarako joera	13
2.1.4. Egokitze beharra	14
2.1.5. Ezustearen printzipioa	14
2.1.6. Ezezkoa eta baiezkoa	17
2.1.7. Bihurgune berritzaileak	18
2.1.8. Hautemate-eremua eta jokaera	19
2.1.9. Disonantzia kognitiboa	21
2.1.10. Berregituratzearen eragiketa	24
2.1.11. Eskatu ezean arauzko aukera	25
2.1.12. Jardutearen atsegina	26
2.2. Hizkuntza-jokaera iraultzeko esperientzia marko baten bila	29
2.2.1. Ezinbestekotasun biguna	29
2.2.2. Euslearen ezaugarriak	33
2.2.3. Zilegitasunaren bila	38
2.2.4. Harreman simetrikoak eta asimetrikoak	41
2.3. Esperientzien diseinuaren oinarri epistemologikoak	48
3. ESPERIENTZIA PILOTUEN DESKRIBAPENA	51
3.1. Eusle metodologiaren nondik norakoak	51
3.1.1. Helburua: dinamika berri bat	52
3.1.2. Borondatezko esperientziak: erabaki kolektiboa oinarri	52
3.1.3. Eusleak, haien jokaera eta gainerakoena	53
3.1.4. Euskarazko ulermena lankide guztiek	56
3.1.5. Jardun naturala: eguneroko lanean bertan	57
3.1.6. Sinpletasuna: aparteko saiork ez eta esperientziaren iraupena	58
3.1.7. Talde-ikuspegia, ez indibiduala	59




3.2.	Guneen hautaketa-prozesua, proposamen zehatza eta erabakiak	60
3.3.	Guneak eta bakoitzaren jardura nagusia	63
3.4.	Esperientzien garapena, neurketarako tresnak eta intzidentziak	66
3.4.1.	Esperientziak garatzeko denbora-eskema eta datak	66
3.4.2.	Esperientzien eguneroko eta asteroko dinamika	66
3.4.3.	Neurketarako tresnak	69
3.4.4.	Intzidentziak	74
3.5.	Ikerketaren fitxa tekniko eta lantaldea	77
4.	EMAITZA OROKORRAK ETA DATUEN IRAKURKETA	78
4.1.	Abiapuntuko egoera	78
4.2.	Hizkuntza bilakaera	83
4.3.	Alderik esanguratsuenak xede-taldeko azpimultzoen artean	87
4.4.	Hizkuntza aldaketaren neurria hizkuntza kategorien arabera	93
4.5.	Maiztasuna.....	95
4.6.	Eusleak eta ez eusleak.....	96
4.7.	Eusleen hizkuntza-arauaren betetze maila	98
5.	ONDORIOAK	101
6.	JASOTAKO DATUAK, TAULAK ETA DIAGRAMAK	107
6.1.	Datuen aurkezpena	107
6.2.	BANAKAKO AZTERKETA	109
6.2.1.	Langile kopurua	109
6.2.2.	Hizkuntza erabileraren bilakaera	109
6.2.3.	Hizkuntza-egoera hobetzeko tartea hasieran eta harekiko emaniko aurrerapenak	110
6.2.4.	Hizkuntza erabileran izandako aldaketak: norabidea eta intentsitatea	111
6.2.5.	Eusleen eta ez-eusleen banaketa	112
6.2.6.	Eusle izan diren eta izan ez diren langileen hizkuntza erabileraren bilakaera	112
6.2.7.	Eusleen hizkuntza-araua betetzearen maila	113
6.2.8.	Eusleen hizkuntza bilakaera, hizkuntza-arauaren betetze mailaren arabera	113
6.3.	BIKOTEKAKO AZTERKETA	114
6.3.1.	Bikote kopurua	114
6.3.2.	Harremanaren maiztasuna	114
6.3.3.	Hizkuntza erabilera esperientziaren hasieran	115
6.3.4.	Hizkuntza erabilera esperientzia amaitutakoan	116
6.3.5.	Hizkuntza erabilera esperientzia amaitu eta hiru hilabetera ...	117

6.3.6. Neurketen arteko aldeak	117
6.3.7. Hizkuntza erabileraren bilakaera eta aldaketak, unibertso osoan	119
6.3.8. Hizkuntza kategoriatan emandako aldaketen norabidea eta intentsitatea esperientzian zehar	119
6.3.9. Hizkuntza aldaketaren proportzioa	121
6.3.10. Hizkuntza bilakaera, guneka	122
6.3.11. Hizkuntza bilakaera, bikoteen harreman maiztasunaren arabera	125
6.3.12. Bikoteen sailkapena eusleen kopuruaren arabera	132
6.3.13. Bikoteen sailkapena, eusleen hizkuntza-arauaren betetze mailaren arabera	133
6.3.14. Bikoteen ibilbidea neurketaz neurketa, “beti edo ia beti euskaraz” kategoriaren ikuspegitik begiratuta	134
6.3.15. Bikoteen sailkapena , “euskarazko ohitura” aldagaiaren arabera	135
6.3.16. Bi aldagaien arabera bikoteen sailkapena: 1) euslea bai/ez, eta 2) hasieran lankideren batekin euskarazko ohitura izan bai/ez.....	136
6.3.17. Esperientzia hasterakoan, euskarazko ohitura eskuragai zuten bikoteen hizkuntza bilakaera	137
6.3.18. Euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikoteen osaketa eta hizkuntza bilakaera	143
6.3.19. Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikoteen osaketa eta hizkuntza bilakaera	147
6.3.20. Euskarazko ohitura berria lortu ez duten bikoteen osaketa eta hizkuntza bilakaera	151
6.3.21. Diagramak lantokika	155
7. BIBLIOGRAFIA	162
8. ERANSKINAK	164
8.1. Zehaztapen teknikoak	164
8.2. Aurkezpena	170
8.3. Jarraipenerako eta berrespenerako galdetegia	174
8.4. Mintzagrama 1	175
8.5. Mintzagrama 2	178
8.6. Mintzagrama 3	181



1.



Sarrera

Esku artean duzuen lanak 2013. eta 2014. urteetan Euskal Herriko zazpi erakunde publiko eta pribatutan eginiko ikerketaren berri ematen du. Ikerketa hau esperientzia pilotu bidez garatu da, erakunde publiko eta enpresa horietako gune jakinetan, eta aztergai nagusia lankideen arteko harremanerako ohiko hizkuntza izan da. Zehatzago esanda, esku-hartze metodologia jakin baten ondorioz, eguneroko laneko harremanean, **hizkuntza ohituretan** gertatu diren **aldaketak** izan ditugu aztergai.

Ez da hau Soziolinguistika Klusterrean *hizkuntza ohituren aldaketa*-ri buruz egindako lehen lana, eta neurri batean aurreko lanen urrats berria duzue hau. 2009. urtean *Bikoteen artean hizkuntza-ohituren aldaketa: ikerketa-lana* egin genuen. Familia bidezko transmisioaren arloan kokaturiko lana zen hura, baina aztergai nagusia oraingoaren berdina zen: eguneroko harremanerako darabilten hizkuntza ongi finkatuta duten taldeetan –kasu hartan, bikote sentimentalak– hizkuntza horren aldaketa ekarri duten prozesuak. Guk erabilitako terminologian, “hizkuntza ohituren aldaketa”. Eta zehazki, harremana (nagusiki edo erabat) gaztelaniaz izateko ohituratik (nagusiki edo erabat) euskaraz izatera gertatutako aldaketa-prozesuak izan ziren gure aztergaia.

Bi urte geroago eman genuen bigarren urratsa, 2011. urteko *Aldahitz* ikerketarekin. Eremua

ezberdina izan zen kasu hartan (lan mundua), baina aztergai nagusien artean izan genituen, orduan ere, hizkuntza ohituren aldaketak eta haien oinarrian zeuden prozesuak. 2012. urtean, Soziolinguistika Klusterrak erabaki zuen finkatutako harremanetan gaztelaniatik euskarara gertatzen diren hizkuntza ohituren aldaketa prozesuak bere ikerketa-ildoetako bat izatea aurrerantzean, eta ildo hori *Aldahitz* proiektuan ardaztea. Hortik lan honen izenburuaren lehen zatia: *Aldahitz ikerketa 2014*.

Lan honek hiru hanka dituela esan genezake: hausnarketa teorikoa bata, aplikazio praktikoa bestea eta hirugarrena, erakundeen arteko lankidetzak. Soziolinguistika Klusterraren helburuetako bat da zientziaren diziplina ezberdinetan –gizarte psikologian, soziologian, hizkuntzalaritzan, pedagogian...-garatzen den ezagutza teoriko eta enpirikoa soziolinguistikaren eta hizkuntza-erabileraren esparrura ekartzea. Helburu dugu halaber, Klusterreko bazkideei eta oro har, erabilera-plana abian duten herri-erakundeei eta enpresei, euren erabilera-planak garatzean sortzen zaizkien zailtasun eta galderei erantzun teoriko eta metodologiko ahalik eta eraginkorrenak eskaintzea, eta haiek aplikatzea. Horrela, teoriaren, aplikazio praktikoaren eta lankidetzaren hiru hankak ditu oinarri lan honek.

Hausnarketa eta oinarri teorikoak 2. atalean dituzue. Ahalegin berezia egin dugu atal ho-

rretan hizkuntza ohituren aldaketa prozesuak ikertzeko 2009tik hona baliatu ditugun iturri teorikoak azalpen bakarrean biltzeko; eta bada tartean hausnarketa berririk ere.

2. ataletik 3.era duzue teoriatik praktikarako jauzia. Bertan azaltzen dugu puntuaz puntu nola gauzatu diren, *eusle metodologiaren* birtartez lantegietako guneetan egin ditugun esperientzia pilotuetan, maila teorikoan aintzat hartu ditugun oinarriak. Erakundeen arteko lankidetzari dagokionez ere, 3. atal horretan duzue deskribatuta lan honen egitura. Bost erakundeetako profesionalak aritzen dira gurekin batera Aldahitz ikerketa-ildoaren Garapen Taldean: AHIZE-AEK, Elhuyar Aholkularitza, Emun, Hernaniko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Erakunde eta lankide horiez gain, lan honetan Gipuzkoako Foru Aldundia eta bere Udal<>ekin programa ere lankide izan ditugu. Erakunde horiek eta haien arteko lankidetzak eratu dute, hain zuzen, esperientzia pilotu hauek garatzea ahalbidetu duen sarea.

Lanaren 4. atalean dituzue ikerketaren emaitza nagusiak eta haien irakurketa. Bertan ikus dezakezue nolako emaitzak eman dituzten, hizkuntza ohituren aldaketari dagokionez, lantegietako gune zehatz horietan egin ditugun esperientzia pilotuek. 5. atalean berriz, ikerketaren ondorio nagusiak eskaintzen dira, modu laburrean. Galdera-erantzun formatuan antolatu dugu atala, eta bertan, ikuspegi teorikotik ikerketa hau diseinatzeko garaian genituen uste eta galderei, datuek eta hemen osatu dugun ebidentzia enpirikoak emandako erantzunak dituzue, lanaren sintesi moduko bat osatuz. 6. atalean taula eta diagrama guztiak dituzue. Emaitza nagusietatik haratago doan edozein xehetasun nahi duenak, 6. ataleko taula ugarietan topatuko ditu guztiak. Azkenik, 8. atalean bildu ditugu esperientzia pilotu hauek garatzeko baliatutako galdetegiak eta gainerako materialak.

Esan bezala, lau hau 2013. eta 2014. urteetan zehar garatu da. Eta berau finantziazteko babesa eskaini digu, bi urte horietan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere lagundu du ekonomikoki proiektua, eta baita, bere neurrian, Zarauzko Udalak ere. Lerro hauetatik gure eskertza hiru erakunde hauei. Babes horrekin batera, bestalde, beharrezkoa izan da Soziolinguistika Klusterrak berak ere proiektuaren aldeko apustua egitea, eta proiektuaren zati bati erakundearen baliabide propioekin erantzun zaie.


Amaitzeko, garrantzitsuena. Ikerketa hau esperientzia pilotuetan oinarritu da, eta esperientzia horiek lantegi jakinetan garatu dira. Izen-abizenak dituzten langileek garaturiko esperientzia errealak izan dira hauek: Aldahitz ikerketak proposatuak eta langile-sail horiek, modu kolektiboan, euren lantegietan egitea erabakitakoak. Ez dago esan beharrik, erakunde eta enpresa horietako arduradunek eta langileek hala erabaki ezean, ikerketa hau ezin izango zela egin, langile horiek burututako prozesuen datu batzuk baitira lanaren oinarria. Baina zazpi lantegi horietako 87 langileen lankidetzak ez da mugatu guk eskatutako galdetegiak betetzera. Ikerketaren fase guztietan izan ditugu, izan zaituztegu, lankide. Gure lana erabat erraztu dute, erraztu duzue, ikerketaren hamaika unetan. Baina ez hori bakarrik. Egin dituzuen esperientziekin, bidea erraztu diezue ere etorkizunean beren lankideekin harremana gaztelaniatik euskara aldatu nahi duten langileei. Batagatik zein besteagatik, jaso ezazue bene-benetan gure eskertzarik beroena.

Andoainen, 2015eko urtarrilean

Pello Jauregi Etxaniz (EHU)
Pablo Suberbiola Unanue
(Soziolinguistika Klusterra)



2.



EREMU KONTZEPTUALA HIZKUNTZA-JOKAERA ULERTZEKO

2.1.

Hizkuntza-jokaera gizarte-jokaera gisa ulertuta

2.1.1.

Taldetasuna: ikuspegi sistemikoa

Hizkuntza-jokaera ulertu nahi dugunean, begirada nagusiki gizabanakoari zuzentzeak ez digu, egia esan, argi gehiegi ematen, zeren norbere erabaki hutsa baino gehiago hartu-emanari dagokion jarduera sistemikoa baita hizkuntza-jokaerarena. Hainbat jokalariren arteko joko arautu baten gisa ulertu beharko genuke, beraz, hizkuntza-jokaera. Halakoetan, jokalarari baten jokaerak beste jokalariren jokaerak aintzat hartzen ditu ezinbestean, halako moldez non denon ekimenez sortzen baita elkarri ongi uztartutako eremu arautu, egonkor eta egituratua.

Hizkuntza ohitura, era berean, hizkuntza-jokaeraren berezko ondorioa izanik, jokaeraren eremuan ulertu beharreko gertakaria da. Izan ere, elkarri egokitutako jokaera etengabea da hizkuntza ohitura, eta, hortaz, ez da kide bakar bati egotz dakioken zerbait. Aitzitik, ohituraren atzean, era inplizituan, hainbat jokalariren arteko ohiko jokaera mamitzen da. Norberak aitortzen duen ohitura, beraz, ez da norbere kontu hutsa, baizik harreman ugariaren batzuek emaitza.

Honek guztiak zuzenean garrantzitsuak hizkuntza-jokaeraren gertakaria talde baten eremu sistemikoan kokatzera (Jauregi eta Suberbiola, 2009). Nahi izatera, hizkuntza-jokaera gizarte-harremanen sistema handiagoaren azpi-sistematzat jo daiteke. Sistema oro harremanetan da bestelako sistemekin. Sistemen arteko harremanek sistema konplexuagoak sortzen dituzte. Sistema batzuek beren baitan sistema txikiagoak hartzen dituzte. Hala ere, sistemen arteko harremanak era berean

sistemikoak dira, eta, ondorioz, sistema orori egotzitako ezaugarriak berak baliagarri zaizkie haiei ere (von Bertalanffy, 1993; Morin, 2010)

Sistema baten barruan sortzen diren harreman motak ezin dira ongi ulertu kausa eta ondorio eskema klasikoaren bidez. Eskema horrek halako linealtasun baten arabera ulertzen ditu gertakariak. Sistema baten barruan, baina osagarritasun biribil baten bidez ageri dira lotuta harremanak (Watzlawick, Bavelas eta Jackson, 1997). Harreman biribil batek A jokalaria B-rekin lotzen du, B jokalaria A-rekin lotzen duen bezala. Haien arteko harremana ez litzateke egonkorra izango biek ala biek zerbait osagarria egingo ez balute, halako moldez non bakoitzaren jokaera bestearen jokaeraren kausa eta ondorioa den aldi berean. Atzera-informatze mekanismoak¹ darabiltzaten sistemek ez dute ez hasierarik ez bukaerarik, aritzea era biribilean ematen baita. Agian, jokalaria bakoitzaren ikuspegitik, harremana ulertzeko modua –kausa eta ondorioen egozpena– ez da bat etorriko. Oso litekeena da jokalaria bakoitzak datu berberak sekuentzia desberdinetan antolatzea interpretazio desberdinak osatzeko. Baina, sistemaren funtzionamenduaren ikuspegi orokorretik begiratuta, ikusiko genuke nola bi jokalarien jokaerak elkarri estuki lotuta dauden zeregin osagarrien bidez. Jokalariren batek bere zereginari uko egiten dionean, orduan garbi ikusten da nola harremana desoreka fase batean sartzen den. Ordea, orekari eusten dioten bitartean, osagarritasun osoa dago jokalarien arteko jokaeren artean. Norbere jokaera besteen jokaeren kausa eta ondorio denean, ez dago modu absolutuan hitz egiterik non dagoen kausa eta non ondorioa, elkar sorrarazten dutelako eta elkarri eusten diotelako. (Maturana eta Dávila, 2008).

Ikuspegi sistemikoak balio behar liguke, ez soilik hizkuntza-jokaeraren gertakaria ulertzeko, baizik eta esperientziak gidatzeko ere. Izan ere, hizkuntza ohituraren aldaketa sustatzeak talde baten barruan ematen diren harreman sistemikoak iraultzea dakar berekin. Ereku osoa berregituratu egiten da. Hizkuntza-arau berria eraiki beharra dago; eta, batez ere, jokalaria elkarri beste moduz batez egokitu behar zaizkio. Gizabanako batzuek bultzatzen dituzten hiru guztia hastapenetan, baina bidearen arrakasta, kide batzuen bultzadan baino gehiago, kide guztien arteko egokitze berriaren baitan dago, hots, eremu osoaren berregituratzean. Horregatik, talde ikuspegi sistemiko bati helitzen diogunean, honako hiru alderdi hauek aintzat hartzea komeniko litzateke:

1. Talde egituratu baten testuinguruan kokatu beharko genuke hizkuntza-jokaera aldatzeko ekimena, eta jokaera berriak babesteko jokaleku bihurtu.
2. Taldearen eraldaketa ekar ditzaketekoen ekintza urratzaile eta egiturazkoak tentuz aukeratu beharko lirateke.
3. Jokalarien zeregin osagarriak zehazki argitu beharko lirateke.

Hiru eskabide hauei ahalik eta zehatzen erantzuten saiatzen da *Eusle Metodologia*. Metodologia horren nondik-norakoak hurrengo atalean dituzue azalduta (ikus 3.1 atala). Oraingoan, ordea,

¹ *Feed-back* mekanismoa: sistema batek bere aritzeaz atzera jasotzen duen informazioa. Informazio horrek sistemaren aritzea bera erregulatzeko balio du, hots, mekanismo batzuk bizkortzeko ala gelditzeko. Atzera-informatze mekanismoa sistema autoerregulatuen ezaugarri nagusietako bat da.



metodologiaren atzean diren oinarritzko uste teoriko eta argudio nagusiak argitzeari ekingo diogu, patxadaz. Lehenbizi, ikuspegi sistemikoaren barrunbeak arakatu nahi ditugu, jokaera kontzeptua –edozein jokaera, ez hizkuntza-jokaera soilik– mugarritu nahian. Ondoren, hizkuntza-jokaerari emango diogu arreta zehazki, eta hartan eragiteko esku-hartze egitasmo baten ezaugarriak aletzen saiatuko gara.

2.1.2.

Elkarrekintza lehenbizi

Mugimenduaren printzipioan oinarrituko dugu gure eraikuntza teorikoa, eta talaia horretatik saiatuko gara ulertzen sistema baten esanahia, eta baita sistemen arteko dinamika bera ere. Gendlinekin batera baieztatuko dugu, orduan, elkarrekintza oinarritzkoagoa dela funtzionamendu sistemikoan unitate edo osagai finkoak baino². Jarria ez da inoiz bukatzen. Den guztia mugitzen ari da. Forma bat desegingo da eta haren ordez beste hura sortuko, baina mugimenduak ez du etenik ezagutzen. Sistema bat egituratu edo sortu egingo da, baina baita garatu eta hil ere. Haren tokia hartzera beste sistema batzuk etorriko dira, eta beste batzuk ondoren. Jarria, ordea, ez da ahitzen. Sistemak desager daitezke, baina ez sistema berriak sortzeko ahalmena bera.

Mugimenduak beti du berekin hau eta bestea elkarri lotzea. Mugimenduak ez du arrotz ezusteko egoera berriak maiz sorraraztea. Etenik ez duen elkarrekintzak, ordea, eskatzen du (premia du, beharrean dago) osagaiak elkarri egoki daitezen, elkarri helduta egiturazko dantza osagarrian ari daitezen. Sortzen dira orduan eremu ordenatuak –sistemak–. Kaosaren erraietatik ernatzen da ordena (Prigogine, 1997). Elkarri egokitzeko beharra sistema autoerregulatuen ezaugarri funtsezkoenatarikoa dugu. Hala ere, beharra eta jokaera eskutik helduta ohi datozenez, esan liteke elkarregokitzeko beharra dela elkarrekintzaren osagai motibazionala (hutsune baten ohartzea), eta hura asetzeko abiatzen den ekintza zurrumbiloa haren osagai faktikoa (jokaera). *Elkarri egokitzeko beharra* eta *elkarri egokitzeko jokaera*, txanpon beraren bi aldeak bailiran, elkarri helduta ageri zaizkigu orduan, etengabeko elkarrekintzaren ondorio gisa.

2 Eugene Gendlinen lan fisiofilofoa (Gendlin, 1997) *interaction first* printzipioan oinarritzen da. Ingurune fisiko eta sozialarekin dugun etengabeko elkarrekintza ari da inplizituki eragiten gure jokaera esplizituetan. Horregatik harreman berri bati heltzen diogunean, ez diogu heltzen hutsetik abiatuko bagina bezala, zeren gure baitan ari baitira dagoeneko funtzionatzen ehunka hari inplizitu, eta haiek harreman berria alde edo molde eragiten dute. Bestalde, norbaitekin aurrez aurre gaudenean, lehenengo unetik ere, ezin dugu erabateko biribiltasunetik atera, berak ni eragiten nauen unean bertan jada nire eraginpean baitago bera ere. Ez dago gizarte-harremanik elkarrekintza eremu batean ematen ez denik.


2.1.3.

Orekarako joera

Sistema orok orekarako joera du.

Jarioak, bere aritzean, behin eta berriz toki berdintura eramaten gaituenean, sistema ia-egonkor baten aurrean gaude. Biribila da higidura mota hori. Mugimenduak bestelako puntu batera eraman beharrean ohiko tokira garamatza, biribiltasunean, egoera egonkor samarrak sortuz, eta sortu ondorenean ere haiei behin eta berriz eutsiz. *Bucles de estabilidad* adigaia erabili zuen De Bonok gertakari hau adierazteko (De Bono, 1992). Nolabait, higidura biribilak egoera egonkor samarrak sortzen ditu. *Bertango mugimendua* adierazpidea erabiliko genuke guk honetaz mintzatzeko, era adierazgarrian aditzera ematen baitu mugitu arren bertan jarraitzen dugula. Honelakoetan egokitzeko beharra punturik txikienera iristen da, egoerak eskatzen duen jokaera egokiaren arabera jokatzeko ia berez eta pentsatu gabe egiten baita. Egokitzeko jokaera ia mugatzen da sistemaren inertiak erraz eta eroso jarraitzera. Ohiturazko jokaera jarraitzailea da sistema egonkor samarretan espero den jokaera egokitzaile nagusia.

Bertango mugimendua



Sistema orok iraungo badu, bere osagaien arteko etengabeko elkarrekintzak nolabaiteko osagarritasuna eta elkarri euste moduko bat eskuratu behar du. Indar ugari eta bestelakoek elkarri euskarria emanez eta funtzioak elkar osatuz, eremu sendo eta iraunkorra eraikitzen da.

Bertango mugimenduari lotuta dago, bestalde, sistema auto-antolatuek ereduak edo patrioiak sortzeko duten ahalmena. Eredu bat ez da osagaiak era jakin batez antolatzeko modu berezi bat baino. Egoki agertzen den bitartean, behin eta berriz errepikatzeko joera izango du eredu horrek. Ildo markatu horrek, bestalde, indarrez erakarriko du bere altzora sistemaratzen den informazio berri oro. Hala, eredu zaharra gero eta markatuago, iraunkorrago eta egiturazkoagoa egiten da. Egonkortasuna ematen dio sistema bati bertango mugimendu biribilak. Haren ifrentzua, baina, sistema osoa zurruntzeko joera da. Nolabait, egonkortzearekin batera ahalmena galtzen baitu eredu zaharrak informazio berria erarik eraginkorrean antolatzeko. Alderdi berriak galdu egiten dira gero eta nagusiagoa den alderdi zaharraren mesedetan.




2.1.4.

Egokitze beharra

Jarioak, tarteka, ezin dio ohiko ildoari jarraitu, oztoporen batek eragotzita-edo. Jarioari oztopoa gainditzea ezinezko egiten zaionean, eta saiatu arren ohiko bidea berreskuratzetik ez duenean, behartuta du bere burua sumatzen bestelako norabideren bila abiatzeko, jarioak ez baitu etenik, jarioak berezko baitu mugitu beharra, eta ohikotik ezin duenean, ez-ohikoari heltzea beste erremediorik ez dago. Oztopo gaindiezin batek, orduan, jarioaren egokitzeko beharra eta joera ikaragarri bizkortzen ditu. Oztopo gaindiezin batek desegoki bihurtzen du lehen egoki zen jario-mota bat. Entropia eta nahasmendu egoera batean murgiltzen da eremua. Ez du luze iraungo horrek, seguru asko, zeren jarioaren elkarri egokitzeko berezko joerak goia joko baitu, egoera egonkor berria lehenbailehen eskuratzeko. Era horretan oztopo gaindiezin batek sorrarazten duen mugimenduak hausten du sistema baten higadura biribila eta aurrera bultzatzen du mugimendua bestelako antolamenduak eraikitzeko. Mugimendu mota honi *aurrerako mugimendua* deituko diogu aurrerantzean, eta sistema baten eraldaketari eta berregituraketari ematen dio bide oso era nabarmenean.

Aurrerako mugimendua



Hizkuntza baten ordezkatzea *aurrerako mugimendua* da, harekin batera eremu oso baten berregituratzea baitator. Mugimendu honek bestelako errealitate-eremu bati bide ematen dio.

2.1.5.

Ezustearen printzipioa

Sistema batek ezin ditu ezusteak saihetsi.

Oreka printzipioak aldarrikatzen du sistema orok oreka eskuratzeko joera duela, eta joera hitza azpimarratu nahi dugu orain, zeren joera kontzeptuak kurba baten jokaera asintotikoa baitakar gogora, hau da, marra batera etengabe hurbiltzen ari den kurba marra bera inoiz ere ukitu gabe. Orekarako joera egonik ere, beraz, ez da inoiz guztiz eta betiko lortzen egonkortasuna. Horre-

gatik, hainbatek sistema baten egoera adierazteko ez zuen egonkortasuna adigaia erabili, ezpada “ia” partikula aurretik jarrita. Hala, sistema egoera ia-egonkortzat ezaugarritu zuen Lewinek, esaterako. (Lewin, 1997).

Desoreka, beraz, beti dago bertan alde edo moldez. Orekari eustea, era berean, etengabeko jarduera bihurtzen da. Oreka eta desoreka beti dabilta biak ala biak amaigabeko dantzan lotuta.

Orekaz (edo ia-orekaz) eta ez bestez hitz egingo bagenu, orduan burura honako kontzeptu-multzotxo hau etorriko litzaiguke: ordena, egonkortasuna, kontrola, iragargarritasuna, patrioiak, rolak, ereduak, adostasuna, egokitasuna, eta abar. Baina multzo horrek badu ondoan ifrentzua, zein baita: ezustea, aldakortasuna, berritasuna, ziurgabetasuna, entropia, gatazka, disonantzia, eta era honetako adigai ugari. Sistemek ba al dute azken hauetarako ere joerarik, orekarako joera baieztatu dugun era berean?

Has gaitezen, lehenbizi, *ezustearen printzipioa* bera azaltzen, eta, ondoren, saiatu egingo gara aurreko galderari erantzuten. Hortaz, zer dugu guk gogoan “ezustearen printzipioa” aipatzerakoan? “*Sistema batek ezin ditu ezusteak saihesti*”. Printzipio honek erabateko kontrolaren nahia, erabateko ordenaren nahia edo erabateko egonkortasuna nahia mugatu egiten ditu eta ezinezko bihurtu bere adierazpen absolutuan. Bizitzaren jariora etengabea den heinean ezin dira bilakaera guztiak alde aurretik ikusi, ezin dira inplikazio guztien hari ezkutukoak kontrolatu, ezin dira agertzen eta desagertzen direnen ezusteko bideak sistema baten kontrolaren menpe jarri.

Ezusteek era desberdinetan eragiten dituzte sistemak. Honako lau egoera hauek, behinik behin, eman daitezke:

1. Ezusteak ez du abiatze-atarira eramaten sistema, eta, beraz, ez da egokitze-mekanismoa abiatzen. Sistemaren egiturak ez du aldaketa abiatu beharrik.
2. Ezusteak egokitze edo moldatze txikiak eragiten ditu sisteman, sistemaren egituraren eta logikaren ildo nagusia ukitu gabe, bere horretan jarraituta.
3. Ezusteak egokitze saio handia eragiten du sisteman, egituraren oinarritzko osagai batzuk errore eraldatu beharra dakarrelarik.
4. Ezusteak hain bortizki jotzen du sistema baten bihotzean, hura ezin barneraturik desegin egiten baita. Haren hondakinak beste sistema batzuk osatzeko erabiliko dira gero.

Sistemak muga baten barruan diren arren, badira mugaz bestaldeko gainerako sistemekin ere harreman bizietan. Sistema orok ditu elkar truke sistemikoak inguruarekin. Ingurua izaten da, bestalde, ezusteen iturria sarritan, sistematik kanpoko osagai batzuek alertan jartzen baitituzte sistemaren defentsa mekanismoak. Ezaugarri hau gogoan harturik, hona hemen ezusteen iturriei buruzko behin-behineko sailkapen bat:



1. Kide berriak barneratzen zaizkio sistema bati.
2. Kide zaharrek aldagai berriak garatu dituzte beren baitan beste sistema batzuen parte ere diren neurrian.
3. Inguruko sistema berri batek zuzenean eragin du beste sistema batean.
4. Sistemen arteko hartu-emanak arautzen dituzten baldintza berriak ezarri dira.

Bai, bide hauetan guztietan barrena etor daiteke ezustea eta sistemaren orekarako arrisku potentziala.

Nerbio-sistemaren moduko sistema auto-antolatuetan planteatu da (De Bono, 1996) auto-beberregituraketarako mekanismo baten beharra. Gogamenak badu, nerbio-sistemaren parte bezala, nerbio ibilbide egonkor samarrak edo gogozko patroiak eraikitze joera eta beharra ere (De Bonok *gogamen logikoa* deiturikoa). Badu, aldi berean, patroiz zaharrak bertan behera utzi eta patroiz berriak osatzeko beharra ere. Hari esker, sistemara agertzen den informazio berria era emankorragoan antola daiteke, sistemaren patroiz zaharren murrizketatik askatuta. Patroiz zaharrak berregituratzeko sistema auto-antolatuek duten behar honi *alboko gogamena* esan zion egileak, gogamenaren funtzionamenduaz ari zela.³

Hala berean, gizarte sistemetan ere. Hitzun elebarkar batek elebidunen talde batean hizkuntza-jokaera berregituratzeko duen eragin erabatekoa ikustea besterik ez dago. Adostasun sistemikoa (kongruentzia) lortzekotan, elebidunen aldetik etorriko da berregituraketa, euren hizkuntza-jokaera aldatuz hitzun elebakarraren beharretara egokitze, beraiek baitira, zinez, moldatzeko eragozpenik txikiena dutenak.

Gauzak horrela, erantzun al diezaiokegu orain arestian egindako galderari? Gogora dezagun orduan galdetutakoa: ba al du sistema batek ezusterako joera, orekarako duen bezala?

Eta erantzuna baiezkoa da. Ezustek eta orekak, biek osatzen dute aurkarien osagarritzko joko moduko bat. Jariora, mugimendua eta aldaketa eragiten ditu ezustek. Orekak, bere aldetik, egonkortasuna, ordena eta egitura. Osagarritzko aurkarietako bakoitzak bestea mugatzen du alderdietako bakoitzak bestea inoiz guztiz garaitu ez dezan, zeren garaitze horrek esan nahi bailuke jokoak berak kito egin duela. Halako *atzera-informatze* mekanismo auto-erregulatuzaileek (Ashby, 1972) ahalbidetzen dute sistema irekien biziraupena⁴. *Atzera-informatze* mekanismoek erregulatzen dituzte organismo baten jarduera aktibatzaileak osagai baten eskasia nabaritzean, eta, aitzitik, jarduera inibitzaileak osagai beraren gehiegizko presentzia sumatu bezain laster.

3 Bi kontzeptu hauek *pensamiento lógico* eta *pensamiento lateral* gisa agertzen dira gaztelaniazko itzulpenetan.

4 Sistema irekiak dira inguruarekin informazioa elkar trukatzeko duten sistemak, bai barrutik kanpora bai alderantzizko norabidean ere. (von Bertalanffy, 1993)

2.1.6.

Ezezkoa eta baiezkoa

Ezuste printzipioak jende gehienarentzat kutsu psikologiko ezkorra du. Disonantzia, desordena, berritasuna, ziurgabetasuna, gatazka eta antzeko hitzek halako atsekabetasuna, halako egonezina, halako gaitzespena, halako beldurra eragiten digute barrenean. Bada, hala ere, ezustearen izaeran sentiera baikorrak bizi dituenik, hala nola, krisialdia aukera berrien garaia ikusten duena, disonantzia aurrera egiteko eta ikasteko aukeratzat jotzen duena, gatazkak adostasun sakonago eta zintzoagoak eskuratzeko tresnatzat hartzen duena. Baina, hala izanda ere, ikuspegi baikor hori salbuespentzat hartuko genuke, eta joera orokorra ikuspegi ezkorriari egotziko.

Bestaldetik, oreka printzipioarekin lotu ditugun hitz gehienek halako erakarpena, halako kutsu baikorra dakarkigute gogora entzun bezain laster: adostasuna, egonkortasuna, erosotasuna, egoeraren kontrola, argitasuna. Joera nagusi horren ondoan, hala ere, egon badaude salbuespen esanguratsuak ere. Esaterako, adostasunaren atzean berdinkeria ikusten duena, gehiegizko egonkortasunaren atzean geldikeria sumatzen duena, erosotasunaren atzean konformismoa usnatzen duena.

Ez-alderdiaren “*bai-tasuna*” ikusten duenik bada ere, gaude joera nagusia ez-alderdiaren “*ez-tasuna*” bizi duenak berak markatzen duela. Era berean, bai-alderdiaren “*ez-tasunari*” erreparatzen dioten lagunak egonik ere, bai-alderdiaren “*bai-tasunaz*” liluraturik direnak sarriago ikusten ditugu.

Hala ere, gutxi izan arren, salbuespenezko kide horiek dituzte, inork izatekotan, aldaketak eragiteko behar den energia, ikuspegia eta izaera. Izan ere, haiek ikusten baitituzte egonkortasunaren arriskua eta aldakortasunaren onura. Haiek dira, sarritan, aldaketaren bultzatzaileak. Haiek urratzen dituzte errazenik egoera zaharrak, eta berriak sortzeko bidea zabaltzen. Bide urratzaile hauek, gutxi izan arren, ordezkatzan duten energia motak balio kualitatibo handia du, haiek ordezkatzan baitute ezustearen printzipioa beste inork baino hobeto. Kopuru aldetik dira honelakoak txikiak, baina ordea handiak balioaren aldetik.

Hau guztia oso kontuan hartzekoa izango da gero, aldaketa prozesuak eragiteko esku-hartze moldeaz jardutean, zeren, gu hemen hipotesi gisa zabaltzen ari garen ideien arabera, bestelakoa izango baita aldaketari eusteko kide batzuek ala besteek erakutsi beharko duten modua. Hala, gutxi batzuek nahieraz, atseginez eta barne-bultzadaz aldaketa era proaktiboan bultzatuko duten bezala, gainerakoek –kide gehienak seguru asko– disonantziari bizkar emateko eta konsonantzia egoera berria lehenbailehen eskuratzeko premiak bultzatuta egingo dute. Motibo eta jarrera desberdinak izateak ez du axolik, haatik. Funtsa du, finean, aldaketaren norabidean biek ala biek elkarrekiko osagarri izateak. Aldaketaren jokoak beti behar du bi jokalariren zeregin osagarria artez bateratu: jokalaria ausart urratzailearena, batetik, eta jokalaria moldagarri eta egokitze beharra sumatzen duenarena, bestetik. Hartan dugu aldaketa arrakastatsuen giltzarri handienetako bat.



2.1.7.

Bihurgune berritzaileak

Osagai berria eredu zaharraren logikara murriztea dagoenean, bertango mugimendu batez hitz egiten ari gara. Baina, bertango mugimenduak osagai berria barneratu ezin duenean, sistema osoa bihurgune batera iristen da. Horrek aurrerako mugimendua sorrarazten du. Bihurgune batek beharra sorrarazten dio sistema bati logika zaharraren ordezkari berria eraikitzeko.

Bi mugimendu mota hauek argi samar bereizi ditu hala literatura psikologikoak nola soziologikoak. Hala esaterako, Talcott Parsons soziologo ipar-amerikarrak *aldaketa orekatzailea* hitza eman zion guk bertango mugimenduaz adierazitakoari, eta *egiturazko aldaketa* erabili zuen gizarte aldaketa sakonak adierazteko; alegia, gizartearen bilakaeran bihurgune historikoak izan diren aldaketak adierazteko (Parsons, 1999). Guk horri aurrerako mugimendua deitu diogu. Era berean, soziologia politikotik, Marx eta Engels-ek, *erreforma* eta *iraultza* kontzeptuak ongi finkatu zituzten, sistema politiko-ekonomiko baten barruko bilakaera, eta sistema politiko-ekonomikoaren beraren ordezkari bereizteko (Marx, 2010). Psikologian, esaterako, Watzlawick eta laguntzaileek, *aldaketa 1* eta *aldaketa 2* kontzeptuak finkatu zituzten, adierazteko, hurrenez hurren, harreman eremu bere horretan uzten duten aldaketa-saiakerak, eta eremu osoa berregituratzen duten irtenbideak (Watzlawick, Weakland eta Fisch, 1985).

Hizkuntza bihurgunea hasten da hizkuntza batek ordura arte nagusi zen beste hizkuntza bat ordezkari duenean⁵. Halako hizkuntza-jokaera batek mundu berri bat sortzen du. Mundu hori hainbat alderditan antzeratsu izango da beste errealitate-eremuekin, baina besteen aldean zerbait berria, zerbait berezia, zerbait espezifikoak dakarrena da beti. Hizkuntza batek ekosistema bereizi bat sortzen du beti, non mundua sinbolizatzeko *gramatika bat*, *gizarte-harremanak egituratzeko pragmatika bat* eta talde identitatea sendotzeko *demotika*⁶ bereizi bat eraikitzen dituen. Egiturazko aldaketa, horregatik, aurrerako mugimendua da, berekin batera bestelako mundu bat eraikitzen baitu.

5 Finkatutako harreman batean ordura arte erabili izan den hizkuntza aldatzeak edo ordezkariak harreman eremua berregituratzen du. Aipatzekoa da hemen, ezagutzen dugun arte, hizkuntzaren soziologian zein soziolinguistikian ez dagoela tradizio handirik harremanaren oinarri den hizkuntza aldatzea ekar dezaketen prozesuei buruzko ikerketan. Euskal eremu soziolinguistikokoan ez dugu halako ikerketa-ildorik ezagutzen, ez eta nazioarteko soziolinguistikian ere. Hurbilekoa izan litekeen ildo interesgarri bat J. Pujolar eta beste ikerlari batzuek hizkuntza aldaketan inguruan azken urteotan egindako ikerketek osatzen dute, katalanez *mudes lingüístiques* izendatu duten kontzeptuaren inguruan (mudatu, aldatu...). Kasu horretan, pertsonaren bizitzan zeharreko hizkuntza-bilakaera da aztergai nagusia (*trajectòries lingüístiques*), eta bilakaera edo ibilbide horretan noiz gertatzen diren hizkuntza-batetik besterako aldaketak, eta nolatan. Aztergai nagusia beraz, ez da berdina, baina bistan da ildo horretatik ere irakasgai interesgarriak lor litezkeela hemen aztergai ditugun gaietarako ere. Ikus, besteak beste, Pujolar, J., Gonzalez, I., Martínez, R. (2010) eta Pujolar, J., Puigdevall, M. (2015)

6 *Demotika*, “demos” hitz grekera hartuz, “herria”, “herritarrak” adieran, demokrazia edo demografia hitzetan bezala, guk geuk sorturiko hitza da, hizkuntza batek herri baten izatea eta izaera sortzeko, elikatze edo garatzeko erabiltzen dituen mekanismo soziologikoak adierazteko. Antzekotasun handiak izan ditzake kontzeptu honek Bourishen “bizitasun etnolinguistikoa” adigaiarekin. Hala ere, etnos erroak dituen hainbat adiera ezkor saihesti nahian, demos erroa erabiltzea hobetsi dugu adigai sortzerakoan.

2.1.8.

Hautemate-eremua eta jokaera

Aurreko nozioak lagungarri gerta daitezke gizabanakoen funtzionamendu psikologikoa ulertzeko ere. Motibazioaren eta jokaeraren arteko hartu-emanu dugu bereziki gogoan.

Nerbio sistemaren kilikatze-sistemak eredu egokia eman lezake gizakion motibazio eremuaren funtzionamendua ulertzeko. Zehazki, neuronen nerbio-bultzada nola osatzen den, jokaera-bultzadaren metaforatzat har genezake.

Neuronek badute kilikatze-atari bat gainditu beharra nerbio-bultzada sortu eta abiatzeko (Tortora eta Grabowski, 1998). Kilikadura askotarikoak egon arren, ez dute beti nerbio-bultzada abiatzeko adinako indarrak. Ataria eskuratzekotan, indarrak batu behar dira ezinbestean, eta hori hiru faktoreren baitan egon ohi da:

- 1) Estimuluen kopurua
- 2) Estimuluen bizitasuna
- 3) Estimuluen izaera (batzuek, kilikatzailak direnez gero, indarra batu egiten dute; baina beste batzuek, ordea, inibitzaileak izanik, indarra kendu egiten dute. Batzuen batuketak eta besteen kenketak indar-emaizta jakin bat emango du uneoro)

Norbere hautemate-eremu psikologikoan, halaber, hari ugari aurkitzen ditugu, indar-bektoreak babilan indar eta norabide desberdinetan eraginez. Motibo batzuk kilikatzailak diren bitartean, beste batzuk inibitzaileak dira. Motibo guztien bizitasuna ez da parekoa izaten. Esan ohi da premia eta sentiera emozionaletan oinarritutako motibo-hariak bizitasun handikoak direla, eta motelagoak, ordea, arrazoi hutsean eta logika hotzean oinarritutako argudio-hariak. Gu ere uste horretakoak gara. Hautemate-eremu batek lotura korapilatsu eta sistemiko ugari ehunduko ditu, aintzat harturik, besteak beste, osagaien kopuru, bizitasuna eta izaera. Eremu horretako harreman sistemikoen emaitza izango da gizabanakoaren jokaera. Ageriko jokaera batek, orduan, hautemate-ereduaren kilikatze-ataria gainditua izan dela adieraziko luke. Bien bitartean, beste jokaera batzuk bidean galdu dira, baina ez haien aldeko motibo-haririk ageri ez delako hautemate-eremuan, baizik eta hari guztien arteko harremanen jokoan ez baitute kilikatze-ataria eskuratu, euren norabidera makurtzeko.

Geure inguru sozialarekin etengabeko harremanetan bizi garenez, kanpotik datozkigun estimuluak etengabe uztartzen dira norbere hautemate-eremu psikologikoarekin, halako moldez non motibo-harien bizitasuna, izaera kilikatzaila edo inibitzailea eta haien arteko hierarkia beti den aldagarri. Aldagarria izanagatik, ordea, txikiak dira gehienetan aldaketak. Tarteka, baina, handiak dira geure hautemate-eremu psikologikoaren aldaketak, baina halakoetan behar izaten dugu kanpoko estimuluak bizi-bizi, indartsu eta bazterrezinak izatea.



Utzi aipatzen hiru egoera non eman daitekeen hautemate-eremuaren aldaketa, bai eta harekin batera jokaeraren aldaketa ere.

Zirraren indarra

Gizarte egoeraren bizitasuna hain denean handia, non kideen barne-zirrarak eta barne-eraginak aztoratzen diren, horrek, kanpoko estimulu mota horrek, badu ahalmena kideen hautemate-eremuak aldatzeko eta haren jokaera ohiz besteko norabidean jartzeko. Gure baitan sorturiko maitasun edo gorroto eraginek bultzatzen gaituzte harreman mota batzuk gauzatzera eta beste batzuk baztertzerara. Zirrara biziek zirt edo zart egitera mugitzen gaituzte erraz.

Ezinbestekotasun latza

Geurea ez den ohiz besteko eran jokatu beharrean gaudenean, bizi dugun gizarte-egoerak hala behartzen duelako, orduan berez pizten zaigu aurrera ateratzeko premia eta grina, bizirauteko sena, egokitze berezko ahalmena. Premia horien larriak indar nahikoa izaten du, gehienetan, gure jokaera bezala gure hautemate-eremua aldatzeko ere. Zerbait egiteko ez-ohiko jokamolde bati eustea beste erremediorik ez dugunean, ez-ohiko hori egitearen egiteaz azkenean irauliko da harekiko dugun hautematea. Batzuetan, harekiko maitasuna eta guzti azalduko zaigu; arruntagoa izango litzateke, sikiera, estimua sortzea; baina bai ia beti gertatuko da jokaera berria balioesteko beharra nabarmen piztea, disonantzia kognitiboa murrizteko berezko erantzun gisa, hain zuzen ere⁷. Horregatik du ohiz besteko jokaera barneratuak kideen hautemate-eremua aldatzeko ahalmena.

Ezinbestekotasun biguna

Batzuetan, talde batek bere esku du aukeratzea ez-ohiko egoera bat onartzea ala ez. Hala gertatzen da, esaterako, talde batek kanpoko eskari bat onartzen duenean. Baliteke kideek harekiko motibazio apartekorik ez izatea, baina ezta ezetz esateko motibo handirik ere, batez ere kontuan harturik eskariaren izaera eta eskaera-egileen ezaugarriak. Halakoetan, bide berrian ibiltzeko baietza emanik, ibiliaren ibiliz eta prozesu berriak aurrera egin ahala jokaera berriaren *erabilera-balioa* sumatzen has daitezke kideak, horrek euren hautemate-eremu psikologikoa berregituratzen duelarik, motibo-hari berriak gehitzen baitizkio horrek hautemate-eremuari jokaeraren norabidean.

Saillkapen xume honek iradokitzen du bai zirrarak bai jokaerak hautemate-eremuaren osagai funtsezkoak direla. Baina, baita ere, aditzera ematen du biek ala biek gizarte-harremanetan dutela oinarri nagusia. Zirraren kasuan, esaterako, barne-eraginak hainbat gizarte-bizipen bereziek sorrarazten dituzte. Jokaeraren kasuan, bestalde, gizarte-harremanak erregulatzen dituzten arau inplizitu edo esplizituek sorrarazten dituzte ohi ez besteko jardunak.

⁷ Disonantzia kognitiboarena izango da, hain zuzen ere, hurrengo atalaren gai nagusia.

2.1.9.

Disonantzia kognitiboa

Gutxi dira Gizarte Psikologian Festingerren disonantzia kognitiboaren teoriak adinako eraginik izan dutenak (Festinger, 1975). Teoria hori bi hamarkadatan baino gehiagotan esperimentu ugariaren sorburu ezin oparagoa izan da, eta bere bultzada ahitzen ari dela badirudi ere, haren uste nagusiak teoria berriagoen axiometan ageri dira era oharkabean onarturik.

Teoria honen baieztapen nagusietako batzuk honako hauek lirateke:

1. Kognizio ugari osatzen du gure hautemate-eremua. Kognizioa da zerbaiti buruz dugun ezagutza, hots, horri buruz dakiguna. Kontzientziaren edukiak dira, finean. Kognizioak dira, beraz, gure buruari buruz, besteei buruz edo egoerari buruz ohartuki dakizkigun gauzak. Horren barruan sartzen da nola hautematen ditudan nire aldarteak, nire zirrarak, nire gogoetak, nire balioak, baina baita nire jokaerak ere. Ohartu egiten naiz egiten dudana, eta hori kognizio gisa gordetzen dut nire hautemate-eremuan.
2. Kognizio batzuen arteko harremana gatazkatsua denean edo haien arteko adostasuna galtzen denean –bereziki, kognizio horiek gizabanakoak bereztat garrantzizkotzat hartzen dituen kognizioak direnean, eta bere buruaren definizioarekin edo balio nagusiekin zerikusia dutenean–, orduan disonantzia kognitiboa sumatzen du gorputz-gogoan, halako sentiera ezkor, ezatsegin eta gatazkatsua.
3. Disonantzia kognitiboa sentitzean, berezko beharra sortzen zaio gizakiari hartatik aldentu eta kontsonantzia (barne-adostasuna) berreskuratzeke. Disonantziak, beraz, gosea premia fisikoaren antzera jokatzen du; hau da, gosearen hozka sumatuta gosea berdintzeko berezko grina agertuko zaio gizakiari. Disonantziak, beraz, berezkoa du eragin motibatzailea.
4. Disonantzia ideia baten eta jokaera baten artean denean, esaterako, hiru modu nagusi daude barne-adostasuna berreskuratzeke.
 - a. Ideia aldatu jokaerarekin bat egiteko
 - b. Jokaera aldatu ideiarekin bat egiteko
 - c. Beste kognizio bat asmatu aurreko bi kognizioen aurkakotasuna arintzeko

Gizakiok dugun barne-adostasuna, barne-egokitasuna edo barne-oreka sentitzeko beharra autore ugari azpimarratu egin du psikologiaren eremuan. Csikszentmihalyik, esaterako, *negentropia* kontzeptua darabil jario-esperientziek gogoaren ongizatean duten eragina azaltzeko (Csikszentmihalyi, Donaldson eta Nakamura, 2011). Edo Rogers eta Gendlinen lanetan oinarritutako ildo



psikologiko osoa, zeinetan *kongruentziaren printzipioa* indarrez azpimarratzen duten, adierazteko, finean, pentsatzen, sentitzen, esaten eta egiten dugunaren arteko batasuna, zein baita, bide batez, osasun psikikoaren zein sozialaren oinarritzko zutabeetako bat. (Alemany, 1997).

Psikologiaren eremutik datorkigun gogozko adostasunerako joera eta premia, beste eremutan ere era antzekoan ikus daiteke. Hala, biologian, homeostasia kontzeptua guztiz errotu da Walter Cannon fisiologo estatubatuarrak kontzeptua sortu zuenetik. Kontzeptu horren bidez honako hau eman nahi zuen aditzera: “izaki bizidunek duten ahalmena euren barne-baldintzak era dinamikoan egokitzeko, kanpoko baldintzen aldaketei erantzunez.” Sistema Orokorren Teoriatik ere (von Bertalanffy, 1993) baieztatu dute sistema ireki orok joera duela egoera egonkorak eraiki eta haien eusteko, kanpoko osagaiekin elkarrekintzan jardunez, eta haien dinamikari erantzun egokiak emanez.

Lehenago, guk ere sistemek oreka bilatzeko eta hari eusteko duten joera azpimarratu nahi izan dugu, *bertango mugimendua* kontzeptua plazaratuta. Izan ere, bertango mugimendua dugu bere aritzean behin eta berriz hasierako puntura iristen den mugimendua. Mugimendu erreflexibo eta biribila, bere biribiltasunari esker egoera egonkor, muga ezagun eta ordena egituratua eskuratzen dituen.

Hortaz, baieztapen hauen guztien atzean dagoen axioma *orekaren printzipioa* bera da. Printzipio honek dio, elkarrekintza joko orok osagaien arteko oreka aurkitzeko/eraikitzeko joera duela, eta beti lortzen ez duen arren, beti izango duela harako isuria.

Oreka psikologikoaren bilaketa horretan, Festingerrek bazuen gizakiaz irudi arrazionalista samarra, pentsatuz-edo gizakiak irtenbiderik arrazionalenak bilatuko zituela disonantzia murrizte aldera. Aronsonek, baina, teoria berrinterpretatuz, bestelako norabidea eman zion disonantziaren teoriari. Haren ustez, “Disonantziaren Teoriaren uste nagusia ez da gizakia animalia arrazionala denik, baizik eta nagusiki iradokitzen du gizakia animalia *arrazionalizatzailea* dela, eta hori dela eta, saiatu egiten dela arrazionala agertzen bai besteren aurrean bai norbere buruaren aurrean.” (Aronson, 2007). Beranduxeago, Beauvois eta Jouleren lanek are gehiago sakondu zuten arrazionalizazioaren bide horretan, eremu soziologikoetan barrena murgiltzen zirela (Beauvois eta Joule, 1981). Ideologia eta mendekotasun fenomenoak aztertuta ikusi zuten ideologia norbere jokoera sozialaren arrazionalizatzea baino ez zela. Nolabait, norberak gizarte-jokoan duen posizioak eta haren arabera erakusten duen jokoerak determinatzen dutela gerora zein ideologia atxikiko duen. Hori determinanteagoa da, beren ustez, alderantzizko mugimendua baino; hots, uste izatea ideologiak determinatzen duela norbere jokoera.

Baditugu motibo asko pentsatzeko gizakion jokoera ez dela soilik kognizio ohartuek gidatutakoa. Bada ikerle ugari dioena –haiekin bat gatoz gu ere– giza jokoeraren bultzagarri gehienak gure oharmentik kanpo daudela. Ez dakigu, zinez, zergatik egiten ditugun egiten ditugun gauza asko, eta haien azalpenak bilatzerakoan, arrazionalizatze saioei ekiten diegu gehienetan, Aronsonen zioen bezala, arrazionaltasunaren edo koherentzia logikoaren itxura emanez bai besteri bai geure

buruari. Azalpen horiek, ordea, gure jokaeraren iturria diren edo ez diren, oso kontu zalantzagarria da.

Beste sistema batzuekin elkarrekintzan diharduen sistema bat da hautemate-eremua. Sistema orok bezala baditu, izan, egitura, barne logika eta araubide batzuk. Ez da elkarrekintza kaotikoa guztiz, tarteka entropiak bereak egiten baditu ere. Eremu horretako hariak elkarrekin ehuntzen dira emaitzaren bat mamitzeko, ez beti berdina, erantzun beharreko egoerak ez baitira beti bat. *Asmoa* esaten diogu emaitza horri. Ekintzari *zentzua* ematea du zeregin. Asmo bat mamitu dugula esatean, esaten ari gara hautemate-eremuak ekoitzi duela bere emaitza, eta orain badituela jokae-rak norabide eta zentzua.

Hari mutur ugari uztartzen eta ehuntzen dituen gero, asmo bat nobela baten amaierarekin erraz aldera liteke. Kontakizun baten amaiera ezagututa erraz konta lezake narratzaile trebe batek, ustez, elkarri txirikordatu zaizkion gertakariak halako bukaera bat eman zedin. Arrazionalizatzea ez da oso bestelakoa izaten narratzaile trebe batek egiten duenarekin alderatuta, hark istorio bat atzekoz aurrera kontatzen duenean. Istorioak kontatzeko dugun gaitasun miragarriak asko esaten du gure gogoari darion egitura narratiboaz. Alderdi hau maisutasunez azpimarratu izanaren meritua Jerome Bruner psikologo estatubatuar handiari dagokio, besteak beste (Bruner, 2010). Ez ditugu istorioak kontatzen liburu, ipuin eta pelikuletan bakarrik. Ez, geure psikismoaren berezko ezaugarria bada, izan, geure buruari etengabe kontakizunak kontatzea, azaltzeko egiten duguna zergatik egiten dugun, edo pentsatzen eta sentitzen duguna zerekin lotzen dugun. Jarduera narratibo nekaezin horri esker, zentzu bat eman nahirik dihardugu bestela kaotikoa izan zatekeen munduari. Koherentiaren bila aritzea dugu langintza, barne psikismoaren oreka atxikitzeko. Beste jokoak ere kontakizun elaboratuak prestatu ohi ditugu, beharra sumatzen baitugu euren asmoen logika interpretatzeko edota euren jokaerari zentzu koherentea emateko. Gizarte mailan ere, talde batzuek eta besteek etengabe dihardute kontagintzan. Oso ohikoa izaten da norbere gizarte-jokoari buruzko kontakizunak zilegitasun-emaile izatea, eta, atzekoz aurrera, beste talde eta multzoei buruzko kontakizunak zilegitasun-kentzaile izatea. Kontagintza eta arrazionalizatzea ezpala berekoak dira, dudarik gabe. Gizaki modernook animalia arrazionalak sentitzeko beharra izaten dugunez, eta besteen aurrean ere halako itxura eman nahian saiatzen garenez, ez dugu arazo handirik izaten abiapuntu irrazionala duten jokaerei ere itxura arrazionala emateko. Jokaera arrazionalizatzeak, kontakizun onak bezala, egiaren antzarekin du benetako konpromisoa, ez hainbeste egia hutsarekin. Datu errealak eta fikziozkoak era eder koherentean bilbatzen ditu narratzaile trebeak, eta hark bezala, norbere eta besteen jokaerari buruz kontakizunak etengabe atontzen dituen gizaki arrazionalizatzaileak ere.

Festingerrek berak iradokitzen zuen ezen eragozpenik txikiena egiten duen kognizioaren aldera jo ohi duela aldaketaren jarioak, alderdi horrek errazago ematen duelako amore disonantiaren presioaren aurrean. Zein da alderdi ahul hori hizkuntza hautuari dagokionez, bi hizkuntzen arteko botere harremanak argi asimetrikoak direnean? Hizkuntza-jokaera ala hizkuntza jarrera-hautematea? Euskalgintzan diharduen orok erraz erantzungo lioke galdera honi bere bizipen, behaketa eta senetik erantzunda. Erdarazko jokaerak eragozpen latza erakutsi ohi dio hizkuntza aldaketari



–arrazoi soziolinguistiko ugarik emango luke horren azalpena–. Ordea, hizkuntza-jokaerari buruzko uste, azalpen, ideia, argudio eta antzekoak aldatzea erraza dirudi, bai, behinik behin, hizkuntza-jokaera baino errazago. Beraz, eragozpen txikia. Ez dirudi oso nekeza denik geure gaitasun narratzaile eta arrazionalizatzaileak baliatuta geure jokaerak zuritzea eta azaltzea. Hauteman-eremuaren plastizitate eta malgutasun ikaragarriak eragozpen txikia ezartzen dio disonantziaren presioari. Bera da kate-begi ahula, eta, hortaz, moldagarriena. Disonantziaren presioak joko du gure hautemate-eremua aldatzera gure hizkuntza-jokaera aldatzea nekeza denean –arrazoia edozein dela ere–.

Badirudi hobe genukeela, hizkuntza ahula gehiago erabili nahi izatera, hizkuntza-jokaeraren aldaketa gizarte-ekintzaren bidez bilatuko bagenu, gizabanakoen hautemate-eremua eraldatzearen ondorioz bilatu ordez. Disonantzia kognitiboaren teoriari esker badakigu, behin ohiz besteko jokaera bati eutsiz gero –arrazoia edozein dela ere, baina betiere gizarte-baldintzek bultzatuta–, horrek berez abiaraziko duela hautemate-eremuaren berregokitzea, disonantziaren atsekabe errea murrizteko premiak gogotik behartuta. Egoera faktiko berrira egokitzearen, justifikazio hari berriak aurkituko ditugu, edo, beharrezkoa bada, asmatu egingo ditugu, betiere arrazionalizatze gaitasun ahaltsua lagun dugula. Ez da gutxi hori jakitea.

2.1.10.

Berregituratzearen eragiketa

Edozein aldaketa prozesu berregituratze prozesu bat da. Aldatu egiten da harremanen nolakoa eta aldatu egiten da gertakariak ikusteko modua.

Disonantziaren gertakariak aditzera ematen du ezen gizakiok baditugula adostasunerako beharra eta joera. Horrela formulatuko genuke adostasunaren printzipioa: *Organismoak joera du hautemateen eta jokaeren arteko oreka bilatzeko, horrek, egonkortasuna, atsegina eta eraginkortasuna ematen dizkiolako bera den osotasunari*. Adostasun honek bi alde ditu: Batetik, hautemate-eremuaren egokitzea, hau da, *gogo-egokitzea*; eta, bestetik, gizarte eremuko jokaeraren egokitzea, hau da, *gizarte-egokitzea*.

Gizabanakoa ez ezik, taldeak ere sartuko lirateke aurreko definizioaren esparruan. Talde batek, sistema den neurrian, behar ditu kideen arteko jokaerak bateratu, sistemari egonkortasuna emateko. Gizarte-egokitzea, alegia. Baina, era berean, kideek elkarri egokituta eremu sinboliko singularra eraikitzen dute, horri deitzen zaiola talde-kultura, arau inplizituak edo historia konpartitua. Alderdi hauek guztiak arestian aipaturiko gogo-egokitzearen pareko har genitzake. Hizkuntzaren ikuspegitik aztertuko bagenu taldea, esan genezake *hizkuntza-arau inplizitua* dela eremu sinbolikoaren adierazlerik behinena. Berezko egoeretan berez eta inplizituki eraikitzen da hizkuntza

-arua talde batean⁸, eta, izan, kideen arteko hizkuntza-jokaeraren beraren emaitza izan ohi da. Baina, atzekoz aurrera ere, behin hizkuntza-arua sortuta, kideen jokaera zuzen eta seguru gidatzen du eremu sinbolikoak. Hizkuntza-arauak eta hizkuntza-jokaerak bat egiten dute, sistemari egonkortasuna emateko.

Gizabanakoa izan edo taldea izan, beti antzematen ditugu bi alde elkar hartuta doazenak: alderdi faktiko bat (jokaera, ekintza, elkarrekintza...) eta alderdi sinboliko bat (hizkuntza-arua, haute-matea, ideiak...). Biek ala biek eremu faktiko-sinboliko orekatua eraikitzen dute, elkarri euskarria ematen diotelarik. Kontzeptu berri hauetaz baliu gaitzke, orain, disonantziaren gertakariak hitz egiteko. Eta esan ezen eremu baten berregituratzea –hori da hizkuntza aldaketa talde batean, esaterako– era berean abia daitekeela eremu faktikotik edo sinbolikotik. Hasierako bultzada nondik-nahi datorrela ere, alderdi osatzaileak beti izango du beharra, bere burua moldatuta, aurreko alderdiarekin sintonia, adostasuna edo kongruentzia berreskuratzeko. Malgutasun horrek esperientzirako aukera ugari ematen ditu. Hala ere, gure hautuak, gero azalduko ditugun arrazoiak direla medio, alderdi faktikoari lehentasuna ematearen alde egiten du.

2.1.11.

Eskatu ezean arauzko aukera

Gaztelaniaz honi *opción por defecto* esan ohi zaio. Gigerenzer-ek hortaz dihardu, labur bada ere, *Decisiones intuitivas* liburuan (Gigerenzer, 2008). Prozedura honen muina erabakitze mekanismoa erraztean datza. Hala, bi, hiru edo hainbaten artean hautatzeko aukera dagoen egoeratan, arau batek finkatzen du zein aukera aplikatuko den, jendeak hautatzeko eskubideari heldu nahi ez dionean. Labur esanda: eskatu ezean araua aplikatu egingo da. Sistema honek aukerak eman eta erabakitzeko eskubidea onartzen dio gizabanako bakoitzari, baina modu hori aktiba dadin, norberak nahita eskatu behar du eskubide horren gauzatzea. Nolabait, gizabanako bakoitzak erabakitzeko ahalegintxo egin behar du, txikia bada ere; bestela arauak berez agintzen duena gauzatuko baita. Arauak bideratzen duen aukerari izaera automatikoa aitortzen zaio. Gainerako aukerei izaera kontziente edo aktiboa ematen zaie.

Aukeratzeko eskubideak ematen duen askatasun sentsazioa bezain erakargarria izan ohi da erabaki beharrak berekin dakarren ahalegin eta atsekabetasuna baztertu ahal izatea, gure orde zerbaitetik edo zerbaitek aukeratu duelako. Bi motibo indartsu hauek batean biltzen ditu *eskatu ezean arauzko aukera* prozedurak. Gizabanakoak antzematen du nahi izatera bere esku duela aukera bat ala bestea hautatzea. Askatasun hori edukita, ordea, erabaki behar ez izatearen erosotasuna ere begien aurrera datorkio erakargarritasun handiz.

⁸ Egoera elebidun batean zein hizkuntza hartzen duten kideek hizkuntza nagusitzat adieraziko luke eremu hartako hizkuntza-arua zein den.



Gigerenzerrek aipatzen dituen ikerketek diotenez, arauzko aukera nagusitu ohi zaie gehien-gehienetan arauzko ez diren aukerei. Bestela esanda: erabaki behar ez izatearen erosotasuna gailentzen zaio erabakitzeko eskubidearen aplikazio arduratsuari.

Gurea bezalako egoera elebidunetan, non teorian hiztunaren esku dagoen hizkuntza bat ala beste aukeratzea, hizkuntza nagusia da egitez *eskatu ezean arauzko aukera*. Hala, egoera pribilegiatua duten hizkuntza nagusiei erosotasunaren inertzia bera gehitu behar zaie. Miatu beharko litzateke zer izango litzatekeen eta nola gauza zitekeen *eskatu ezean arauzko aukera* prozedura euskarari aplikatuta, gaztelania aukerako utzita.

Eskatu ezean arauzko aukera prozedura balizko mekanismoetako bat da hizkuntza-jokaera iraultzeko alderdi faktikotik abiatuta.

2.1.12.

Jardutearen atsegina

Zerbaitetan jardutea benetan oso esperientzia latza edo atsekabea izan daiteke. Baina, era berean, zorientasunaren iturri agortezina ere bai. Ez gara hitz egiten ari jardunaren edukiaz, baizik eta jardute hutsaz. Eduki edo gai baten inguruan aurki dezake assetasuna gutako bakoitzak, baina gaia edozein dela ere, badirudi ezaugarri komun batzuk dituztela jardun arrakastatsu poza-emaile guztiek. Halako egoerak, aspaldi honetan, *jario-egoera* gisa izan dira izendatuak⁹ (Csikszentmihalyi, 1997). Jario-egoera horiek ematen dira norbanakoak erronka bati buru-belarri heldu eta, aldi berean, erronkaren zailtasuna jardulearen gaitasunetik gertu ere badagoenean, halako moldez non oztupoak gaintzeko moduan ikusten baitu bere burua. Jarduleak, hortaz, egingarri eta eramangarri hautematen du erronka, lorpena zaila izango den arren.

Baldintza berberak zehaztu zituen, aspaldian, Vygostky psikologo entzutetsu eta konstruktibismoaren hauspole nagusietakoak, ikastearen mekanismoa azaltzeko (Vygostky, 2010). Haren hitzetan, ikastea harreman dialektikoa da erronkaren eta hurraren gaitasunaren artean. *Garaparen Hurbileko Gunea* kontzeptuaren bidez izendatu nahi izan zuen hurraren unean uneko gaitasunaren eta erronka egingarri eta eramangarrien arteko guneari. Gune haren barruan gertatukoek garapena edo ikastea zekarten berarekin. Gune horretatik kanpo ziren erronkek –azpitik ala goitik– ez zuten garapena edo ikaspena eragingo. Eta, guk gaineratuko genuke, ez lukete jario-egoerarik ekarriko, ez eta ikastearen atsegina bizi araziko ere.

Ideia bera ez da arrotza izan bigarren hizkuntzaren jabeakuntzaren alorrean ere. Ezagunetarikoa dugu Krashenen ekarria input hipotesiaren bidez, bigarren hizkuntzaren jabeakuntza azaltzeko

9 Gaztelaniaz *estados de flujo* kontzeptuaren bidez itzulita.

erabili zuena (Krashen, 1985). Haren ustez, pertsona batek hizkuntza gaitasuna eskuratzen du: 1) jasotzen duen hizkuntza-inputa dagoenean unean uneko bere hizkuntza gaitasunetik zertxobait aurreragoa $-(i + 1)-$, eta, aldi berean, 2) inputa ulertzera iristen denean, ulertzeko ahaleginaren ondorioz. Jardulea, estrategiak erabilia, informazio zaharraz baliatuko da informazio berria ulertzeko, eta, hala, hizkuntza gaitasunak koska bat egingo du aurrera.

Hala ere, azkenekoek ez bezala, Csikszentmihalyi-k argitasun handiz azpimarratu du jardute arrakastatsu eta jariotsu batek dituen ondorio emozional eta motibatzaileak. Esan genezake, disonantzia kognitiboaren teoriari berriro ere aipamena eginez, ezen jardute trabatu batek disonantzia handitzen duen bezala, jardute jariotsu batek, atzekoz aurrera, kontsonantzia areagotzen duela. Badirudi hiru direla, nagusiki, jardute jariotsu batek eskatzen dituen baldintzak: lehenik, erronkak helburu argia edukitzea; bigarrenik, erronka eta jardulearen gaitasunak proportzio orekatuan egotea; eta, azkenik, jarduleek lorpenei buruzko etengabeko atzera-informazioa¹⁰ edukitzea (Csikszentmihalyi, 1997). Baldintza hauek ematerakoan jario-egoerak sarri bizi ditugu. Orduan ageri zaizkigu euren onura emozionalak. Aurrena, eta ez munta txikikoa, arreta sakonki biltzearena da. Matazaren hari guztiak ehuntzen direla ematen du, pieza guztiek bat egiten dutela, alegia, eta jardulearen gogoan ordena, kontsonantzia edo negentropia halako sentiera atsegin bat zabaltzen da. Bestaldetik, jarduleak lorpen-sentiera du, zerbait berria ikastearen, erronka bat gainditzearen edo bide interesgarri batean barrena aurrera egin izanaren poza eta harrotasuna gailentzen zaio: auto-estimua elikatzen da.

Halako egoeratan sumatzen dugu jario-egoeraren baten bueltan gabiltzala:

- Noraezean aritu ondoren, azkenik gaia ukitzen ari garelako sentsazioa gailentzen zaigunean.
- Aukera ugari artean ibili ondoren, azkenik norabide baten egokitasuna biziki sumatzen dugunean.
- Saiakera batzuk egin ondoren, azkenean lorpen-suma dugunean.
- Itsu antzean jardun ondoren, halako batean zerbait berri aurkitu izanaren “eureka” sentsazioak harrapatzen gaituenean.
- Jardunean nagi ibili ondoren, bat-batean erritmoari lotu gatzazkiola, eta jarduna erraz eta lastertasunez doala aurrera, nabaritzen dugunean.

Nahi genuke multzo hau guztia *jardutearen atsegina* izen orokorraren aterpean bildu¹¹, nortasun berezia emateko, eta, hala behar dugunean, hartaz modu espezifikok hitz egin ahal izateko. Garbi dago, haatik, ezen jardutearen atsegina eta asebetetasuna egoera jariotsuen ezaugarriak gertatzen

10 Atzera-informazioaren bidez ingelezko feed-back adiagia adierazi nahi izan dugu. Horrek aditzera eman nahi du sistema baten barrura itzultzen den informazioa, sistemaren jardutearen emaitzaren berri emanez. Informazio horri esker sistemak berak bere burua erregula dezake.

11 Jorge Wagensberek liburu erakargarrian halako titulua eman zion bere liburuari zientzialarien jarduna izendatzeko: *Buru lanaren gozamina*. (Wagensber, 2008) Jakina, ikastearen atsegina ari zen. Gozamen emozional hori zientziaren aurrerapenaren erdigunean ipini zuen liburugileak.



direnean ematen dela, eta, horregatik, tarteka, *jardute jariotsuaren atsegina* kontzeptua erabiliko dugu aurrekoaren ordeztu, adierazpenari zehaztasun handiagoa eman nahi diogunean.

Jardutea bera motibazio iturria da, jario-egoerak agertzen badira. Halaber, jardutearen edukiak –edo gaiak– jardulearen estimua irabazten du erabiliaren erabiliaz, eduki horrek praktikan funtzionaltasuna erakusten duelako. *Erabilera-balioa* esan geniezaioke horri. Praktikan balio funtzionala duenak luzaroan jardulearen afektua bereganatzen du. Erabilera-balioak, beraz, badu osagai motibatzaile handia, zeren estimu hori gerora jokaera funtzionalaren beraren euskarri bihurtuko baita.

Aldaketa prozesu arrastatsu batek, ondo bidean, bi indar motibatzaile ahaltsu ernatzen ditu. Batetik, *jardutearen atsegina*, jardutea bera besterik ez aintzat hartuta, eta, bestetik, *erabilera-balioa*, jardutearen edukiaren funtzionaltasunari begiratuta. Bi indar motibatzaile hauek, bestelakoak izan arren, batera gertatzen dira, txanpon beraren bi aldeak bailiran. Prozesuari lotutako indar motibatzaileak izanik, euren ziztada hasieratik bertatik hasten da nabaritzen, eta, egia esan, prozesu osoaren eusle nagusi izatera iristen dira. Bidean zehar bizi izandako tarteko emaitza txikien aseak lorpen handiagoak eskuratzeko zirika eta elikagai bihurtzen dira.

Prozesu arrakastatsu batean jarduleak *betetze energetiko* halako bat sumatzen du bere baitan, zeren prozesuari loturiko indar motibatzaileek gain hartu baitiete balizko indar eragozleei. Aitzitik, prozesu zapuztu batean, indar eragozleek ito dituzte balizko indar motibatzaileak, eta, orduan, halako *hustutze energetiko* batek harrapatzen du jardulea.

2.2.

Hizkuntza-jokaera iraultzeko esperientzia marko baten bila

2.2.1.

Ezinbestekotasun biguna

Talde bati kanpotik jokaera-eskari bat egin eta berak onartu egiten duenean, *ezinbestekotasun bigunaren* eremuan mugitzen ari gara¹². Jokaera jakin bat eta ez bestelakorik eskatzen ari gara, eta hori da, hain zuzen ere, eskariari ezinbestekotasuna edo muga estua ematen diona. Bestalde, eskaria den neurrian ez da beharkizuna. Eskari bat badago onartzea ala ukatzea. Bigun izatearena hemendik datorkio. Ez ohiko eran jokatzeko eskaria, gure kasuan, eremu jakin batean euskaraz bakarrik jokatzeko izango litzateke. Kontu egin gure esperientziak jokaeraren alderdi faktikoari sinbolikoari baino lehentasun handiagoa ematen diola.

Beraz, talde baten oniritzi oharduna bilatzen ari gara ohiz bestera jokatzeko. Baina, komeniko litzateke ez ahaztea zein den taldearen abiapuntua:

- Ekimena ez da taldearen barrutik sortu
- Ez du taldeak kanpoko eragileengana jo laguntza eske
- Ez du taldeak arazo gisa bizi ohiko moduan jokatzeko
- Ez du taldeak motibo apartekorik ohiz bestera jokatzeko

Esan dezagun, bidenabar, abiapuntuzko baldintza hauek doi-doi direla terapia psikologiko baterako beharrezko diren gutxieneko baldintzen kontrakoak. Gizabanako batek bere jokaeran arazorik ikusten ez duenean, eta, hortaz, aldatzeko premiarik sumatzen ez duenean, ezin dugu guk espero haren jokaera aldatzea esku-hartze terapeutiko baten bidez. Eragozpen psikologiko guztiek galgatu lukete “arrakasta” ororen eskuratzea.

Gizarte esku-hartze batean, ordea, kontuak ez dira guztiz bat halakoak. Izan ere, gizarte eraginaren gako nagusia ez da gizabanakoaren nahi hutsa, baizik eta gainerako kideen/taldeen/erakundeen jokaerak norbere jokaeran sorrarazten duen egokitzeko beharraren indarra. Gauzak horrela, kanpoko talde batek ekar dezake beste talde baten jokatzeko modua egokitu beharra, jokaera-eskari baten bidez esaterako. Era berean, talde barruko harremanean, kide batzuen jokaerak ekar dezake beste kide batzuen egokitzeko beharra. Ahaleraren erabilera (“ekar dezake”) nahita egin dugu, zeren ez baita beti halako eragin handia sortzen ohiz bestera jokatzeko. Horregatik, honek

¹² *Eusle Metodologia*, finean, jokaera-eskari ordenatu eta adostua da. Metodologia honek talde bateko harreman guztietan euskara hutsez egingo duten pertsonentzat zilegitasun soziala bilatzen du.



eraman beharko gintuzke baldintzei buruz hitz egitera. Zein nolako ezaugarriak eta baldintzak bete beharko lituzke talde eragile batek bere eragina beste talde baten jokaera aldatzeko adina-koa izan dadin? Eta nolakoak talde eragingarri batek? Beste baterako utziko dugu talde eragile bati dagozkionak. Oraingoz, talde eragingarri baten ezaugarriei erreparatuko diegu.

Motibazioaz ariko gara, lehenbizi. Hizkuntza gaitasunaz, gero.

Motibazioa

Hona gutxieneko abiapuntua: Taldeak onartu egiten du jokaera-eskaria ez aldeko motibo handiak dituelako (ze hala balitz, ez bailitzateke beharrezko izango halako eskaria egitea), baizik eta ezetz esateko *nahiko motiborik ez duelako*. Bestela esanda: taldearen eragozpen-mailak ez du nahiko indarrik eskaeraren bultzadari gailentzeko. Honek motibazioaren gutxieneko ataria deskribatzen du. Behean emango dugun eskalan 3. koskan kokatzen da gutxieneko ataria.

1. Gogo handia
2. Gogo bai, baina lozorroan bezala, ez operatiboa
3. *Gogo nabarmenik ez, baina aurka jartzeko motiborik ere ez*
4. Aurkako gogo aktiboa

Motibazio mailaren gutxieneko ataria *talde osoaren joerari* dagokio. Alegia, jokaera-eskari bati oniritzia emateko ez da beharrezkoa kide guzti-guztiek gutxieneko atari honetara iristea. Gehiengo kualifikatu batek ematen duen baiezkua nahiko izan liteke talde baten nahia abiatzeko.

Bada, gehiengoaren metodoaz gain, beste prozedura bat talde baten gogo neurtzeko, eta da “Eragozpen Txikieneko Metodoa”¹³. Metodo honek proposamen batekiko eragozpen maila neurtzen du eragozpen-eskala baten bidez.

Bi metodoak uztartuz, eska daiteke batetik gehiengo kualifikatu batek (%75) eskariarekiko oniritzia ematea, baina era berean, talde osoaren eragozpen mailak ezin du %30 baino handiagoa izan. Hauxe izan liteke irizpide praktikoa samarra gutxieneko talde-motibazioaz hitz egiteko.

13 Metodo honi, Erich Visotsching matematikari eta fisikari alemaniarrek eta Siegfried Schrotta ingeniari austriarrak eman zioten arnasa, 2005. urtean, “Adostasun Sistemikoa” izenarekin ezagututa. Informazio gehiago nahi duenak jo beza helbide honetara: www.sk-prinzip.net/

Ulertzeko gaitasuna

Jokaera-eskariaren muina euskara erabiltzea denez gero¹⁴ –gogoan izan gure esperientzia alderdi faktikotik abiatzen dela, hots, erabileratik bertatik–, kide guztiek, halabeharrez, euskara ulertu beharko lukete. Kide batzuek eremu osoan euskaraz egingo badute, eta komunikazioa eten ez dadila nahi badugu, ez dugu besterik kide guztiek euskara ulertzea baino.

Kide batzuen euskarazko ulermen maila oso apala izango balitz, hala eta guztiz ere haiekiko harremana euskarazkoa izan liteke, baina horrek guztiak kostu energetiko handi samararren truke izan beharko luke. Hizkuntzazko komunikazio arazoak ugari izan litezke. Elkar ulertzeak pazientzia handia eskatuko lieke solaskideei. Era berean, hizkuntzarako gaitasun estrategiko nabarmena erabili beharko lukete batzuek zein besteek. Horrek guztiak, finean, komunikazio mugatu eta mantsoa ekarriko luke hainbat solasetara, eta hori ez da beti samurra, kostu energetikoaren ikuspegitik.

Hartara, esperientziak ahalegin gutxiagorekin bideratu nahi izanez gero, koska bat gehiago goratu beharko genuke ulermenaren gutxieneko eskakizuna. Honelaxe deskribatuko genuke atari hori: *Euskara guztiz eta zehazki ulertu gabe ere, hots, xehetasun guztiak ulertu gabe ere, ideia nagusia hala moduz ulertzen da. Halako gaitasuna aski izan liteke euskarazko komunikazioak nolabaiteko jarioarekin aurrera egin dezan, gehiegizko itzulingururik erabili gabe.* Horretantxe kokatuko genuke gure atalase maila, ulermenari dagokionez, eta kide guzti-guztiei eskatuko genieke.

Rixon-ek proposatu zuenez, ulermenaren mailakatzea honako eskala honen bidez ager zitekeen (Rixon, 1988). Guk, orainoan, ulermen mailarako ezarri dugun gutxieneko ataria 2. koskan legoke. Hona hemen eskala:

1. Zehazki ulertzen du
2. *Idea nagusia ulertzen du, hainbat xehetasun galdu arren*
3. Gaiaren nondik norakoa antzematen du, baina ziurtasun handirik gabe
4. Ez du ulertzen

Mintzatzeko gaitasuna

Euskaraz mintzatzea denean jokaera-eskaria, kide guztiak ez badira ere, batzuek bederen gai izan beharko lukete euskaraz nolabaiteko erraztasunaz hitz egiteko. Hauek dira ohiz besteko jokaerari ahaleginik txikienarekin eustea daukatenak, eta, nolabait, hizkuntza gai-

14 Sarreran aipatu bezala, *Eusle Metodologia* k oinarrian du talde batek eusleen figura onartzea. Eusle batek euskara hutsez egingo du talde barruko harreman guztietan. Hau da, hain zuzen ere, talde bati egiten zaion jokaera-eskaria, eta taldeak oniritzia ematerakoan abiatzen da gizarte-esperientzia. Esperientzia hori *ezinbestotasun bigunean* oinarritzen da.



tasunaren aldetik egin behar ez duten gastu energetikoa bidera dezakete ohiz besteko jokaerari eusteko zereginera.

Beherago erabiliko dugun eskalan, 1. koskan kokatu dugu gure gutxieneko ataria, eta, esan bezala, ez kide guztiei, gutxi batzuei baizik eskatzearekin konformatuko ginateke, gutxieneko baldintzak zehazten ari garen honetan. Lehenengo koska horretan dagoen laguna, hortaz, gauza izango litzateke erraztasunez hitz egiteko euskaraz, nahiz eta hainbat gairekin, ideiarekin edo erregistroekin zailtasunak eduki. Zailtasun horiek, baina, ez dira motibo hitz jariora moteltzeko. Gauza da, nahi izanez gero, adierazkortasun zailtasunak gainditzeko, bi-tarteko estrategikoak erabiliz (gauza bera beste modu batez esan, metaforak erabili, hitzak asmatu, deskribapenak egin, eta abar).

Hona hemen, orduan, aipaturiko eskala:

1. *Erraztasunez hitz egiten du, nahiz eta tarteka itzulunguruak erabili behar izaten dituen adierazpen zuzenak aurkitzen ez dituelako.*
2. Gauza arruntak adierazteko arazorik ez, baina ideia luzeak eta diskurtso egituratuak egiteko asko pentsatu behar izaten du.
3. Formula topiko batzuk eta hitz batzuk adierazteko gauza bada ere, esaldiak osatzeko arazo nabarmenak ditu.
4. Ez daki, nahiz eta agian hitz batzuk ezagutzen dituen.

Hona hemen, jarraian, bildurik taula bakarrera, ezinbestekotasun biguneko egoera elebidun batean jokaera-eskari bati eusteko zeintzuk izango liratekeen gutxieneko baldintzak, gure ikuspegitik.

<i>Atala</i>	<i>Gutxieneko ataria</i>	<i>Deskribapena</i>	<i>Nori dagokio</i>
Motibazioa	3. koska	Gogo nabarmenik ez, baina aurka jartzeko motiborik ere ez	Talde gehiengoari
Ulermena	2. koska	Idea nagusia ulertzen du, hainbat xehetasun galdu arren	Taldekide guztiei
Mintzamina	1. koska	Erraztasunez hitz egiten du, nahiz eta tarteka itzulunguruak erabili behar izaten dituen adierazpen zuzenak aurkitzen ez dituelako	Taldekide batzuei

Jokaera-eskari bati erantzuteko gutxieneko baldintzak zehaztu baldin ditugu ere, zein da jokaera-eskari horren ezaugarria? Galdera honi erantzuteko tarte berezi bat zabalduko dugu hurrengo atalean.

2.2.2.

Euslearen ezaugarriak

Ohiko hizkuntza-jokaera ohiz besteko hizkuntza-jokaera batez ordeztea eskatzen ari gara jokae-ra-eskaria egitean. Hau da eta ez besterik jokaera-eremuaren berregokitzearen benetako abiapuntua. Jokaera honen zilegitasuna eskuratzeko, hain zuzen ere, eskatu dugu taldearen baimena eta oniritzia. Aldaketak jokaera bat ordeztea ekarri ohi du; hots, baten ordez beste batez jokatzea. Ordezko hizkuntza-jokaerak ohikoaren zeregin bera ordeztuko du taldearen egiturari. Honek aditzera ematen du taldearen ibilbidea bihurgune batera iritsi dela, non ohiko norabideak toki utziko dion ordezkoaren bestelako norabideari.

Ordezko hizkuntza-jokaerari eutsita jardungo dutenek honako hiru funtsezko ezaugarri hauek erakutsi beharko lituzkete euren jokatze moduan, jokaera-eremua benetan berregituratzeko:

1. **Ausarta**

Jardun zuzenaren bidez hizkuntzaren erabilera-balioa berez agertzen duen jokaera

2. **Sendoa**

Taldearen zeregin guztietarako eta kide guztiekin burutzen den jokaera

3. **Iraunkorra**

Denboran zehar luze irauten duen jokaera

A.S.I. ezaugarri hauek¹⁵ euskaraz mintzatzeko erraztasuna duten kideen artean aurkitzea izango litzateke ohikoena. Haiek aldaketaren haziari, hots, euskarazko jokaerari, eusten diotelako *eusle*¹⁶ izendatzea egoki deritzogu. Eusleak, orduan, ezohiko jokaera atzeraezin eta errepikarien epizentrotu bihurtzen dira, halako moldez non haien inguruan dauden kideek egokitzeko beharrean sumatzen duten euren burua. Euren jokaera egokitzailearen bidez eusleen egitekoa baimentzen eta bideratzen baitute, *uzleak* deitzea egoki izan daiteke gainerako kide hauen jokaera deskribatzeko. Eusleak egiteko aktibo nabarmena dute taldean, euskararen erabilerari helduko diotelako egoera guztietan eta pertsona guztiekin. Uzleak, ordea, atea irekitzen dute, bidea ematen dute, egoera desblokeatzen dute, eusleen hizkuntza-jokaera onartzen dute eta hauspotzen euren jokaerarekin. Batek (eusleak) egin dezan, besteak (uzleak) bidea eman behar dio. Eta, hala, elkarren zereginak osatzen dituzte eremu berria eraikitzeko.

Aukera eman bekigu ordezko jokaeraren A.S.I. ezaugarriak patxada handiagoz lantzeko.

¹⁵ Ausardiaren, Sendotasunaren eta Iraunkortasunaren akronimoa

¹⁶ Euslea: Ohiz besteko jokaera atzeraezin eta errepikarien epizentroa



Jokaera ausarta

Hizkuntza batek erabilera du baliorik lehen: *erabilera-balioa*. Erabilerak hizkuntzaren gizarte-bizitza dakarren bezala, erabilera ezak kamustasuna hurreratzen du. Hiztunek baliogabe zuten hizkuntza erabileraren bidez balioarazten hasten diren unean, bihurtzera esanguratsura daramate hizkuntza eremua. Hala, ohiko norabidea geldiarazi eta beste norabait bihurtzen dute hiztunek beren hizkuntza-jokaera, eremua berregituratzeko jokaera egokitzailak barra-barra suspertuz.

Ikusten dugu, hortaz, ordezeko hizkuntza-jokaerarekin batera, zerbait urratu eta zerbait eraiki egiten dela, zerbait geldiarazi eta beste zerbait abiarazi egiten dela. Bestela esanda: zerbait baliarazteko beste zerbait baliogabetu egin behar dela. Hizkuntza bihurtzera batean joko aldaketa gertatzen da. Gordinean esanda: hizkuntza baten ordezkapena ematen da. Lehen, komunikaziorako bitarteko baliotsua zen hizkuntza, orain baztertuta eta baliogabe gelditzen da. Eta, atzekoz aurrera, lehen erabilera-balioa ez zuen hizkuntza zokoratuak, aurrekoa ordeztzerakoan, balioa irabazten du hiztunen begietara. Menderatzaile-mendeko harremanak garbi ematen dira bi hizkuntzek eremu berean bizitzeko lehian dihardutenean.

Aukera izan dugu, azken urteotan, hizkuntza ohitura irauli duten hainbat kasuren azterketa egiteko (Soziolinguistika Klusterra, 2009 eta 2011). Baieztatu ahal izan dugunez, ia beti ematen da halako inflexio puntu bat, halako bihurtzera argi bat, non jauzi kualitatiboa emanda, hizkuntza jokoa errotik aldatzen den, bat-batean. "Hemendik aurrera euskaraz" esaldiak adieraziko luke une hori. Izan ere, eremu berri bat zabaltzen duen erabaki esplizitu baten adierazpena. Azpimarratu nahi genuke, bide batez, bihurtzera horren errototasunak erakusten duela hizkuntza-jokaera ez dela aldagai jarraitua eta progresiboa, ez, behinik behin, hizkuntza gaitasunaren progresioa izan daitekeen bezain lineala. Ez, hizkuntza-jokaeraren aldaketa ez dator urrats txikien metaketaz. Aitzitik, badirudi izaera dikotomiko sakona duela (*bai ala* ez moduko bat). Aldagai dikotomiko honek iradokiko luke ezen bi hizkuntza-joko desberdinak daudela, eta bataren ala bestearen logika aukeratu behar dela, zirt edo zart eginez, baldin jokaera koherente (kongruente, konsistente, logiko, egoki) bati lotuko badira. A hizkuntzaren jokoak bere buruari aitortzen dio nagusitasunaren zeregina (menderatzailea izatea), eta, hori egitean, automatikoki, azpiko eta meneko zeregina atxikitzen dio B hizkuntzari. Azpikotasuna modu zorrotzean ager daiteke, B hizkuntza zuzenean zokoratzen denean, baina, era berean, modu malguan adieraz daiteke, B hizkuntzari salbuespeneko agerpenak onartzen zaizkiolarik. B hizkuntzaren jokoa, bestalde, aurreko bera izango litzateke, egoera iraulita, Aren ordezkari B jarritz eta Bren tokian A ipiniz. Logika horiek elkarri talka egiten diotenez, disonantzia kognitiboaren iturburu izaten dira. Koherentzia berreskuratu nahian, logika bati ala beste bati heldu behar izaten diote gizataldeek.

Jokaera sendoa

Sendotasunak kolokan ez dagoen jokaera adierazten du. Halakoak, lehenengo hizkuntzara, lehenengo ohiturara, lehenengo jokaerara itzultzeko gogoari tinko egiten dio aurre. Jokaera sendoak koherentziari eusten dio: eusleak kide guztiekin eta egoera guztietan euskaraz egingo du.

Ohiko hizkuntzaren logika baztertu eta ordezeko hizkuntzaren logikari helduta, jauzi kualitatiboa eman da. Horrekin batera, bizkarra eman zaio, aldi batez, erosotasunari, erraztasunari eta kontrol sentsazioari. Orain, eremu arrotzean murgildu dira taldekideak, egoneza ager daiteke, oztopo berriak azaldu dira, irtenbideak bilatzeko ahalegina egin behar da. Eusleen jokaera sendoak bermea ematen du egoerak atzera egin ez dezan, norabideak aurrera tinko jarrai dezan. Eusleak, egoera deserosoari eusten dion neurrian, beste kideen jokaera egokitzaileak behartzen ditu, disonantzia gainditu beharrak biderik malguena bilatuko baitu beti. Euslearen sendotasunak gainerakoek jokaera egokitzaileak bizkortzean, disonantziaren berezko indar motibatzailea pizten du. Hori batetik, baina sendotasunak, bestetik, sortzen du beste eragin bat; hau da, egoera berriaren aldera makurrarazten du egokipenaren norabidea. Jokaera sendoa moldakaitza den neurrian, kontsonantziarako bul-tzadak ez du aurrerabiderik bere aldera. Hala ere, kontsonantziarako grinak bere horretan jarraitzen duenez, bihurritu eta jokaera malguagoak dituzten kideen atera joko du, haien aldetik aterabidea bilatzeko asmoz. Garbi dago egoerak ez lukeela aurrera egingo, baldin besteek ere jokaera sendoa –kontrako norabidean– erakutsiko balute. Halakoetan, gatazka egonkortuko litzateke taldean: ez aurrera ez atzera. Guk abiapuntu gisa hartu dugun egoera axiomatikoa, ordea, ez litzateke hauxe, bestelakoa baizik; hau da, talde egoera bat non taldekide guztiek onartu egiten duten hizkuntza-jokaera berria (edo gutxienez ez duten hari ezetz esateko motibo nahikorik).

Oztopoei aurre egiteko trebetasunari *gaitasun estrategikoa* deitzen zaio hainbat jakintza-alarretan¹⁷. Eusleek ere halakoaren beharra dute nabarmen, maiz egin beharko baitie aurre hizkuntzazko komunikazio arazoei, bai, behinik behin, hizkuntza-egoera berria egonkortzen ez den bitartean. Sendotasunak, halakoetan, behartuko luke euslea, irtenbideak ordezeko hizkuntzaren barruan bila ditzan, ohiko hizkuntzara itzuli ordezk. Eusleak, hala jokatuta, ordezeko hizkuntzaren erabilera-balioa goratzen du, eta ohiko hizkuntzaz baliatzeko joera moteldu. Ohiko hizkuntzarekiko mendekotasuna ahultzen da, ordezeko hizkuntzaren funtzionaltasuna indartu¹⁸.

Hala ere, ez genuke sendotasuna adigai absolutu gisa agertu nahi. “Sendotasunerako joera” dugu buruan “sendotasun erabatekoa” baino gehiago. Egia esan, jarrera-jokaera absolutuak

17 Ikus Jauregi, H1n oinarritutako estrategiak eta H2 oinarritutako estrategiak H2 hizkuntzaren ikaskuntzaren testuinguruan (Jauregi, 1994)

18 Gogoan ditugun gizarte egoeretan, erdara da (gaztelania edo frantsesa) ohiko hizkuntza, eta euskara ordezkoa. Erdaratik euskarara doa aldatetaren norabidea.



azaltzea guztiz erraza da. Aski dugu “beti” edo “inoiz ez” moduko hitzak erabiltzea. Ez dago salbuespenik. Ez dugu burua gehiago nekatu beharrik. Agian, horregatik, burua astindu behar ez izateko duten ezaugarriarengatik, hain dira estimatuak bizitzan kategoría absolutuak. Baina, errealitatea gehienetan ez da ez zuri ez beltz. Ugari dira tarteko grisak. Tarteko egoera horiek zehazki mugatzea den eginkizunik latzenetakoa bihur daiteke sarri. Hala eta gutiz ere, saiatu, saiatu egingo gara irizpide batzuk ematen, sendotasun absolutuari muga batzuk ezartzearen.

Bizitzaren ezustekoei egokitzeak maiz eskatzen du sendotasun zurrunaren aldean malgutasun apurtxo bat izatea. Hala, sendotasun malgu batek onartu egiten du arauzko jokaera nagusiaren ondoan hainbat salbuespeni bide ematea. Ondoko bi kasu hauek ditugu gogoan, esaterako.

Asimetrikotasuna

Gure egoera axiomatikoak onartu egiten ditu hizkuntza harreman asimetrikoak. Egoera batzuk, non eusleak euskaraz egiten duen, nahiz eta solaskideak erdaraz erantzuten duen. Beraz, elkarrizketa bakarra solaskide bakoitzak hizkuntza bana erabiliz. Hartara, eusleak mintzatzean elebakar gisa badihardu ere, entzutean, aldiz, elebidun gisa jokatzeko du. Nahi izatera, eusleak entzutean ere elebakar gisa joka lezake, eta orduan harremanari eragingo liokeen aldaketarako presioa ere handiagotuko litzateke. Hala ere, sendotasun mota hau gehiegizkoa iruditzen zaigu gure egoera axiomatikoan, euskaldun pasiboen (edo entzun-euskaldunen¹⁹) gogoan esperientziara biltzeko. Kostu energetikoaren kalkulua besterik ez da. Gai honi berriz helduko diogu, aurrerago, harreman simetrikotako eta asimetrikotako atalean.

Elastikotasuna

Jokaera hau maiz ikusi izan dugu hizkuntza ohitura arrakastaz aldatu duten bikotetan ere (Soziolinguistika Klusterra, 2011). Jokaera honek baimentzen du hiztuna ohiko hizkuntzaren (erdara) erosotasunera jotzeko, labur eta behin-behinean bada ere, ordezko hizkuntzan (euskara) dituen oztopo komunikatibo, gramatikal edo semantikoak gainditzeko. Hitzun batek une bereziren batean sentitzen duen gehiegizko presioa edo ezintasun atsekabea gainditzeko, segurtasun-balbula gisa erabiltzen du bitarteko hau. Baina, zailtasuna gaindituta, hasierako hizkuntzara (euskara) itzultzeko erraztasuna edo automatismoa du hitzunak: horixe da elastikotasuna. Honako hau izan liteke elastikotasunaren neurria gure egoera axiomatikoan: hitzunak ez du jarraian hiru esaldi baino gehiago erdaraz esaten euskarara itzuli gabe; prozedura, baina, oso-oso tarteka erabiltzen du, eta, gehienetan, hitz edo espresio labur bat besterik ez du erdaraz esaten euskaraz jarraitu aurretik.

¹⁹ Euskaldun pasiboa/Euskaldun aktiboa adigai parean adierazteko honako adierazpide hau erabil liteke: *Entzun-euskaldunak / Mintza-euskaldunak*.

Jokaera iraunkorra

Sendotasunak elkar egokitzeko prozesuari euskarria ematen dion bezala, iraunkortasunak aukera ematen du ordezeko jokaera –jokaera berria, alegia– ohiko bihur dadin. Ohitura sortzea ez baita jokaera berri bat errepikatzearen errepikatzeaz automatiko, eroso, erraz eta oharkabe egitea baizik. Ahaleginak erosotasunari toki egin behar dio. Jarduera ohartuak berezko jarduera automatiko oharkabeari bide eman behar dio. Zailtasunaren ordezkotasuna nagusitu behar da. Aldakortasunak toki utzi behar dio egonkortasunari. Eraldaketa hau denbora kontua da, behin jokaera ausarta, balioarazle eta sendoa abiatu ondoren. Denbora faktorea da iraunkortasuna.

Iraunkortasunari esker goia jotzen du hizkuntzaren *erabilera-balioak*. Egizabal, Huegun eta Jauregik (2004) hiru adierazle aipatu zituzten, aspaldian, deskribatzeko hizkuntza baten erabilerrari eusteko behar den motibazio eremuaren nolakotasuna. Bereziki, hizkuntza-jokaera baten *desiragarritasuna, egingarritasuna eta eramangarritasuna* azpimarratu zituzten. Bada, hizkuntzaren erabilera iraunkorrak berekin ekarri ohi du hautemate bizi, zuzen eta freskoa, zeinaren arabera hizkuntza-jokaera molde berri batek ahala baitu (egingarritasuna), komunikazioa eta kideen arteko harremanak erregulatzeko (desiragarritasuna), erraztasun eta erosotasun handiz (eramangarritasuna). Hiru adierazle hauek hala piztuta daudenean, eta, aldi berean, halako hautemate taldekideen artean partekatua denean, orduan egoera egonkor eta, beraz, ohiko bihurtzen da hizkuntza jokamolde berria. Hauxe da, hain zuzen ere, erabilera-balioa. Disonantzia kognitiboaren hitzetan esango genuke, orduan, ezen hizkuntza-jokaera iraunkor batek erabat eraldatzen duela hiztunen hautemate-eremua, zeren hautemateak behar baitu jokamoldearen eskakizunetara egokitu, kontsonantzia berreskuratzeko bada, disonantzia urrunduko bada.

Erabilera-balioaren garrantzia berebizikoa da, hizkuntza-jokaeraren bertatik sortzen den barneko motibazioa baita, eta berak baitu bere kabuz hizkuntza-jokaeraren prozesuari era autonomoan eusteko ahalmena. Nolabait, erabilera-balioak beharrezko baldintzak sortzen ditu erabileraren prozesua etengabe elika dadin. Era honetan, hizkuntza prozesu auto-antolatuak eta, batez ere, auto-bultzatuak sortzen dira. Erabilera-balioa, hizkuntza jardunari zuzenean loturik den neurrian, ez da hizkuntza bihurgunea eman arte abiatzen. Hizkuntza barneko indar, kemen eta motibazioa erabilerak ez bestek ematen dio hiztun bati. Hizkuntzaren barne bizipen erreala da erabilera-balioaren sortzailea, eta ez hizkuntzari buruzko ideia edo sentipenak.

Zenbat denbora behar da erabilera-balioaren onurak egonkor daitezen? Zenbat denboraz ari gara jokaera iraunkorra esatean? Beste galdera bat, eta hau ere neurri zehatzei lotutakoa. Esku artean dugun informazioaren argitan, ez daukagu, oraingoz, neurri zehatza eskaintzerik, ez eta irizpide zurrunik ematerik ere ez. Jokalarien hizkuntza gaitasunak, esaterako, funtsezko aldagaia izanik, oso bestelako egoerak sor ditzake. Horrek ezinezko bihurtzen du neurri edo irizpide bat eta bakarra ematea balizko egoera guztientzat. “Aldahitz ikerketan”



Jauregik eta Suberbiolak (Soziolinguistika Klusterra, 2011b) iradokitzen dute kideetako bat mintza-euskalduna eta bestea euskaldungai denean (tarteko hizkuntza gaitasunaren jabe) urtebete inguru behar izaten dutela guztiz eroso sentitzeko. Oso erreferentzia orokorra da hori, eta ikaragarria da, oraindik, bide horretan barrena aurreratu behar genukeena datu sendoak eskaintzeko.

2.2.3.

Zilegitasunaren bila

Jokaera bati erabilera-balioak berak ematen dio zilegitasunik behinena eta berezkoena. Jokalari multzo baten ohiko jokaera bihurtuta, jokaerak jokalarientzat zilegitasun egiturazkoa du bereganatzen. Halako jokaera bat beren *habitus*-aren parte bihurtzen da²⁰.

Erabilera-balioaren prozesua abia dadin, ordea, taldearen oniritzia behar dugu, gure egoera axiomatikoan –ezinbestekotasun bigunaren eremuan kokatu dugu geure burua–. Prozesuaren lehen urratsa eman ahal izateko, beraz, kontuan hartu behar da zein diskurtso atontzen den eta zein eskari egiten zaion talde bati, haiek zilegitasuna eman diezaioten euskarazko erabilerari. Gai honi heldu nahi diogu atal honetan.

Gogora dezagun, hasteko, zein ezaugarri dituen abiapuntu gisa gure egoera axiomatikoak:

- Ekimena ez da taldearen barrutik sortu.
- Ez du taldeak kanpoko eragileengana jo laguntza eske.
- Ez du taldeak arazo gisa bizi ohiko moduan jokatzeari.
- Ez du taldeak motibo apartekorik ohiz bestera jokatzeko.

Taldeak ez luke bere kasa mugimendurik egingo aldaketa aldera, kanpotik ez balitz motibazio esanguratsua piztuko. Motibazio-harien gehikuntza horrek ekar lezake berekin: 1) kilikatze-ataria harrapatzea, 2) lehendik zeuden motibazio hari aldekoak piztea, 3) egon litezke hainbat hari eragozle indargabetzea.

Banan bana aipatu eta aztertu egingo ditugu, jarraian, *Eusle metodologiak*, lan talde bati jokaera -eskaria egiterakoan, zein motibazio-hari jartzen dituen indarrean, taldearen baiezkora eskuratzeko aldera.

²⁰ Habitus adigaia Bordieu frantziar soziologoak erabiltzen du adierazteko gure jokaerari eusten dion atzealde inplizitu eta ez ohartua, gure gizarte elkarrekintzen ondorioz sortua (Bordieu, 2008)

Eskaria egiten duen erakundearen gizarte-prestigioa

Hitz batzuei gizarte-prestigio handiagoa darie beste batzuei baino. Honako zerrenda honak, esaterako, prestigio handiko hitzak biltzen ditu: Unibertsitatea, Ikerlaria, Doktorea, Jaurlaritza. Erakunde batzuen izenak ere antzeko eragina izan dezake: Soziolinguistika Klusterra, Elhuyar Aholkularitza, EMUN kooperatiba, AEK, eta abar. Baliteke jokaera-eskariaren atzetik halako hitz eta izen prestigiodunak izateak entzuleen iragazki afektiboa zabaltzea, edo, behinik behin zertxobait biguntzea. Aldi berean, garestiago bihur dezake halako eskarari ezetza ematea.

Taldea gainditzen duen zerbait handiaren parte sentitzea

Hainbat tokitan burutzen ari den esperientzia handi baten partaide sentitzeak ekar dezake harrotasunaren sentiera. Talde handiagoen babesa sinbolikoa sumatzeak zentzua eta zilegitasuna ematen du behin baino gehiagotan.

Taldeak diharduen erakundeko zuzendaritzak eskariari emaniko oniritzia

Jakiteak, norbere lan erakundearen arduradun gorenak ongi ikusten dutela egindako eskaria, gizarte-presio argia ezartzen dio lan talde bati, zeharkakoa bada ere. Behin jakinda arduradun gorenak zein iritzia duten zerbaiti buruz, ezin zaio informazio horri muzin eta ezjakitearena egin, erabakia hartzeko garaian.

Taldeari emaniko kontrol eta demokraziaren garantiak

Eusle metodologiak gehiengo kualifikatua eskatzen du egitasmoari lotzeko, eta, era berean, erabakia astero berrikusteko aukera ematen du²¹. Hauek guztiek sentiera sakonak eragiten dituzte; hala nola: erabakitzeko ahalmena onartzea, askatasuna, kontrola eta justizia, besteak beste. Osagai hauek egonda, oso eragozpen handiek eragin beharko lukete, talde batek lehenengo urratsa egiteari uko egiteko.

Epe laburreko eginkizun eramangarriak eskatzea

Jokaera-eskaria hainbat kiderentzat (eusleentzat) intentsitate handikoa izan arren, tarte labur mugatuetan dira egin beharrekoak. Halakoetan, eskariaren erronka, zaila izan arren, eramangarria izan daiteke. Aldaketa prozesuak ohitura ongi errotuak iraultzea eskatzen duenean, zailegi gerta daiteke barnean indarra biltzea epe luzeko erabakiei heltzeko. Ordea, eramangarriagoa da indarra biltzea epe motzetarako, nahiz eta eginkizunaren erronka handia izan. “Gaurkoz bakarrik” dio hainbat menpekotasun fisiko-psikologikoa gainditzen ari diren pertsonen lelo terapeutiko nagusiak. Hau da: erabakiak egunez egun berretsi behar dira.

21 Ikusi zehazki Eusle Metodologiaren eskakizunak 3.1 atalean



Eusleen hizkuntza-jokaeraren zilegitasuna

Euskara hutsezko jokaerari oniritzia ematen dio taldeak *Eusle metodologia* onartuta. Horrek, nolabait, apaltzen du eusleen disonantzia, zeren, horrenbestez, ez baitituzte gainean zamatzen euren jokaerak besteengan sor ditzakeen balizko eragozpenak. Are gehiago, eusleak taldeak berak aukeratutakoak izanik²², ezin zaie eusleei egotzi euren jokaeraren erantzukizuna, talde osoa baita, orduan, erantzule zuzena. Horrek zuzenean laguntzen du gainerako kideen jokaera egokitzalea pizten eusleekiko harremanetan, zeren eusleak horrela ari baitira taldearen oniritziatz, taldeak berak aukerata, eta talde osoaren onurarako.

Hauek guztiak izan daitezke egitasmoak plazara dakartzan hari berriak, zeinek motibazio-ataria harrapatua izan dadin biziki laguntzen baitute. Hala ere, baiezkoa eman eta prozesua abiatuta, badirudi bestelako motibazio hariak piztu eta agertu egiten direla, gertaeren kaiteamenduak berak ekarrita. Honako hauek, bederen, iruditzen zaizkigu guri aipagarri:

Emandako hitzari heltzea

Hitzemateak sor dezake hitza betetzeko erantzukizuna, batez ere hitzematea eta hitzarmena jendaurrean egin denean. Nolabait, besteen aurrean emandako hitzak lotzen gaitu hartara egokitzeko, norbere seriotasunaren irudiari eusteko batetik, baina, baita ere, besteen iritziaren eta presioaren aurrean eroso sentitzeko.

Erabaki oro hartu ondoren sortzen den disonantzia jaisteko jarduna

Ezaguna da hamaika lan esperimentalari esker ezen edozein erabaki hartu ondoren disonantzia prozesua abiatzen dela. Eta disonantzia zerbait izatekotan bultzagile motibazionala da. Hala, erabakitzaleek hautemate-eremua egokitzeari ekingo diote hartutako erabakiarekiko kontsonantzia bilatzeko, edo nahi bada, haren onurak azpimarratzeko beharra izango dute erabakitzaleek, egindako ahaleginari zentzua emateko, batetik, eta utzitako erosotasunari garrantzia kentzeko, bestetik. Honek guztiak zentzuz betearaziko du erabaki berria eta hartutako bidea.

Taldearen elkarrekiko presioa

Talde batek zerbait erabaki duenean, talde-arau bat ezarri du kideen jokaera erregulatze-ko. Horrek guztiak talde presioa sor dezake kideak araura molda daitezzen. Egitasmoaren diseinuaren arabera, taldekideek beraiek esan beharko dute, jarraipen prozedura publiko baten bidez, ea eusleen jokaera adostutako hizkuntza-araura egokitzen den ala ez. Horrek handitu egiten du talde presioa, ezinbestez.

22 Ikusi zehazki Eusle Metodologiaren eskakizunak 3.1 atalean

Ikerlariak egiten duten jarraipena

Ikerlariak kanpotik egiten duten jarraipen sistemak ere handitu egiten du taldearekiko presioa, zeren, aldeaz, ikerlariak baitakite eusleen arauaren betetzearen maila taldekideen asteroko informazioari esker²³, eta, aldeaz, aukera baitaukate esku-hartze protokolo bat abiatzeko, hizkuntza-arauaren betetzeak ezarritako gutxieneko ataria bete ezean. Presiobidea da hau, nola edo hala.

Jarduerak berak sorrarazten duen erabilera-balioa

Ibilbidean zehar oztopoak gainditu eta egoera atseginak nagusituz doazen neurrian, jokaera berriaren berezko balioa agertu eta hazi egiten zaie kideei. Erabilera-balioa agertzen da kideak era bizian ohartzen direnean hizkuntza-jokaera berriak ahalmena duela beren arteko harremanak erregulatzeko komunikazioari kalterik egin gabe, nolabaiteko erraztasunez eta beti ere sentsazio atsegin ugariaren iturburu izanik. Finean, aurreko motibazio hari guztiek ez dute erabilera-balio hau piztea beste helbururik.

Jardutearen atsegina

Erabilera-balioa handitzearen ifrentzua izaten da jardute arrastatsuen atsegina. Jarduera arrakastatsuek geure onena aterarazten digute. Erronkak gainditu izanaren harrotasuna auto-estimuen iturri bihurtzen da. Beste bultzagile emozional bat, dudarik gabe.

2.2.4.

Harreman simetrikoak eta asimetrikoak

Zergatik espero dugu eusle gutxi batzuen²⁴ hizkuntza-jokaera ausart, sendo eta iraunkorrek gainerako kideen hizkuntza-jokaeran zurrunbilo egokitzailea eragitea? Xumeago esanda: zergatik bihurtzen dira eusleak lurrikara baten epizentro?

Has gaitezen gogoratzen jokaera-eskariaren funtsezko ezaugarri batzuk.

1. Ordezko hizkuntza-araua (jokaera ausart, sendo eta iraunkorra) eusleei soilik aplikatzen zaie. Gainerakoek ez dute hizkuntza eskakizun berezirik, ezpada asmo onez jokatzeari (minik egin nahi ez izatea, oztopoak nahita ez sortzea...), baina eskakizun hau etikoa da, ez hizkuntzazkoa.

²³ Ikusi zehazki Eusle Metodologiaren eskakizunak 3.1 atalean

²⁴ Ikusi zehazki Eusle Metodologiaren eskakizunak 3.1 atalean



2. Eusleen kopurua txikia izango da, kideen %20ren inguruan.
3. Eusle izatea ez da norbere nahiaren arabera erabaki bat, baizik eta taldeak berak era demokratikoan erabakitakoa, bozketaren bidez. Betiere, hautagaiak aterako liratekeelarik euskaraz erraztasunez mintzatzeko gaitasuna dutenen artean.

Hastapen hauetatik hainbat ondorio datoz berehala:

1. Eusleek, onarturiko hizkuntza-araua dela medio, erdara erabiltzeko bidea itxita daukate –zorrotasun malgua, hala ere, erdarazko ulermena eta elastikotasunaren printzipioak onartzen baitzaizkio–, eta euskararako bidea daukate soilik irekita. Beraz, *eusleek ezin dute hizkuntzaren aldetik besteengana egokitu.*
2. *Eusleen jokaera moldakaitza ezin zaio euren nahimenari egotzi, euren nahitik haragoko talde arau adostu bati baizik.* Erantzukizuna, beraz, ez da nagusiki norberea, taldearena baizik.
3. Beste kideek aukerakoa dute euslearekiko egokitu (hizkuntza harreman simetrikoak) ala ez egokitu (hizkuntza harreman asimetrikoak). Hizkuntza harreman asimetrikoetan solaskide bakoitzak hizkuntza bana erabiltzen du, baina entzumenaren aldetik elkar ulertzen dutenez, komunikazioa ez da eten egiten. Hortaz, hemen honako hau da puntu nagusia: *gainerakoek hizkuntzaren aldetik eusleenganako egokitzeko bidea irekita daukate, euren esku dago, euren aukera da, euren erantzukizuna da.*

Beraz, baldintza jakin batzuk sortu ditugu honako eremu bati bide emateko:

	<i>Eusleak</i>	<i>Gainerakoak (Uzleak)</i>
<i>Hizkuntza hautua</i>	Kendu zaie hizkuntza hautatzeko aukera	Badute hizkuntza bat ala bestea aukeratzea
<i>Egokitzeko aukera</i>	Ezin dute hizkuntzaz besteengana egokitu	Badute hizkuntzaz besteengana egokitzea
<i>Norbere erantzukizuna</i>	Ezin zaie egotzi euren euren hizkuntza-jokaeraren erantzukizuna	Eurena da euren hizkuntza-jokaeraren erantzukizuna

Egoera honek, atzekoz aurrera jarrita, antza handia du eguneroko hizkuntza harremanekin. Islutzen du zein egoera ematen den euskaraz diharduen elebidunen talde batean erdal elebarrak bat (edo gutxi batzuk) sartzen direnean.

Eguneroko bizimoduan, “eusleak” izan, erdal elebarrak izaten dira. 1) Euskaraz ez dakitenez, ezin dute hizkuntza bat ala bestea hautatu. 2) Besteekin komunikatzekotan erdaraz izan behar du ezinbestean, haiek ezin baitute solaskide euskaldunengana egokitu. 3) Normalean, ez dira euren

jokaeraren erantzule sentitzen, kanpoko faktore batzuek ala besteek osatuko dute euren diskurtso zuritzailea (arrazionalizatzailea).

Beste aldetik, gure taulako “gainerakoak” –uzleak– elebidunak izango lirateke eguneroko bizimoduan. 1) Elebidun izanik, badute aukera hizkuntza bat ala bestea hautatzeko. 2) Beraiek soilik dute aukera hizkuntzaz egokitze, elebakarrarekin komunikazioa izango bada. 3) Hautatzeko aukera izanik, euren jokaeraren gaineko erantzukizuna sumatzen dute.

Egoera elebidunetan bizi garenok behin eta berriro bizi izandako esperientzia da berau. Eta esperientziak agintzen digunez, beranduago baino lehenago taldearen komunikazio hizkuntza erdal elebakarraren aldera makurtuko da. Badirudi, orduan, egoera elebidunetan hizkuntza hautatzeko aukera duen aldea dela, nolabait, alderik ahulena. Hizkuntza-egoera elebidunek sorturiko disonantzia, orduan, murriztu, alde ahulak etsi egiten duenean murrizten da. Aldiz, hizkuntza hautatzeko aukerarik ez duen horrek, era paradoxikoan, jokaleku indartsuena bereganatzen du, haren molda-kaiztasun ezinbestekoak inguruko egokitze beharra sustatu ohi duelako.

Eguneroko egoeretan elebakarren hizkuntzarentzat ematen den antzeko egoera eraiki nahi izan dugu elebidunen hizkuntza azpiratuarentzat, baikaude batean zein bestean mekanismo bertsuek lan eta eragin egiten dutela. Baina, zeintzuk dira mekanismo horiek?

Hautatzearen irudikeria: “eskatu ezean arauzko aukera”

Beste atal batean aztertu dugu mekanismo hau bera. Gure oraingo kasua mekanismo horren aldaera bat besterik ez da. Hala, bi aukeren edo gehiagoren artean hautatzeko askatasuna ematen zaigunean, normalean lanik gutxien dakarkiguna hautatuko dugu. Baldin “eskatu ezean” arauzko aukera bat badago finkatuta, orduan bera izango da pertsona gehieni lanik gutxiena ekarriko diona, eta, beraz, hauxe izango da gehienek gehienetan aukeratuko duten bidea. Mekanismo hau indartu egiten da pertsonak aukeratzeko duen askatasuna benetakotzat hartzen baldin badu, edo, nahi bada, haren atzean inongo asmo okerrik sumatzen ez badu. Konfiantza ageri da orduan. Gizabanakoak uste osoa duenean, beraz, erraz makurtzen da lan gutxieneko aukerara. Giro horretan, arauzko erabaki automatikoa lehenesten da norberak nahita hartu beharreko erabakiaren aurrean.

Elebidun-elebakar harremanaren kasuan, mekanismo honen aldaera maltzur bat dago. Egoera honetan ez dago arauzko aukera bat, ez behintzat era esplizituan ezarrita, baina elebakarrak hizkuntzetako bat erabiltzeko duen ezintasunak praktikan funtzionatzen du arauzko aukera bat izango balitz bezala. Itxuraz, elebidunak hautatzeko aukera du, baina askatasun hori irudikeria hutsa da gehienetan, praktikan elebakarraren bidera makurtzea besterik ez baitzaio geratzen, komunikazioa arin eta nekerik gabea izango bada.

Gure eredu iraulian, eusleak funtzionatzen du arauzko aukera bezala. Egia da gainerakoei hizkuntza hautatzeko aukera ematen zaiela, eta, nahi izanez gero, harreman asimetrikoak



sor ditzaketela euslearekin ari direla. Baina, praktikan, harreman asimetricoen bidea hartzea biderik arrotzen eta nekagarriena da. Seguru asko, berezko joera izango dute arauzko aukeraren arrimura makurtzeko.

“Eskatu ezean arauzko aukera” mekanismoak alderdi formalarekin eta informalararekin jokatzen du helburu jakin bat lortzeko. Hala, formalki (legalki, esplizituki, ohartuki) onartzen da erabakitze eskubidea, baina informalki (inertzialki, implizituki, oharkabeki) egoera diseinatzen da hainbat mekanismo psikologiko eta soziologiko ezkutukoek euren lana isilik egin dezaten, aldatetaren norabidearen aldera. *Eusle metodologia* diseinatuta dago, beraz, “eskatu ezean” mekanismo ezkutuek euskararen aldera egin dezaten.

Egokitzeko beharra disonantzia jaisteko

Disonantziaren teoriak aurreikusten duen bezala, kognizio batek ezin badu aldatu, besteak aldatu beharko du, edo bestela hirugarren kognizio bat asmatu beharko du subjektuak aurreko bien aurkakotasuna osagarri bihurtuko duena. Geurera ekarriz, euslearen jokaera definizioz sendoa da –hizkuntza-arau esplizitua eta talde osoak onartuta erabakitze prozedura formal batez–. Eusleak, beraz, ezin du hizkuntzaz aldatu, ezin du beste hizkuntzarik hautatu. Euslearen aldetik ezin da disonantzia murriztu. Aldiz, gainerakoek (entzun-euskaldunak, uzleak) hizkuntza hautatzeko aukera dute, euren esku dago hizkuntzaz egokitzea, eta egokitzen ez badira ez da “ezin dutelako”, baizik eta “nahi ez dutelako”, eta, egia esan, horrek berebiziko koste psikologikoa du (geroago ikusiko dugun bezala, “erantzukizunaren egozteaz” hitz egiterakoan). Gauzak horrela, entzun-euskaldun hauek dira alderik ahulenak disonantziaren indarraren aurrean. Aurreikus daiteke hauen aldean sortuko direla pitzadurarik handienak, oreka bilatzeko bultzadaren eraginez, hizkuntza disonantzia baztertuta.

Harreman simetrikotarako berezko joera

Hizkuntza harreman simetrikotetan, bi kideak hizkuntza berean ari direnean, alegia, ez da disonantziarik sortzen. Adostasun eta egokitasun sententzioa nagusitzen da halakoetan. Oreka bilatzeko joeraren beste adierazpen mota bat da. Denbora gehien-gehiena, egia esan, halako egoera (ia) egonkorretan ematen dugu egunerokoan, eta edozein arrazoia dela bide galtzen dugunean, berez pizten zaigu simetria berreskuratzeko grina.

Aitzitik, hizkuntza harreman asimetricoak, non kide bakoitza hizkuntza banatan ari den, egoera arrotzak dira, disonantziaren sortzaileak, eta horregatik ere behin-behinekoak. Hizkuntza-egoera irauli nahi denean dira, batez ere, erabiltzekoak, baina ezin dira denbora luzean iraunarazi, zeren desoreka, asimetria, gatazka edo atsekabetasuna murrizteko presioak etengabe xaxatuko baitu egoera horretatik ateratzeko. Bi dira, nagusiki, asimetria bukatzeko bideak: 1) aurreko harreman simetrikora itzultzea (ohiko sistemaren itzulera, atzera egitea), edo 2) harreman simetrikotara berria sortzea (ordezko sistemaren gailentzea, aurrera egitea)

Guk sortutako egoera axiomatikoan, aldiz, uzleek badute harreman asimetrikoak sortzeko aukera. Baina jokaera horrek ezin izango luke luze iraun, zeren, aurretik esan bezala, hasierako baterako eta besterako tiraldien ondoren, ohiko harreman simetrikoen aldera edo ordezeko harreman simetrikoen aldera egin beharko bailuke taldeak disonantzia murrizteko. Ohiko harreman simetrikoen aldera eginez gero, horrek egoera berriaren bukaera ekarriko luke berehala, eusleek euren zeregina atxiki ezin izan dutelako seinale. Baina taldeak aurrera jarraituz gero, orduan ordezeko harreman simetrikoak hasiko lirateke berez nagusitzen.

Erantzukizunaren egoztea

Egoztearen teoriak dio gure jokaeraren osagai garrantzitsuenetakoak direla besteen jokareiei egozten diegun balioa (guretzat kaltegarria, onuragarria, neutroa), eta besteei egozten diegun asmoa (asmo txarra, asmo ona, asmorik eza), besteak beste (Weiner, 1995).

Esan genezake, orduan, hipotesi gisa, ezen pertsona batek joera izango duela bere burua bestearengana egokitzeko, baldin eta:

1. Batek beretzat onuragarri edo neutrotzat hartzen badu bestearen jokaera.
2. Batek asmo on edo neutroa sumatzen badu bestearen jokaeraren atzean.
3. Batek jokaeraren erantzukizunaz salbuesten badu beste jokalaria.

Atzekoz aurrera ere, baieztatuko genuke ezen pertsona baten jokaerak eragozpen handiak sortuko dizkiola bati, eta, hortaz, harenganako egokitzeko joera eta gogoia motelduko, baldin eta:

1. Batek beretzat kaltegarritzat hartzen badu bestearen jokaera.
2. Batek asmo txarra sumatzen badu bestearen jokaeraren atzean.
3. Batek beste jokalaria berari egozten badio jokaeraren erantzukizuna.

Gure kasuan, egozpen eragotzaileak indargabetzeko ahalegin ohartua egin da prozedura demokratikoak abiatuz. Taldearen gehiengo kualifikatu batek jokaera-eskari bat onartu badu, ez onartzea bere esku zegoenean, indargabetzen du norberetzat jokaera kaltegarria izatearen hautematea. Bestetik, ezin die inork eusleei egotzi, eusle gisa jokatzen dutenean, jokaera horren atzean asmo txarra dutenik, ezta jokaera norbere erantzukizuna dela ere. Eta ezinezkoa egiten dira halako egozpenak, zeren taldeak berak zilegi egin baitu eusleen jokaera, taldeak berak aukeratu baititu eusle izango diren pertsonak. Hortaz, eragozpenak saihesteko baldintzak indargabetzearekin bat, entzun-euskaldunak eusleen hizkuntza jokaretaraz egokitzeko joera (beharra, gogoia) bizkortzen da.



Norbere erantzukizuna eta faktore mugatzaileen hautematea

“Esango nuke nahi izatea dela batek nahi duena egitea, edo nahi duen horretara daramana egitea. Eta zerbait nahi dugula esan eta egiten ez badugu, hori da beste zerbait nahi dugulako, eta hori da zinez egiten duguna, nahiz eta halakorik ez dugun aitortu nahi.” (Maturana, 1996)

Geure ardura ez onartzeko dugun mekanismo psikologikorik hedatuenetarikoa da jokaeraren arrazoia(k) kanpoko faktoreei egoztea (gizarte-errealitatea, legeak, goiko aginduak...), edo, baita, barneko faktore objektibatuiei egoztea ere (ohitura, izaera...). Indar handiagoa onartzen zaie, beraz, honelako faktoreei norbere nahiari baino. Ondorioz, norbere erantzukizuna salbuetsita gelditzen da. Gurea bezalako hizkuntza-ukipen egoera batean hizkuntza ohitura dugu, hain zuzen ere, objektu gisa hartu ohi dugun barneko faktore horietako bat. Ohitura dela norbere hizkuntza-jokaeraren erantzulea aitortzerakoan, haren indarraren handia onartzeaz bat, norbere indarraren txikia azpimarratzen da. Hizkuntza-jokaera dagoeneko ez dago hitunaren esku, ohitura izeneko entitate psikikoaren menpe baizik. Argudio honetaz baliaturik, alde, egiazkoa den zerbaiti egiten diogu aipu, baina, alde, beste zerbait uzten dugu ahazturik eta zokoraturik: hitunaren indar eratzaille eta sortzailea, zeinak itzuliko bailiguke, hala nahi izanez gero, hizkuntza-jokaeraren aurrean geure-geurea dugun erantzukizuna. Aukeratzen ditugun argudioek eta interpretazioek xede dute gure interesak eta nahiak babestea, zuritzea eta iraunaraztea. Maturanaren hitzei jarraiki, gaudela jardun interesatua dela gure jokaeraren erantzukizuna kanpoko faktore objektibatuiei egoztea, haren bidez estaltzen baitugu zerbait nahi ez izatean dugun ardura.²⁵

Bide batez, badirudi faktore objektiboak aipatzeak argudio onargarriak ematen dituela ez egiteko benetan egin nahi ez duguna. Hala, disonantzia kognitiboa murrizteko mekanismo ahaltsu baten aurrean gaudela. Hizkuntza ohitura bada jokaeraren erantzule nagusia, orduan ez da norbera sentitzen jokaeraren erantzule. Honek nabarmen arintzen du hautemate-eremuaren berregokitzea, barne ezinegona itzaltzeko.

“Ez dut nahi”, norbere erantzukizuna onartzearen adierazpen zuzen eta argia da. “Ezin dut”, ordea, norbere buruaren erantzukizuna arintzearena, zeren orduan nire nahiaren harago dagoen eta nik baino indar handiagoa duen kanpoko faktore bati egozten baitiot ene jokaeraren erantzukizun nagusia.

25 Ez gara arrazoi objektiboen eragina ukatzen ari. Izan ere, arrazoi objektiboak gure psikearen hautemate-eremuaren osagarriak dira, ezinbestean. Baina, arrazoi objektiboak beste faktore ugariarekin uztartzen dira hautemate-eremu psikologikoan. Jokaera da, finean, eremu horretako indar aktibatzaile eta inibitzaile guztien emaitza. Esango genuke, Maturanarekin batera, egiten duguna (hots, gure jokaera) dela osotasunari begiratuz gero benetan nahi duguna. Baliteke egiten duguna gure motibazio hari zehatzaren batekin bat ez etortzea (gogoan hartu edozein jokaeraren atzean badirela indar aktibatzaile eta inibitzaile ugari), baina osotasunari begiratuz gero, indar horien guztien uztarketak ematen duen azken emaitza (hots, gure jokaera) da modu faktikoan nahi duguna. *Nahi faktikoa* esan geniezaioke horri, *nahi potentzialetik* bereiztearren.

Norbere barrenera bezala, kanpora ere, errazago onartzen ditugu besteen “ezin dut” jokaerak, “ez dut nahi” jokaerak baino. Bestearen jokaeraren arrazoiak “ezin du” kategorian sartzen baditugu, oso litekeena da harekiko egokitzeko joera enpatikoa sortzea gure baitan. Berriz, harekiko eragozpenak areagotuko dira bere jokaeraren atzetik “ez du nahi” moduko arrazoiak antzematen baditugu.

Gure egoera axiomatikoan, euslea kanpoko faktore objektibo ugariz hornitzen da, bere jokaeraren arrazoia “ezin” kategorian kokatzeko. Kanpoko hizkuntza-arau batek ezinezko egiten du, hortaz, berak erdaraz egitea, horrela “nahi” izan izango balu ere. Beraz, jokaeraren gaineko erantzukizuna ez da areago berea, taldeak ezarritako hizkuntza-arauarena baizik. Eusleentzat presio arintze ikaragarria da hau, eta, aldi berean, gainerako kideenganaino –uzleak– iristen da egokitzearen presioa. Orain, uzleak dira “nahi” kategorian daudenak –beraiek aukeratu behar dute euskarara egokitzen diren ala ez–, eta eusleak “ezin” kategorian kokatzen dira –hizkuntza-arauak galarazten die erdaraz egitea–.

Erabilera-balioaren bizkortzea

Gertakarien kateamenduak tarteko arrakasta txikiak dakartzan neurrian, halako bide-gogo bat areagotzen da. Kostuen balantzean onurak gailentzen zaizkie lazturari. Jokaera berria bere balio osoa hedatzen hasten da. Jardunbidea zentzuz betetzen da. Hala, aurreko urratsa hurrengo urratsaren bultzatzaile nagusi bihurtzen da. Jardunak jarduna bera elikatzen du. Horrela, aurrerako mugimenduak egonkortzera jotzen du poliki, harik eta bertango mugimendu biribilak hizkuntza ohitura berriari etengabe eutsiko dion arte.

Gizarte botere harremanen isla

Hizkuntza harremanak badira, izan, gizartean nagusi diren botere harremanen isla, inoiz era ohartuan, eta gehienetan era oharkabea. Gizartean gehiengo duen hizkuntzak ez die gailentasuna hizkuntza faktore hutsei zor, gizarte boterearen jokoari baizik.

Gure jokaera-eskariarekin, neurri txiki batean, bederen, irauli dugu hizkuntzen arteko ohiko harreman demotikoa, halako moldez non hizkuntza gutxituaren hiztunari postura hegemoniko eta protagonikoa eman bitartean, hizkuntza nagusiaren hiztunak ohi baino postura ahulagoan ezarri diren. Hori guztia postura onartu baten bidez egina. Mekanismo demotiko baten erabilera ere ikus daiteke honetan guztian.



2.3.

Esperientzien diseinuaren oinarri epistemologikoak

Aukeratu dugun esperientziak baditu funtsezko ezaugarri batzuk. Hara zein diren:

Egitura sinplea

“Asko egin nahi, gutxi egin bai” dio esaerak. Diseinu korapilatsuen arriskueta bat ahaleginak gehiegi sakabanatzea izaten da sarritan (De Bono, 2009). Sakabaneta dator, batzuetan, diseinatzaileek ikuspuntu holistikoari edo epistemologia sistemikoari dion atxikimendutik. Izan ere, ikuspuntu sistemiko batek zera baieztatzen du, ezen sistema batean osagai guztiak elkarreaginean daudela, eta, nolabait, denak kontuan hartu behar direla osotasunari heltekotan. Horren ondorioz, fenomeno bati alderdi guztietatik heldu nahian, aldagai asko eta tresna mordoak dituen diseinu mordoiloak sortzen dira.

Guk, ordea, ikuspuntu sistemikorearekin bat eginagatik ere, ez dugu uste halako ikuspuntu batek berez diseinu korapilatsuak eskatzen dituenik. Aitzitik, uste dugu fenomeno baten ulertze sistemikoak jakintza nahikoa eman beharko ligukeela sistema bateko alea eta lastoa bereizteko, sistema baten egiturazko osagaiak eta hain egiturazkoak ez direnak argi mugatzeko, eta, hortaz, jakiteko zein aldagaik duten bere baitan indarra gainerako fenomenoak eragiteko eta zeintzuk ez. Sistema bateko osagai guztiak ez baitute funtzio bera, eta denek ez baitute sistema baten antolakuntzarako ezinbestekotasun bera. Sistemetan hierarkiak, egiturak eta ordenamendu jakinak ohi daude. Aldagai bakoitzaren eragin-indarra ez da inolaz ere bera. Horren ondorioz, muinean dauden aldagaietan eta prozesuetan eragiteak emankortasun handiagoa izaten du muinetik kanpo dauden aldagaietan eragiteak baino.

Aurrekotik segitzen da ezen esperientzia sistemiko batek ez lukeela fenomeno baten aldagai guzti-guztiak nahitaez kontrolpean eduki beharko. Aski izan liteke, ordea, aldagai gutxi batzuk, baina fenomenoaren muinean kokatuak, artez aukeratzea. Esperientzia sinple batek ez luke sinple izateagatik halabeharrez ahula izan beharko. Egiturazko aldagaiek, lurrikara baten epizentronen antzera, oso urrutira zabaltzen dute beren eragina. Sistema osora zabaltzen da eragina oinarritzko aldagai batzuk aldatzen direnean. Beraz, esperientzi eraginkor baterako irizpide nagusia ez da kopurua (zenbat aldagai), baizik eta haien kalitatea (nolako aldagaiak diren). Diseinu baten oparotasunak eta tresnen ugaritasunak ez dute, berez, esperientziaren emankortasuna bermatzen. Ez itxuran, muinean dago gakoa.

Koste energetikorik txikiena

Esperientzia batek dakarren *koste energetikoa* aintzat hartu behar da. Ez da hau, egia esan, nola edo halako kontu hutsala, ez horixe. Batez ere, bitarteko materialak eta humanoak

mugatuak direnean –oso murrizak, ez esatearren–, edota jarduteko gogoia edo beharra gori-goria ez denean. Diseinu korapilatsuek koste energetiko handia behar izaten dute, eta ez soilik diru terminoetan ulertuta, baizik eta denbora, ahalegina, arreta, inplikazio emozionala, eta antzekoen gisan ulertuta ere. Diseinu sinpleak –baina ahaltzuak– egiteak berekin ekarri ohi du koste energetikoaren neurritzea. Esperientzia emankor batek prozesua abiarazteko adina energia aktibatu beharra izaten du, baina ez gehiegi, indarra xahutu ez dadin, eta nekea azkarregi heda ez dadin. Koste energetikoaren kalkulua behar du esperientzia mugatu eta zentratua izatea, halako moldez non zinez beharrezko diren osagaiak eta ez besterik barneratzen baitira egitasmora, gurdia alferreko zamaz arinduz. Sinpletasunaren printzipioak energia aurreztera gonbidatzen gaitu.

Eragile orok, ekinbide berri bati ekiten diola, ohartuki batzuetan, eta oharkabeki beti, ekinbide horrek eskatzen dion koste energetikoaren kalkulua egin ohi du. Eragile batek, hortaz, egin beharreko ahaleginari eramangarri iritzi behar dio, ekinbide berriari zabal emango bazaio, eta berorri luze jarraituko bazaio.

Hizkuntza-jokaeran ardaztuta

Esperientziaren helburua talde baten gizarte-eremua berregituratzea izango litzateke. Eta, horretarako, xede-taldeak onarturiko jokaera-eskari batek abiatzen du berregituraketa bera. Beraz, halako jokaera ez da prozesu luze baten urrutiko emaitza, baizik eta prozesuaren abiapuntua bera, eta bultzatzaile nagusia denbora osoan zehar. Esan daiteke alderdi faktikoak –jokaerazkoak– duela ardaztasuna esperientzia eredu honetan, eta alderdi sinbolikoa, ondorioz, –motiboak, usteak, aldarreak...– inguruan gelditzen dela.

Talde adostasunean oinarrituta

Esperientzia berme-emailea da gurea, gutxieneko baldintza demokratikoak ziurtatzen baititu era esplizituan. Egitasmoan parte hartzea beti gelditzen da taldearen erabakiaren baitan. Taldearen erabaki kualitatiboa behar da prozesua abiatzeko, baina, baita, aldiro bertan jarraitzeko onespina ere jaso egin behar da. Beraz, egitasmoa abiatuta ere, taldeak berak du bere esku prozesua edozein unetan bertan behera uzteko ahalmena.

Planteamendu soziologikoa

Esperientziak gizarte-eremu bat berregituratzen du norabide jakin batean. Gizarte mekanismo batzuk finkatzen ditu eremu batean, emaitza jakin batzuk eskuratu nahian, baina, hori egitean, ez du ahaleginik egiten protagonisten bizipen subjektiboen berri izateko, ez eta ez ditu ahaleginak bideratzen plano horretan ohartuki eragiteko. Ez gara plano psikologiko batean kokatzen, soziologikoan baizik.




Atsedena aintzat hartuta

Atsedena esperientziaren funtsezko osagaia da, paradoxikoa dirudien arren. Gorputzak kanpoko lanetan energia gastatzeko sistema sinpatikoa eta barruko energia berreskuratzeko sistema parasinpatikoa dituen bezala, edo bizitzaren zikloak “ernaldia” eta “loaldia” tartekatzen dituen bezala, halaxe era berean esperientzia batek dauzka bere baitan **aldi aktibo**, langile eta kontziente bat, eta **aldi pasibo**, isileko eta oharkabe bat. Atsedenerako tarterik uzten ez duen esperientzia erabateko batek arrisku handiak ditu eragileen indarrak xahutzeko.

Esperientzia aktiboak egitekoa du astinaldi nabarmena eragitea sistema batean, prozesu zaharrak blokatu eta prozesu berriak abiarazteko. Beraz, egiteko apurtzaile, behartzaile eta aktibatzailea du, funtsean. Atsedena, ordea, egitekoa du sistemari tartea ematea aldaketa berriak barneratu eta haietara egokitzeko oharkabean. Beraz, mugiarazteko astindu behar da, baina berrindartzeko atsedena hartu behar da.

Idea hau gogoan hartu da esperientzia aldia (bi hilabetekoa) eta atsedena-aldia (hiru hilabetekoa) bereizteko. Era berean, taldea bitan banatzerakoan ere, eta eusleei egiteko aktiboa eta uzleei egiteko pasiboa emanez. Balantze energetikoaren ataltzat har genezake hau ere.

3.



ESPERIENTZIA PILOTUEN DESKRIBAPENA

3.1.

Eusle metodologiaren nondik norakoak

2013. eta 2014. urteetan garatu dugun *Aldahitz esperientzia pilotuak* lan hau, *Aldahitz ikerketa*-ildoaren baitako bigarren urratsa da. Aurretik, 2011ko irailean *Aldahitz ikerketa* kaleratu genuen¹, eta lan hartan ateratako ondorioak izan dira, neurri batean, bigarren lan honen oinarri. Bada bi urrats horien artean funtsezko ezberdintasun bat, ordea: lehen urratsa ikerketa kualitatiboa izan zen, errealitate jakin bat ezagutzeko ahalegina. Bigarrenean, aldiz, esperientzia pilotuen bitartez garatu dugu ikerketa, proposamen metodologiko jakin batean oinarrituta eta ikerketa-ekintza planteamendu batekin.

Eusle metodologia izendatu dugunaren ezaugarri nagusiak zazpi oinarriren bitartez deskriba ditzakegu. Lehen oinarria esperientzien **helburua** bera da: langile-sail jakinetan euskaraz gehiago egiteko aukera emango duen dinamika bat sortzea izan da helburua. Bigarren oinarria **borondatezkoa** izatearena da. Esperientzia hauek tokian tokiko langile-taldean borondatez garatu dira, eta langile horien erabaki kolektiboa izan da haien abiapuntua eta oinarria. Hirugarren oinarria **eusleak** izan dira. Metodologia honetan eusle deitu dugun jokatzeko modu bat baliatu dugu, eta eusle gisa aritu diren lankideen eta gainerakoen artean eratzen den dinamika izan da aldaketarako hazia edo motorra. Laugarren oinarria **ezagutzarena** da. Esperientzia hauek garatzeko baldintzetako bat izan da sail horietan lankide guztiek euskarazko gutxienezko ezagutza izatea; zehazki, guztiak euskara ulertzeko gai izatea. Bosgarren oinarria **jardun naturala**rena da. Esperientzia hauek lantegi horietako eguneroko lan naturalaren baitan garatu dira, aparteko saiorki, bilerarik edo ikastarorik egin gabe, eta elkarrekin hurbileko harremana duten langile-sail naturalen tes-tuinguruan. Seigarren oinarria **sinpletasuna**rena izan da. Bai proposatutako dinamikaren irizpi-

¹ *Aldahitz Ikerketa. Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan munduan* (Soziolinguistika Klusterra, 2011a)



deetan, bai datu-jasoketarako sisteman eta bai asteroko jarraipenean, ahalik eta metodologiarik sinpleena baliatzea izan da esperientzia hauen ahalegina. Azkenik, zazpigarren oinarria ikuspegi soziologikoarena izan da, **talde-ikuspegi**arena. Esperientzia hauen arreta-gunea eta unitatea ez da langile bakoitza izan (norbanakoa), taldea baizik.

3.1.1.

Helburua: dinamika berri bat

Aldahitz esperientzia pilotu hauen helburua horrela definitu genuen (ikus *Aurkezpena* eranskinean, “Esperientzia pilotuaren helburuak eta ezaugarriak” puntua):

Aplikatzen den lantegian dinamika berri bat sortzea,
lankideen arteko eguneroko harremanetan euskaraz gehiago
egiteko aukera emango duena.

Helburua definitu genezakeen ere “euskara gehiago erabili” moduko espresio orokor baten bidez ere. Kasu honetan, ordea, azpimarra “dinamikan” jarri dugu, eta “aukerak sortzean”.

Alde batetik, kasu askotan euskara gehiago erabili ahal izateko behar dena baldintza edo aukera zehatz egokiak sortzea delako (eta ez hainbeste, asmo orokor bat izatea). Eta bestetik, “euskara gehiago erabiltzea” helburu gisa jartzen denean, galdera askotan izaten delako “nola?” iritsi horretara. Esperientzia hauetarako dinamika zehatz bat proposatu da horretarako, eta helburua definitzean ere azpimarra eta arreta hor jarri da, dinamika horren ezaugarrietan, ez hainbeste “erabileran” estandar batzuetara eramatean. Dinamika hori eragiteko baldintza zehatzak proposatu dira, jakinik dinamika berri horren testuinguruan baldintzak sor zitezkeela langileen arteko eguneroko harremanetan euskara ordura arte baino gehiago erabiltzeko. Langile-sail horrek hala nahi bazuen, jakina.

3.1.2.

Borondatezko esperientziak: erabaki kolektiboa oinarri

Esperientzia pilotu hauek guztiak bertako langileen borondatez garatu dira. Soziolinguistika Klusterrak luzatu du horietan parte hartzeko gonbitea, Aldahitz proiektuaren bitartez, lantegietako arduradunek ere eman dute gune bakoitzean horiek garatu ahal izateko baimena edo oniritzia, baina ondoren langileak izan dira, metodologiaren nondik norakoak ezagututa, esperientzia martxan jartzea erabaki dutenak.

Borondatez harturiko erabaki kolektiboa da, beraz, *Eusle metodologia* honen abiapuntua. Erabaki hori esperientziak garatu diren guneetako langileek hartu dute bilera batean, eta **gehiengo kualifikatu**aren bitartez. Zehazki, esperientziak garatu diren sailtako langile guztien hiru laurdenen (%75) baiezkoa finkatu da baldintza modura, eta irizpide horren arabera erabaki da gune hauetan esperientziak abian jartzea. Horretarako, langile bakoitzak galdera zehatz bati erantzun dio (ikus *Zehaztapen teknikoak* eranskinean, “Borondatezko esperientziak - Talde erabaki lotesleak” puntua), eta saileko lankide guztien erantzunen %75etik gora baiezkoak izan diren kasuetan abiatu dira esperientzia hauek. Baldintza hori bete gabe, ez ziren abiatuko.

Taldearen erabaki hori izan da, hain zuzen, esperientzia hauei eta bertan proposatu diren hizkuntza-portaeren aldaketei **zilegitasuna** eman diena. Azken finean, taldeak berak erabaki du proposatu zaion aukera bati heldzea eta dinamika horretan sartzea, ez kanpoko norbaitek. Nolabait esateko, taldeak berak bere buruari jarritako “erronka” moduan ere uler litezke esperientziok. Aipatu erabaki kolektiboak, zilegitasuna ez ezik **zetzua** ere eman die hizkuntza-portaeren aldaketei. Kontuan hartu behar dugu talde naturaletan ari garela, non langile gehienek urteak daramatzen elkarrekin lanean. Ongi ezagutzen dute elkar, eta haien arteko harremana aspalditik finkatuta dago; besteak beste, finkatuta dago ere harreman horren hizkuntza. Hortaz, abiapuntuko talde-erabaki hau funtsezkoa da aldaketek zetzua izan dezaten. Bestela, “zergatik jokatu behar nuke bihartik aurrera zurekin, gaur arte jokatu ez dudana modu batean?” pentsa lezake batek.

Erabaki kolektibo hau, gainera, ez da abiapuntua bakarrik izan: **astero berretsi da**. Esperientziek iraun duten bitartean, langileek astero erantzun behar izan dituzte lerro bateko bi galdera labur, eta horietako bat esperientzia jarraitzeari buruzkoa izan da. Horrela, esperientziek aurrera egiteko baldintza izan da, gune bakoitzean, langileen gehiengo kualifikatuak astero berrestea jarraitu nahi zuela. Hasieratik planteatu da horrela: uneren batean, dena delako arrazoiagatik, aldeko gehiengo hori galduko balitz, esperientzia bertan behera geldituko litzateke.

3.1.3.

Eusleak, haien jokaera eta gainerakoena

Izenak berak adierazten duen moduan (*Eusle metodologia*), *euslea* da elementu zentrala metodologia honetan. Esperientziak garatu diren sailtako langile batzuk, taldearen erabakiz eta aldi batez *eusle* gisa jokatu dute. Kontzeptu honek, eta bere jokaerarako definitu diren baldintzek 2011. urteko Aldahitz ikerketan dute oinarria. Ikerketa horren “Ondorioen sintesia” txostenean², hamaika puntutan laburtuta ageri dira ikerketaren ondorioak. Hala dio laugarren puntuak: “Bidelagun euskaradun, euskalzale eta euskalgile baten ezinbesteko laguntza”.

2 Soziolinguistika Klusterra, 2011b



Idea hori dago, hain zuzen *eusle* kontzeptuaren oinarrian. Nolabait esateko, euskarazko harremanari “eusten” dion jokatzeko moduz ariko ginateke. Horrela adierazten genuen aipatu txostean “bidelagun” horren jokaera:

Euskaldun hori gaitasunez *euskara-dun*, jarreraz *euskara-zale* eta jokaeraz *euskara-egile*, horrela agertzen zaigu bikote guztietan, hau da: *euskara dakien*, *estimaten duen* eta *erabiltzen duen* pertsona.

2011ko ikerketa horretan, jokatzeko modu hori langileen arteko harremanak gaztelaniaz izatetik euskaraz izatera pasatzeko prozesuetan gakoetako bat izan zela ondorioztatu genuen. Hala, *2013 eta 2014ko esperientzia pilotu* hauei begira, jokatzeko modu hori praktikari begira nolabait zehazten saiatu gara, modu naturalean zenbait lankidek han eta hemen garatu duten jokaera horretara “artifizialki” hurbiltzen, nolabait (esperientzia pilotuak diren neurrian), eta izen bat ipini diogu hurbilpen horri: *euslea*.

Eusle gisa ariko den langilearen jokaera ere definitu genuen. Definizioan sartu aurretik, ordea, garrantzitsua da kontuan izatea esperientzia hauek izan duten ezaugarri bat: taldearen definizio zehatza, hain zuzen (ikus aurrerago *Talde-ikuspegia*, ez *indibiduala* puntua). Esperientziak abian jarri edo ez erabakitzeke unean, langileen saila izen-abizenekin definitu da: lankideen zerrenda zehatz bat izan da (ez gutxi-gora-beherakoa), harreman-sarea non hasten den eta non bukatzen den argi erakusten diguna. *Eusleen* jokaera harreman-sare horren testuinguru zehatzaren baitan gertatu da, esperientziak iraun duten bitartean.

Horrela definitu dugu *eusle* gisa aritu den lankideak bete beharreko hizkuntza-araua (ikus *Zehaztapen teknikoak* eranskina):

- 1) *Eusleek* beti egingo dute euskaraz lantegi barruko harreman guztietan, bai ahozkoetan bai idatzizkoetan, bai formaletan bai informaletan (dokumentu idatzietan, kontuan hartuko da dokumentuen ibilbidea). Hizkuntza-arau hori ez da aplikatu-ko lantegi kanpoko harremanetan (bezeroekin, hornitzaileekin, eta abarrekin) edo lantegi barruan bilerak kanpoko kideekin batera direnean. Kasu horietan, *euslearen* esku geldituko da zein hizkuntzan diharduen.

Hala definitu genuen esperientzi piloturako proposamenean: talde baten babes zabalarekin, lankide guztiek ulermen maila gutxienez izanik eta epe jakin baterako, *eusle* gisa hautaturiko lankideek euskaraz egingo diete egoera guztietan lankideei, haiek euskaraz edo gaztelaniaz erantzunda ere. *Eusleek* horrela, euskarazko jardunari eutsiko diote. Epe jakinari dagokionez, esperientzia hauetan *eusleak* hilabete baterako izendatu dira, denbora hori pasata, iraupen bereko *eusleen* bigarren txanda bat eginez (guztira bi hilabete; ikus xehetasunak 3.4 atalean).

Gorago aipatu bezala, dena den, talde-erabakian oinarritutako esperientziak izan dira hauek. Eta *euslearen* jokaerak ere taldearen ikuspegitik du zentzua eta han du bere babesa. Taldeak ere badu bere zeregina *euslearen* jokaeran, hura onartzeaz gain. Baldintza bat ezarri zen esperientzia garatu duen taldeko gainerako kide guztientzat; honako hau, hain zuzen (ikus *Zehaztapen teknikoak* eranskina):

- 2) Eusleek baldintza horren arabera jardun ahal izateko, gainerako lankideek beste baldintza bat beteko dute: ez diete eusleei eskatuko –ez formalki, ez informalki– euskaraz esan edo idatzitakoa gaztelaniaz jartzeko. Bai eska dezakete euskaraz beste modu batean azaltzea, baina ez gaztelaniaz egitea. Era berean, lankideren batek beharko balu eusle batek euskaraz sorturiko dokumenturen bat (edo zati bat) itzultzea, ez dio eusleari berari eskatuko; beste lankideren bati eskatuko dio laguntza. Gainerakoan, eusle izateko hautatuak izan ez diren lankideek ez dute zertan eusleei euskaraz egin (beraien esku egongo da).

Bi osagai nagusi horiek izan ditu, beraz, esperientzia hauetan definitu dugun *euslearen* jokaerak, eta jokatzeko modu hori izan da hizkuntza-erabileran “dinamika berri” bati atea zabaltzeko erabili den bidea. Jokatzeko modu horren baldintzek, fokua *eusle* horiengan jartzen dute, baina taldeizaera dute, lankide horiek taldeak hautatzen dituen neurrian. Eta bi aldetara ezartzen ditu baldintzak, *eusle* gisa hautatu diren lankideei batetik, eta bestetik gainerako guztiei, haiekiko jokaeran.

Beste bi ohar ere kontuan hartzekoak dira *eusleen* hautaketari dagokionean. Batetik, euskarazko gaitasuna eta bestetik borondatea edo jarrera. Gaitasunari dagokionez, *eusleak* hautatzeko garaian, proposatzen genuen “euskaraz erraz samar egiteko gaitasuna duten lankideen artean” hautatzea. Suposatutzat eman genuen hemen, sail batean, euskara ulertu bai, baina egiteko gaitasun mugatua duen lankide bati halako baldintza bat ezartzea gehiegizko jauzia eskatzea zela, kontuan hartuta laneko testuinguru errealean ari garela: eguneroko presa, konpromiso, exigentzia-maila eta abarrekin. Hori gaitasunaren aldetik. Jarreraren aldetik ere baldintza bat ezarri genuen. *Eusle* gisa hautaturiko lankideak taldeko guztien botoekin erabaki dira, baina jarrera mailan, baldintza izan da hautatutako lankideak ezin zuela izan esperientzia honen aurkako jarrera esplizitua zuen lankide bat. Beraz, erabakia taldearena izan arren, *eusle* izango zen lankidearen oniritzia ere beharrezko gisa planteatu genuen.

Behin *eusleak* hautatuta eta hizkuntza-jokaera “berrituari” ekinda, horren jarraipena egin da esperientzia hauetan, asteroko jarraipenaren bitartez. Jarraipen horretan sumatu denean zailtasunak zeudela euskarazko jokaerari eusteko, zailtasun horiek nolakoak diren zehatzago jakiteko saioa egin da koordinatzailearen bitartez (ikus honetaz beherago, *Intzidentziak* puntua).

Eusleen hautaketari eta dinamikari buruzko xehetasun gehiagorako, ikus beherago *Guneen hautaketa-prozesua, proposamen zehatza eta erabakiak* eta *Esperientzien garapena, neurketarako tresnak eta intzidentziak* atalak.



3.1.4.

Euskarazko ulermena lankide guztiek

Esperientzia pilotu hauek garatzeko bi baldintza proposatu genituen. Bata, gorago ikusi duguna: sail bateko lankideek gehiengo nabarmenez eta beren borondatez hala erabakitzea (ikus gorago, *Borondatezko esperientziak: erabaki kolektiboa oinarri* atala). Beste baldintza erabaki horren aurretik ezarri genuen: esperientzia gara zitekeen gune edo sail horietan, lankide guztiek euskarazko gutxieneko ezagutza izatea. Horrela definitu genuen ezagutza-maila hori, esperientzia hauen berri emateko dokumentazioan (ikus *Aurkezpena* eranskinean, “Baldintzak” puntua):

- 1) Euskarazko ezagutza edo ulermen-maila langile guztiek izatea. Esperientzia garrantuko den lan-taldean edo sailean lankide guztiek izango dute euskarazko gutxieneko ezagutza bat; hau da, ez da sailean lankiderik egongo ahoz elkarrizketa arrunt bat edo idatziz testu erraz bat ulertzeko gai ez dena. Horrek ez du esan nahi lankide guztiek euskaraz maila ona edo erraztasun handia izan behar dutenik, baina bai guztiak izatea euskara ahoz eta idatziz nahiko ongi ulertzeko gai.

Baldintza hori betetzen den edo ez guneen lokalizazio-prozesuan zehar galdetu da beraz, eta halakorik betetzen ez duten guneei ez zaie proposamenik luzatu. Informazio hori lortzeko, gune ezberdinetan euskara-planen ardura duten euskara teknikariek eskaini digute zeharkako informazioa, eta langileen hizkuntza-eskakizunen informazioa ere erabili da erreferentzia gisara, halakorik dagoen kasuetan.

Esperientzia pilotu hauetarako diseinaturiko metodologian hau ere funtsezko baldintza da. Hau bete gabe, ezinezkoa da *eusle* gisa arituko diren lankideei baldintza moduan ezartzea saileko lankide guztiei euskaraz egitea, kontuan harturik laneko testuinguru naturalean ari garela eta ezinbestekoa dela, erabateko jarioritasun eta erraztasunarekin ez bada ere, elkar ulertzea.

Horrek ez du esan nahi, dena den, gutxienezko ulermen-maila izan baina euskaraz aritzeko erraztasunik ez duen lankidearentzat metodologia honek erronkarik ez dakarrenik. Badakar, eta ez txikia. Nahiz eta euskaraz gaitasun mugatua duen langileari gaztelaniaz erantzuteko aukera zabalik utzi (bere esku geratzen da, nolabait), normalean halako langileak ez daude ohituta besteek euskaraz egin diezaieten, eta beraz erronka dakar haientzat euskara ulertzeko arreta jarri beharrak, ahalegina egunero egiteak eta eusleei gaztelaniaz egiteko ez eskatzeak.

Ohitura-aldaketa aldetik ere ahalegina eskatzen die halako langileei, esperientzia martxan jartzen den unetik, *eusleek* haiei euskaraz egiteak. Eta ez *eusleek* bakarrik; izan ere, praktikan, normalean denek edo gehienek gaztelaniaz egiten dioten lankide bati, esperientziaren “aitzakiarekin” *eusleek* euskaraz egiten diotela, berak ulertzen duela eta arazo berezirik ez dela sortzen ikusita, beste lankide batzuk ere euskaraz egiten hasiko zaizkio (eta izatez, praktikan hala gertatu da kasu ba-

tzuetan). Hori aldaketa handia da euskarazko gaitasun mugatua izan eta ordura arte harreman gehienak gaztelaniaz dituen lankide batentzat. Esan beharrik ez da, ordea, aldaketa horrek bere euskarazko ulermena hobetzeko eta, bera ere, egoera jakinetan, gutxieneko erosotasuna sentitzen duen horietan, euskaraz egiten hasteko, aukera izugarria dakarrela, kontuan izanik egunero dela eta baldintza errealetan. Hori da, hain zuzen, *eusle*en bitartez abian jartzen den dinamika horren helburu nagusietako bat: baldintzak sortzea, normalean euskarazko harremanik ez duten baina gutxieneko ezagutza baduten lankideei praktikaren atea zabaltzeko.

Puntu honekin amaitzeko aipatu, euskarazko gaitasun mugatua duten lankideen kasuak beste angelu batetik erakusten digula esperientzia hauen talde-izaera. Itxuraz fokua *eusle*etan jartzen den arren, dinamika horrek gainerako lankideentzat ere erronkak dakartza, besteak beste, euskaraz ulertu bai, baina hitz egiteko gaitasun (oso) mugatua dutenentzat.

3.1.5.

Jardun naturala: eguneroko lanean bertan

Esperientzia hauen beste oinarri bat eguneroko jardun erreal edo naturalarena da, eta gorago azalduko *Hizkuntza-jokaeran ardaztuta* oinarriarekin du zerikusi zuzena (ikus 2.3 atala). Mila ekimen ezagutzen ditugu non euskaraz egiteko, eguneroko ohiko egoerek eskaintzen ez duten erabilera-aukerak egoera errealetatik aparte sortzen edo bilatzen diren. Osagarri gisara, euskara eskoletan, jarduera berezitan, mintza-taldeetan... *Eusle metodologiaren* bidea beste bat da: eguneroko jardunarena, laneko egoera errealena, talde naturalarena.

Proposamena bide honetatik egitearen atzean hainbat arrazoi daude. Laburtzearren, bi aipatuko ditugu hemen. Batetik, euskarazko erabilera “talde naturala” edo “berezko talde”etan sustatzeko bidean eginiko teorizazioa eta ikerketa³, eta, bestetik, 2011ko Aldahitz ikerketaren ondorioak. Konkretuki, lan horren *Ondorioen sintesia* txostenean, ondorioak hamaika puntutan laburtzen dira. Hamargarren ondorioa “Lantokia euskaltoki nagusia” izenekoa da, eta hala dio pasarteetako batek:

... lantokia bera izan dute euskara-toki nagusia. Bertan, ordu asko egunero, eta egun asko hilero, eta hilabete asko urtero eman dituzte euskaraz alboko euskaldunekin. Hortxe eskuratu dituzte, funtsean, euskaraz egiteko erraztasuna eta gaitasuna, euskaraz egiteko ohitura eta konfiantza, eta euskara barne-hizkuntza bezala lan-hizkuntza ere sentitzeko bultzada. Esan genezake, hortaz, erabilera errealearen bidezko euskalduntzea funtsezkoa izan dela azterketa honetako protagonista guztientzat. Komeniko litzateke gogoratzea, bide batez, erabilera errealean subjektuek ez dutela fokua hizkuntzan bertan jartzen (irakaskuntza egoeretan normalean gertatzen den

3 Ikus, bestea, beste, P. Jauregiren tesi-lana (Jauregi, P., 1994) eta geroztik bide horretatik garaturiko Kuadrillategi egitasmoa.



bezala), baizik eta egin beharreko eginkizunetan: lan kontuetan, harreman kontuetan eta abarretan. Hizkuntza kontuak urtu bezala egiten dira komunikazio errealearen itsasoan. (Soziolinguistika Klusterra 2011b: 9)

Guneetan esperientzia hauetarako metodologiaren nondik norakoak azaldu direnean, beraz, langileek baloratu dute ea horrek beren eguneroko lana zenbateraino baldintza zezakeen, eta ea eusleen bitartez ontzat ematen den hizkuntza-jokaeraren aldaketa txertatzeko moduko ikusten den beren eguneroko lanaren testuinguru errealean. Beti ere, asteroko berrespenaren bermearekin. Gorago esan dugunez, esperientziak martxan izan diren bitartean, taldeak asteroko berretsi da jarraitzeko borondatea, beraz aukera egon da edozein momentutan esperientzia eteteko, eguneroko lana aurrera ateratzeko gehiegizko oztopoa bihurtzen dela sumatzen bada.

3.1.6.

Sinpletasuna: aparteko saiorik ez eta esperientziaren iraupena

Esperientziaren muina, beraz, laneko harreman naturaletan hizkuntza-jokaeran ezarritako baldintza jakin batzuk izan dira, baina beti ahalik eta sinpletasunik handiena bilatuz. Bilaketa hori, gorago azalduko *Egitura sinplea* oinarritik dator (ikus gorago, 2.3 atala).

Esperientzia martxan jarri edo ez erabakitze bileran bana egin da gune bakoitzean, eta beste bat amaieran baloratzeko. Horrez gain, esperientziak iraun duen asteetan, langile bakoitzak astearen amaieran galdetegi bat bete du, baina minutu batean betetzeko modukoa. Saileko lankideetako batak koordinatzaile-lanak egin ditu, lankide guztien erantzunak jaso eta ikerketa-taldeari bidaltzeko. Eta horrez gain, hizkuntza-erabileraren bilakaera neurtzeko hiru une egon dira, non langileek galdetegiak bete dituzten. Baina hori izan da gune horietako langileei esperientziak eskatu dien guztia antolaketaren eta dedikazioaren aldetik.

Ez da antolatu eskolarik, ez da trebakuntza-saiorik egin, ez da motibazioa lantzeko aparteko lanketarik egin edo ikastarorik eman, edo ez da taldeko ariketa berezirik egin. *Eusle metodologia* bidez euskara gehiago erabiltzeko dinamika eguneroko lan arruntean oinarritu da, aparteko elementurik gabe (adostutako baldintzak soilik). Jardun natural horretatik aparte proposatu diren elementuetan berriz, filosofia argia izan da: ahalik eta elementurik gutxien eta sinpleenak aukeratzeari denboraren zein logistikaren aldetik.

Bestalde, esperientzien iraupena bi hilabetekoa izan da, ondoren hiru hilabeteko “atsedena” izanik. Zehazki, denboraren banaketa hau izan da: esperientzia garatzeko erabaki kolektiboa hartu eta berehala hasi, bi hilabetez esperientzia garatu (zortzi aste, baldintza jakinekin eta asteroko jarraipenarekin), eta ondoren hiru hilabete inolako baldintzarik eta jarraipenik egin gabe (*euslerik* eta gainerako baldintzarik gabe). Guztira, beraz, bost hilabete, bi esperientziakoak eta hiru

atsedenekoak. Hizkuntza-bilakaerari buruzko neurketak, berriz, hiru izan dira gunee bakoitzean, bost hilabete horietan zehar: lehenengo neurketa esperientzia martxan jarri aurretik (erabakia hartutako egunean), bigarrena hortik bi hilabetera, zortzi asteko esperientzia amaitu eta berehala, eta hirugarrena hiru hilabete beranduago, “atsedeneko” epe horren amaieran (hau da, lehen neurketatik bost hilabetera).

3.1.7.

Talde-ikuspegia, ez indibiduala

Esperientzia hauen zazpigarren oinarria talde-ikuspegiarena da, gorago aipatutako *Planteamendu soziologikoa* oinarriaren aplikazio dena (ikus gorago, 2.3 atala). Datuak eta galdetegiak langile bakoitzak bete dituen arren, esperientzien unitatea eta arreta nagusia ez da norbanakoa izan, taldea baizik.

Horretarako ezinbesteko baldintza bat izan da esperientziaren gunea, langile-taldea, zehatz definitzea. Departamendu edo sail bat izan da kasu guztietan esperientzia garatu den gunea, elkarrekin harremana maiz izaten duten lankideek osatutako gunee oso handi bat, eta hasieratik ongi definitu da kasu guztietan talde edo gunee hori osatzen zuten lankideen zerrenda. Modu horretan, esperientzian parte hartzen zuten lankideek garbi izan dute uneoro zein lankide zeuden sartuta dinamika horretan (eta zeintzuk ez, enpresa edo erakunde berekoak izan arren). Guzti hori lotuta dago, noski, esperientziaren abiapuntua izan den erabaki kolektiboarekin. Erabaki horren aurretik behin-behinekoz definitu da taldearen osaketa, eta bertan eman dute ontzat lankideek taldearen osaketa hori. Lankide-taldee hori bera izan da gero zortzi asteetan zehar astero-astero berretsi duena esperientziarekin jarraitzea.

Proposatutako dinamikan eta arauetan ere, oinarria taldea izan da. Taldeak erabaki du Aldahitz proiektutik proposatu edo eskaini zaion dinamika horren helburua bere egitea. Nolabait esateko, taldeak jarri dio erronka moduko bat bere buruari. Helburu kolektibo horren gauzapenean bai, hor langile bakoitzak bere rola edo egitekoa izan du, baina taldearen ikuspegia galdu gabe, eta langile bakoitzaren hizkuntza-bilakaeraren xehetasunak aztertzen saiatu gabe.



3.2.

Guneen hautaketa-prozesua, proposamen zehatza eta erabakiak

Esperientzia honetan garatu den proposamen metodologikoa 2012. urteko udaberri eta udazkenean ondu zen, besteak beste, 2011ko Aldahitz ikerketaren ondorioak oinarri hartuta⁴. Garapen hori Aldahitz ikerketako talde teknikoak egin zuen, proiektuaren Garapen Taldean biltzen diren lankideen eta erakundeen laguntzaz (ikus beherago *Ikerketaren fitxa teknikoa eta lantaldea* atala). Behin metodologia definituta, aipatu Garapen Taldean biltzen diren erakundeen sarea baliatuta egin zen ikerketa garatzeko egokiak izan zitezkeen guneen aurre-lokalizazioa. Konkretuki, erakunde hauetako profesionalen laguntzaz: Ahize-AEK, Elhuyar eta Emun aholkularitza-enpresak, Hernaniko Udaleko euskara zerbitzua, Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara zerbitzua eta Udal<>ekin egitasmoa eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Aurre-lokalizazio prozesu horretarako bi dokumentu erabili ziren nagusiki: hurrenez hurren 8.1 eta 8.2 eranskinetan jaso ditugun “Aldahitz ikerketa - Esperientzia pilotua: diseinu eta jarraipenerako zehaztapen teknikoak” eta “Aldahitz ikerketa - Esperientzia pilotua. AURKEZPENA” dokumentuak.

Aipatutako erakundeetako lankide-sarearen bitartez hainbat gune aurre-lokalizatu ziren, era honetako esperientziak garatzeko baldintzak bete zitzaizkien eta, behar bada (tokian tokio erakundeetako teknikarien ustez), horretarako interesa izan zezaketenak. Gune horiek, besteak beste, bi ezaugarri hauek bete behar zituzten: 1) lankide-kopuru aldetik, 8 eta 30 lankide artekoak izatea, eta 2) sail edo gune horretako lankide guztiek izatea euskara ulertzeko gaitasuna.

Aurre-lokalizatutako gune horien artean, ikerketaren ikuspegitik egokienak zirenen hautaketa bat egin zuen Talde Teknikoak (egokitasun-hurrenkera bat), ondoren guneekin harremanetan jartzeko. Aurre-lokalizazio eta hautaketa-prozesu hau bi alditan egin da esperientzia pilotu hauetarako: 2012. urteko udazkenean lehen aldiz, 2013an garaturiko hiru esperientzien guneak hautatu eta adosteko, eta bigarren aldiz 2013. urteko udazkenean, 2014an garaturiko lau esperientzien guneetarako.

Aurre-lokalizaziotik esperientziak martxan jarri bitartean, hiru urrats hauek eman dira guneetako bakoitzean:

- 1) Aldahitz proiektutik, enpresa edo erakunde publikoko arduradunekin harremanetan jarri eta esperientzia hauek garatzeko aukera eskaini.
- 2) Lantegietako arduradunen balorazioa eta oniritzia jasotzea (alkate eta zuzendariena, administrazio publikoko guneen kasuan, eta kudeatzaile edo sail-arduradunena enpresa pribatuen kasuan).

4 Soziolinguistika Klusterra, 2011a.

- 3) Guneko lankideekin bilera egin eta haien baiezeko erabakia jaso (*gehiengo kualifikatuz*).

Lokalizazio- eta erabakitze-prozesu honetan zehar, idatzizko bi euskarri erabili dira (lan honen *Aurkezpena* eta *Zehaztapen teknikoak* eranskinetan jasotako bi dokumentuak), eta horrez gain ikerketaren Talde Teknikoko zein Garapen Taldeko kideen ahozko azalpen osagarriak.

Prozesu horien lehen bi urratsetan aldeko iritziak jasota, guneetako bakoitzean bilera bikoitz bana antolatu zen: lehen zatia erakundeko arduradunekin, esperientziaren garapenaren xehetasunak azaltzeko, eta bigarren zatia langileekin, esperientzia garatu edo ez erabakitzeko.

Esperientzia hauek garatu diren guneetako langileekin eginiko bilerak izan dira prozesuaren abiapuntua eta une erabakigarria. Lau urrats izan ditu bilera hauetako bakoitzak:

- 1) Informazioa eta zalantzak: idatziz banaturiko informaziotik abiatu, esperientzien garapenaz egon zitezkeen zalantza guztiak argitu lankideekin.
- 2) Erabakia hartu: langile bakoitzaren erantzun konfidentzialen bidez, taldearen iritzia eta erabakia ezagutu.
- 3) (erabakia baiezekoa izan bada) Esperientzian *Eusle* izango diren lankideak eta koordinatzaile izango dena hautatu.
- 4) Hizkuntza-erabileraren lehen neurketa egin (galdetegiak bete).

Baiezeko erabakia hartzeko, gune horretako langileen %75aren baiezeko erantzuna ezarri da baldintza modura. Eta ondorengo hau izan da langile bakoitzak erantzun beharreko galdera zehatza esperientzia martxan jartzeari buruz bere adostasuna/aurkakotasuna adierazteko:

Prest nago Aldahitz esperientzia pilotuan parte hartzeko eta neronek eusle papera jokatzeko lankideek halaxe aukeratzen banaute. Aukeratzen ez banaute, prest nago eusle gisa ari direnen euskarazko jardunera moldatzeko, gaztelaniaz egiteko eskatu gabe.

Bai...

Ez...

Gune bakoitzean koordinatzaile bana hautatu da (langileek proposatuta), eta horrekin batera eusle modura arituko ziren lankideak. Gune bakoitzeko lankide-kopuruaren arabera, bi edo hiru eusle hautatu dira, erabakia hartu eta hurrengo egunetik aurrera hizkuntza-arau berriaren arabera jokatzeko hasi direnak (ikus gorago, *Eusleak*, *haien jokaera* eta *gainerakoena* atala). *Eusleak* hautatzeko berriz, ondorengo galdera baliatu da (bigarren hau ere modu konfidentzian jaso da):



Zeure ustez, euskara erraz samar egiteko gaitasuna duten lankideen artean, zein komeniko litzateke eusle gisa aritzea? Aipatu bi/hiru izen⁵.

Lankideek gehien aipatutako horiei proposatu zaie *eusle* izatea. Eta ondoren lankide horien oniritzia ere eskatu da, eta taldean baloratu egokitasuna (egoera posibleak aurreikusi...).

Esperientziak garatu diren zazpi guneetan deskribatutako erabakitze-prozesuetan baiezkoa nagusi da kasu guztietan; hau da, Aldahitzen proposamena egin den zazpi kasutik zazpietan jaso da arduradunen oniritzia; ondoren, kasu guztietan lankideek gehiengo kualifikatuz erabaki dute esperientziak martxan jartzea, eta kasu guztietan lortu da adostasuna *eusle* arituko ziren lankideak izendatzeko orduan. Horrek ez du esan nahi, ordea, erabaki eta prozesu horietan zalantzarik eta gora-beherarik egon ez denik. Guneetako batzuetan, arduradunen aldetik zalantza handiak egon dira esperientzia garatu edo ez erabakitzeko (eragin zezakeen giroagatik, arriskuengatik...). Lankideen artean *eusleak* hautatzeko unean ere, kasu batzuetan lankideak bilerara etorri direnerako erdi-adostua zuten nor arituko zen *eusle*, baina beste kasu batzuetan ez, eta izan da gunerik ere gehiengoz hautatutako lankideetakoren bat aldatu behar izan dena, egoera zailen bat aurreikusi eta talde osoan baloratu ondoren.

Erabakitze- eta abiatze-fase honi dagokionez, berebiziko garrantzia izan du esperientzien aste-roko berrespen-sistemak (ikus gorago *Borondatezko esperientziak: erabaki kolektiboa oinarri atala*). Zortzi asteo esperientzia hauetan aurreikusi da langileek astero berrestea esperientziarekin aurrera jarraitzea, eta asteetakoren batean gehiengo kualifikatu hori berresten ez bada, esperientzia bertan behera uztea. Horrek konfiantza handia eman die gune hauetako arduradun zein lankideei, espero gabeko dinamika edo arazoak sortuz gero berehala eteteko atea zabalik uzten zuelako. *Eusleak* hautatzeari dagokionez berriz, lau asterako hautatu dira lehenik, eta ondoren berriz egin da hautaketa, hurrengo lau asteetarako.

5 Guneko lankide-kopuruaren arabera, bi edo hiru *eusle* izan dira. Kopuru hori ikerketako Talde Teknikoak finkatu du, irizpide gisa erabilia, lankideen %20 inguru izatea *eusleak*, gutxienez bi izanik. Hau da, bost lankideko bat izatea *eusle*, eta hondarrak geratuz gero, beste bat gehitzea.

3.3.

Guneak eta bakoitzaren jarduera nagusia

Esperientzia pilotuak zazpi gunetan garatu dira, horietariko hiru 2013. urtean eta beste laurak 2014. urtean zehar. Zehazki, gune edo langile-sail horiek ondorengo erakunde eta enpresetan daude kokatuta: Fagor Arrasate enpresaren Markinako lantegian (2014), Tolosako Udaleko Hirigintza sailean (2013), Tolosako Udaleko Zerbitzuen sailean (2013), Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen sailean (2014), Eusko Jaurlaritzako Gazteria sailean (2014), JMA enpresaren Arrasateko lantegian (2013) eta Zarauzko Udaleko diruzaintza sailean (2014). Bistan da, era honetako esperientziak ezin izango zirela garatu enpresa pribatu eta erakunde publiko horietan hala egitea erabaki ezean. Kasu honetan, gainera, *Eusle metodologiaren* ezaugarriak kontutan hartuta, ez da izan erakundeen oniritzia edo onarpena soilik, prozesu hauek, azken finean gune bakoitzean garatu baitira. Horrek noski erabateko lankidetzeta eta koordinazioa eskatu du langile-talde horien eta ikerketa-taldearen artean, eta erabateko laguntza eta prestutasuna jaso dugu kasu guztietan esperientziak eta ikerketa bera aurrera eramateko. Lerro hauetatik beraz, gure eskerrik beroenak erakunde horietako ordezkarietara eta esperientzietan inplikaturik egon diren lankideei beren laguntzagatik.

Zazpi guneak zein erakundetan kokatuta egon diren adierazi dugu hemen, haien oniritziz eta egindako lanaren aitortza modura. Dena den, langile zehatzen hizkuntza-erabilera datuak eta bestelako informazioak anonimotasunean mantentze aldera, gune horietako bakoitza hizki batekin izendatu dugu (A, B, C, D...) lan honen datuen analisien eta ondorioen ataletan. Modu horretan, irakurleak aukera du gune bakoitzaren bilakaeraren xehetasunak aztertzeke eskaintzen diren datuen bitartez, baina gune bakoitzaren datuak zein erakunderi dagozkion erreserbatzen da.

Jarraian, labur deskribatuta duzue zazpi gune horien jarduera nagusia zein den:

**Fagor Arrasate enpresaren Markinako lantegia:**

Markinako lantegia esaten diogun arren, Etxebarri udalerriko lurretan dago kokatua berez. Gaur egun 88 langilek egiten dute lan bertan, eta prentsa mekanikoak egiten dira, makina erreminta sektorean. Aldahitz esperientzian parte hartu duten sailean “diseinu eta automatizazio” elektrikoan egiten dute lan (eskemak eta programazioa).

**Tolosako Udaleko Hirigintza, Azpiegiturak eta Auzoak saila**

Tolosako Udaleko Hirigintza, Azpiegiturak eta Auzoak sailean, hirigintzari dagokio Tolosa hiriaren antolaketaz arduratzea: bai lurralde antolaketari dagokionez (espazioaren antolaketara), bai hiri mailan burutu daitezkeen erabilpen edota ekintza des-



berdinei dagokionez (obrak eta jarduerak). Espazioaren erabilpenari dagokionez, beharrezkoak diren bitartekoak edo azpiegiturak (dela aisiarako, dela mugikortasunerako, eta abar) bermatu eta haien mantenimenduaz arduratzen da Tolosako Udaleko Zerbitzuen saila.



Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen saila

Ondorengo hauek izaten dira jarduera nagusiak sailaren eguneroko lanean:

- Informazioa eta orientabideak eman herritarrei, gizarte baliabide eta prestazioei buruz.
- Planteatutako eskaera eta egoeren diagnosi balorazioa egitea.
- Beharrari erantzuteko egokiak diren baliabideetara orientatzea eta, kasua bada, bestelako gizarte zerbitzu espezialitateetara bideratzea.
- Gestionatzea edo/eta tramitatzea prestazio ekonomikoak eta gizarte baliabideak.
- Zerbitzuak eta laguntza programak eskaintzea etxean bertan.
- Gizarteratze neurriak hartzea, prebentzioari lehentasuna emanez, eta marjinazio kausak eliminatzea, arrisku egoeran dauden pertsona eta gizarte taldeentzat antolatutako programen bidez.
- Elkartasuna eta partaidetza bultzatzeko neurriak.



Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako saila - Gizarte Zerbitzuen zuzendaritza

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza Eusko Jaurlaritzako Gasteizko Lakua I-eko entreplantan kokatuta dago. Zuzendariak, eta 25 langilek osatzen dute Zuzendaritza. Jarduera nagusia hau izaten da eguneroko lanean:

- Gizarte-zerbitzuen planifikazioa eta ebaluazio orokorra egitea⁶.
- Gizarte-zerbitzuen arloan, prestazioak eta zerbitzuak kudeatzea⁷.

Zehazki:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa proposatzea.
- Gizarte-zerbitzuen arloko irabazi asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko erakunde deklaratzeko prozedurak bideratzea, eta horiei buruzko ebazpen-proposamenak egitea.
- Pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin gauzatutako esku-hartze sozialeko jardueretarako diru-laguntzaren ebazteko prozesua.
- Genero-indarkeriaren emakume biktimen arreta.

6 Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean, abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritako baldintzen arabera

7 Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezarritako baldintzen arabera

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren barne dago, eta Gasteizen dago kokatuta, Jaurlaritzako egoitzan. Aldahitz proiektuan parte hartu duen Gazteria zerbitzuak 12 langile ditu eta bere helburu nagusia gazteen emantzipazio prozesua erraztea da. Bestalde, gazteentzako hainbat programa eta zerbitzu eskaintzen ditu (Gazte Informazio bulegoak, Gazte Txartela eta nazioarteko txartelak, Auzolandegiak, Eusko Gazteak Lankidetzan, gazteen mugikortasuna sustatzeko programak, GaztebizHitza ataria).

JMA enpresaren Arrasateko lantegia

Alejandro Altuna S.A. Altuna Group taldearen sustatzailea edota enpresa nagusia da. Era guztietako sarrailetarako giltzak eta horiek kopiatzeko makinak fabrikatzen ditu. Enpresaren produktuak OEM merkatura bideratuta daude eta baita birjartzearen sektoreari ere. Bigarren kasu horretan merkaturatzen diren produktuak JMA markakoak dira

1942an eratutako enpresa da. Badira hiruzpalau hamarkada nazioarteko merkatuetara zabaldu zela, eta ALTUNA GROUP Europako lehen giltza fabrikatzaile eta sektorean erreferente izatera iristea lortu du.

200 langile dira ALEJANDRO ALTUNAN lanean eta horietatik Aldahitzeko egitasmoan 15ek hartu dute parte: planifikazioan, kalitatean, giza-baliabideetan, bulego teknikoan eta ikerketa eta garapenerako lanean dabiltzan lankideek, hain zuzen.

Zarauzko Udaleko diruzaintza saila

Zarauzko Udalaren zerbitzu ekonomikoak Etxezabala eraikinean (Kale Nagusia 27) daude. Guztira, 177 langile ditu Zarauzko Udalak, horietatik, 15 langile ari dira zerbitzu ekonomikoetan. Kontu-hartzailatza departamentuan 4 langile dira guztira; Errentak eta Ordainarazpenak departamentuan beste horrenbeste (4 langile); eta Diruzaintzan, 7.

Aldahitz ikerketan, Kontu-hartzailatzako lau langileek hartu dute parte, Errentak eta Ordainarazpenetako teknikariak, Diruzainak eta Diruzaintzako kudeaketa-administrariak. Guztira, 7 langilek, hortaz.

Kontu-hartzailatza departamentuaren jarduera nagusia honakoa da: kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta aurrekontuen barne kontrola eta fiskalizazioa egin eta Udaleko kontabilitatea eraman.

Errentak eta Ordainarazpenak departamentuaren lanak, berriz, honakoak dira: zergen kudeaketa eta ikuskaritza antolatu eta gainbegiratzea.

Diruzaintzako egitekoen artean sartzen dira Udalaren funtsak, balioak eta efektuak erabili eta zaintzea eta horien likidazioa kudeatzea, bai eta Zerga-bilketa arloko buruzagitza lanak egitea ere.



3.4.

Esperientzien garapena, neurketarako tresnak eta intzidentziak

3.4.1.

Esperientziak garatzeko denbora-eskema eta datak

Ondorengo denbora-eskemari jarraiki garatu dira esperientzia pilotuak, zazpi kasuetan:

- a) Erabakia hartu eta hurrengo egunean jarri dira martxan. Erabakia hartutako egun horretan egin da hizkuntza-erabilerari buruzko lehen neurketa.
- b) Esperientziak bi hilabeteko iraupena izan du; zortzi astekoa, zehatzago esateko. Astero, ostiralez galdetegiak pasa dira eusleen jokaera lankide guztiek ebaluatzeko, eta esperientziarekin jarraitzea berresteko. Esperientziaren erdian, lau aste pasata, *eusleak* aldatu dira (lankideek hautatu dituzte, lehen lau astetako irizpide berdinekin).
- c) Zortzi aste pasata amaitu da esperientzia. Ondorengo astean egin da hizkuntza-erabilerari buruzko bigarren neurketa. Eta aste horretan hasi da esperientzien “atseden-aldia”.
- d) Bi hilabeteko esperientziaren ondoren beraz, hiru hilabeteko atseden-aldia izan da guneeetan (hamabi aste). Atseden-aldi horretan ez da *euslerik* izan (formalki behintzat), ez da inongo galdetegirik pasa edo jarraipenik egin⁸. Hiru hilabeteko epe hori igarota egin da hizkuntza-erabileraren hirugarren neurketa.

Datei dagokionez, 2013ko esperientziak, otsaila eta apirila artean garatu dira (esperientzia-epea), eta atseden-aldiak apirila eta uztaila artean egin dira. 2014ko esperientziak berriz, urtarrila eta martxoa artean garatu dira, atseden-aldiak apirila eta uztaila artean izanik.

3.4.2.

Esperientzien eguneroko eta asteroko dinamika

Bi elementutan oinarritu da esperientzia hauetako eguneroko eta asteroko dinamika. Alde bate-tik *eusle* gisa aritu diren lankideen hizkuntza-portaera “berrian”. Taldearen babesarekin martxan

8 A Gunea izan da horretan salbuespena. Ikus xehetasunak, 3.4.4 atalean (“Intzidentziak”)

jarritako jokaera, eta gainerako lankideengan ere bere eragina izan duena. Beste aldetik, asteroko jarraipena eta berrespena, esperientziak garatu diren guneetako lankide guztiek iritzia jasoz osatu dena.

Gune bakoitzean esperientziak iraun duten zortzi asteetan zehar, *eusle* aritu diren lankideek hizkuntza-portaera baldintzatua izan dute, haiek eta taldeak hala erabakita. Eta baldintza zen euskaraz egitea eguneroko laneko harreman formal eta informaletan lankideei (ikus jokaera horri eta erabaki horiei buruzko xehetasunak gorago, *Eusleak, haien jokaera eta gainerakoena* eta *Borondatezko esperientziak: erabaki kolektiboa oinarri* puntuetan). Baldintza hori praktikan bete den edo ez jakiteko, lankide guztiei egin zaie galdera, esperientziak iraun duen zortzi asteetan, asteko azken egunean. Guneako lankide guztiek erantzun dute ea euren ustez aste horretan bete den *eusle* hizkuntza-jokaerari buruz adostutako irizpide edo araua. Horrekin batera, lankide bakoitzari galdetu zaio ea esperientziarekin beste astebetez jarraitu nahi zuen ala ez (“berrespena” deitu diogu horri).

Bi galdera horiek modu sinplean egin dira (ikus behegaro) eta guneako koordinatzailea arduratu da lankide guztien erantzunak bildu eta ikerketa-taldeari bidaltzeaz (ostiraletan). Ikerketa-taldeak, bere aldetik, guneako erantzun guztiak jasota, erantzunen emaitza orokorra kalkulatu eta bidali die bueltan hurrengo astelehenean koordinatzaileei, haiek ondoren lankide guztiei zabaltzeko. Emaitza orokor horrek bi puntu jaso ditu: a) Zein neurritan bete dute (pasatako astean) *eusle* beren hizkuntza-araua, eta b) Esperientziarekin jarraitzeko lankideen iritzia. Dinamika hori errepikatu da astero, zortzi asteetan zehar, eta modu horretan lankide bakoitzak taldearen ikuspegia jaso du. Bi informazio horiek jasotzeko, bi galdera sinple hauek erantzun ditu astero, lankide bakoitzak⁹:

A) **Euslearen hizkuntza-arauaren betetzea aste honetan**

Euslearen izena	Bai	Erdipurdi	Ez
David ¹⁰			
Jaione			
Jose Mari			

B) **Jarraituko dugu esperientziarekin beste astebetez?**

BAI

EZ

⁹ Ikus *Jarraipenerako eta berrespenerako galdetegia* eranskina.

¹⁰ Adibide modura jarritako izenak dira hauek. Gune bakoitzean, aste horretan *eusle* gisa ari ziren lankideen izenak jaso dira hemen, gunearen arabera bi edo hiru izen.



Guneko lankide guztiek, beraz, astearen amaieran, koordinatzaileak bidalitako A) eta B) galderak erantzun dituzte, eta galdetegia beteta bidali koordinatzaileari. A) galderarako, langile bakoitzak, buruz asteko errepassoa eginaz, eta berak entzun/ikusi/hitz egin duenaren arabera erantzun du ea guneko *eusle* bakoitzak bere ustez adostutako hizkuntza-araua bete duen edo ez aste horretan, hiru aukerekin: bete du (“bai”), ez du bete (“ez), edo “erdipurdi” bete du. Ondoren, B) galderan, esperientziarekin jarraitu nahi duen edo ez adierazi du, bi aukeretako bat markatuz. Esperientzia hauen sinpletasunaren filosofiari jarraituz, langile guztiek astero bete duten galdetegi honek oso denbora gutxi eskatu die, minutu bat edo bi ostiralero.

Lankide guztien erantzunak koordinatzailearen bitartez ikerketa-taldera iritsi dira, eta handik bueltan erantzun orokorra etorri da, taldearena. Modu horretan, lankide bakoitzak egiaztatu ahal izan du ea *eusle*i buruzko bere hautematea bat datorren gainerako lankideek diotenarekin, eta taldearen iritzia ezagutu du jarraitzeko nahiaren inguruan. Ikerketa-taldearen erantzuna modu orokor honetan iritsi zaie lankideei (adibidea):

Laugarren astearen emaitza (2014-03-07):

- Eusleen betetze-maila: David (%85,7), Jaione (%100), Jose Mari (%53,8).
- Beste astebetez jarraitu: Bai (%100), Ez (%0)


Esperientziarekin aurrera jarraitu ahal izateko baldintza izan da, astero, “Beste astebetez jarraitu” puntu horretan “Bai”ezkoa %75etik gorakoa izatea gunean. Eta praktikan, hala gertatu da zazpi esperientzietan, aste guztietan. Hau da, ez da gertatu Aldahitz esperientzia pilotu hauek gune batean abian jarri eta bi hilabeteak osatu aurretik lankideen erabakiz eten behar izatea (baina proposamen metodologikoaren arabera, gerta zitekeen).

Eusleen “betetze-maila”ri dagokionez bestalde, ez zegoen aurrez adostutako baldintzarik, baina esperientzien helburuak kontuan izanik, beharrezkoa zen lankideek aitortutako *eusle*en “betetze-maila”k altuak izatea (%80 edo 85etik gorakoak). Ikerketa-taldeak datu horien jarraipena egin du astero, eta datuak baxuagoak izan diren kasuetan harremanetan jarri da koordinatzaileekin, araua betetzeko nolako zailtasunak sumatzen ziren jakiteko eta ahal zen neurrian hobetzeko (ikus beherago, *Intzidentziak* puntua).

3.4.3.

Neurketarako tresnak

Esperientzia pilotu hauen helburu nagusia lankideen artean “euskaraz gehiago egiteko aukera emango duen dinamika bat” eragitea izan da, eta, beraz, lankideen arteko hizkuntza-erabilera neurtzen jarri dugu arreta nagusia, esperientziak garatu aurretik eta ondoren. Zehazki, 3 unetan egin dira hizkuntza-erabileraren neurketak, ondorengo diagraman ikus daitekeen moduan:



Lankideen arteko “hizkuntza-erabilera” kontzeptu orokorra da, dena den. Erabilera-mota ezberdinak gertatzen dira lankideen artean eta, batez ere, modu ezberdin asko daude erabilera horiek neurtu edo kuantifikatzeko. Ondorengoak dira Aldahitz 2013-2014 esperientzia pilotuetan lankideen arteko hizkuntza-erabilera neurtzeko garaian egin ditugun hautuak eta haien zergatiak. Lan honen ondorengo ataletan datuak irakurtzeko garaian hautu hauek guztiak kontuan hartzea komeni da:

- **Erabilera aitortua eta gurutzatua:** lankideek aitortutako hizkuntza-erabilerak baliatu ditugu esperientzietan gertatu diren bilakaerak aztertzeko, eta, beraz, ez dugu hizkuntza-erabileraren behaketarik¹¹ egin. Lankideek aitortutako erabilera hori, dena den, modu *gurutzatuan* jaso da. Horretarako, lankide bakoitzari, bere erabilera nolakoa den galdetzean, eskatu zaio lankide bakoitzari buruz bi datu emateko: “nik berari” eta “berak niri”. Horrek aukera ematen du datuak gurutzatzeko, bi lankideren arteko harreman bakoitzerako bi ikuspegi (lankide bakoitzarena) eta lau datu lortzen baititugu, guztira datu sendoagoa lortuz¹².

11 Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko metodologiak garatuta daude euskal soziolinguistikaren eremuan, eta erakunde askotako erabilera-planen baitan lankideen arteko erabilerak modu horretan neurtzen dira. Baina proiektu honetan hautua ez da hori izan. Behaketa bidezko metodoei buruzko azalpen zehatzak dituzue, besteak beste, Altuna, O. eta Basurto, A., 2013 lanean.

12 Bi lankideren arteko harremanean (A eta B lankideak), “nik berari” eta “berak niri” galderak baliatuta lau datu lortzen ditugu: nola egiten dion Ak Bri, bi datutan (Ak aitortua eta Bk aitortua), eta beste bietan, nola egiten dion Bk Ari (Ak aitortua eta Bk aitortua). Horrela, aukera dago berdinak edo berdintsuak behar luketen datu horietan distantzia handia dagoenean (bi lankideek aitortutakoa inolaz ere bat ez datorrenean), datu horiek analisisietatik kanpo uzteko, gutxieneko koherentzia bat duten, eta beraz sendoagoak diren datuak soilik baliatuz. Aldahitz proiektu honetan, dena



Hainbat arrazoi daude hizkuntza-erabilera modu honetan neurtzea hautatu izanaren atzean. Hiru garrantzitsuenak aipatuko ditugu hemen. Batetik esperientziaren izaera eta horrek eskatzen duen konfiantza-giroa. Esperientzia hauek garatzea gune horietako lankideen borondatezko erabakia izan da; nolabait, lankideek “beren buruari jarritako erronka” da proiektu hau. Alde horretatik, langileek beraiek aitortutako horretan oinarritzeak zentzua duelakoan gaude. Bigarrenik, esperientzia hauen oinarrietako bat den *sinpletasuna*. Behin baino gehiago aipatu dugu lan honetan helburua izan dela dinamika berri bat eragiteko modu “simple” bat bilatzea, tresneria, baliabide eta denbora ahalik eta gutxien eskatuko duena. Alde horretatik, erabilera modu aitortuan jasotzea askoz sinpleagoa da behaketa bidez jasotzea baino. Eta hirugarrenik, esperientziak berak eragindako *aldaketak* neurtzeko nahia daukagu. Lan honen lehentasuna ez da jakitea zehatz-mehatz eta errealki gune horietako bakoitzean euskarazko erabilera *zenbatekoa den*. Gehiago da jakitea esperientzia jakin baten harira hizkuntza-erabilera *zenbat eta nola aldatu* den. Alde horretatik, gune bakoitzean egin diren neurketen emaitza, errealitatean gune horietan gertatzen den hizkuntza-erabilerarekiko *hurbilpen* modura ulertzen dugu. Baina datu horiek hiru une ezberdinetan modu berean neurtzen dugun neurrian, haien arteko alderaketak badu sendotasuna, eta erabileretan sorturiko aldaketa horiek eta haien atzean egon litezkeen mekanismoak dira, hain zuzen, lan honen aztergai nagusia.

- **Euskara - gaztelania:** beherago ikus daitekeenez, langileek aitortutako hizkuntza-erabilerak “Beti edo ia beti euskaraz” muturretik “Beti edo ia beti gaztelaniaz” muturrera doan bost mailako eskala baten bitartez neurtu dira. Ez dira neurtu, beraz, lankideen artean “beste hizkuntza” batzuetan gertatzen diren harremanak. Horretarako arrazoi nagusiak bi dira: batetik, zazpi esperientziak garatu diren guneen testuinguruan, euskara eta gaztelania ez diren hizkuntzetan izaten diren harremanak -dakigun arte- oso gutxi edo oso puntualak direla. Eta bestetik, lan honen arreta-gune nagusia ez dagoela beste hizkuntza horien erabileran, euskarazko eta gaztelaniazko erabileren artean suertatzen diren dinamiketan baizik.
- **Lankideen arteko ahozko harreman orokorra:** eguneroko lanean, lankideen arteko hizkuntza-erabilera egoera ezberdinetan eman liteke. Egoeren kasuistika zabal hori nolabait laburtzearen, bi bereizketa egin di-

den, gurutzatutako datuen arteko koherentzia altua izan da, eta lankideek aitortutako datu guztiak bere horretan baliatu ditugu analisisetarako. Zehatzago esanda, neurtutako hiru uneetan, bikote bakoitzeko bi lankideek aitortutako erabileren artean koska bat baino gehiagoko alde izan dutenak %10etik behera izan dira (bikoteen %9,59 lehen neurketan, %6,95 bigarreanean eta %6,12 hirugarreanean).

tzakegu: lankideen arteko harreman formalak eta informalak batetik, eta bestetik ahozko harremanak eta idatzizkoak. Esperientzia hauetan, lankideen artean, eguneroko lanean “euskaraz gehiago egitea”z ari garenean, harreman guztiak hartu dira kontuan (ikus gorago *Eusleak, haien jokaera eta gainerakoena* puntua) eta martxan jarri den dinamikaren helburuak ere guztiak hartzen ditu bere baitan. Hizkuntza-jokaera neurtzeko garaian, ordea, egoera zehatzei erreferentzia egitea lehenetsi da, eta hautu horretan lankideen arteko *ahozko harremana* lehenetsi da (hitz egitea), harreman hori formala edo informala den bereizi gabe (hau da, biak barne hartuz). Bestalde, lankideei galdera egin zaienean “pasa den astean” izandako erabileraz galdetu zaie. Jasotako datuak une jakin bateko hizkuntza-erabileraren islatzea da helburua, baina “hitz egitea” nahiko kontzeptu zabala den neurrian, zehaztasuna bilatu dugu, horretarako langileei aste beteko harremanean hitz egin duten guztia mentalki irudikatzea eskatuz.

- **Lankideen arteko biko harremanak:** eguneroko lanean, lankideen arteko harremanak era askotara gertatzen dira. Une batean bi lankide ari dira elkarriketa informalean, bat-batean beste bi lankide elkartzen zaizkie, gero horietako bat bere postura itzultzen da eta hiru geratzen dira... Berdintsu gertatzen da bilerekin ere: badira bi lankideren artekoak, hirukoak, sail osoarenak... Aniztasun horren aurrean ere hautu bat egin da hemen hizkuntza-erabilera neurtzeko garaian: lankide bakoitzak gune horretako gainerako lankideetako *bakoitzarekin duen harremana* hartzea unitate gisa. Edo beste modu batean esateko, bi lankidez osaturiko “bikote” bakoitzaren harremana izatea azterketarako unitatea. Hautu hori eginik, hizkuntza-erabilerari buruzko bi datu sortu ditugu nagusiki: batetik, lankide bakoitzaren hizkuntza-erabilera (hiru une ezberdinetan), eta bestetik gune horretan dauden langile-bikote bakoitzaren hizkuntza-erabilera. Lankide bakoitzaren erabilera kalkulatzeko (adibidez, A lankidea), gainerako lankide guztiek aitortutako datuak baliatu dira. Zehazki, lankideetako bakoitzak “berak niri” atalean A lankideari buruz aitortu duen datua hartu eta lankide guztien batez bestekoa eginik kalkulatu da. Bestalde, A eta B lankideek osaturiko “bikote”aren erabilera kuantifikatzeko, galdetegietan eskuratutako datu guztiak baliatu dira: lau datu zehazki, bi lankideek harreman horri buruz bi norabidetan aitortu dituztenak, horien arteko batez bestekoa eginaz.

Hizkuntza-erabilera kuantifikatzeko eginiko hautu hau oso kontuan hartzekoa da esperientzia hauetan neurtutako datuak irakurtzeko garaian. Izan ere, hainbat egilek nabarmendu duten bezala, lankide guztiek gaztelaniaz gaitasun ona izanik, eta euskaraz gauza bera gertatzen ez denean, binakako harremanetan dugu euskaraz egiteko probabilitaterik altuena;



zenbat eta lankide gehiago elkartu aldiz, aukerak txikituz doaz egungo hizkuntza-errealitatean. Gauzak hala, kontuan hartu behar dugu neurtutako erabilerak “binakako” harreman horiei dagozkiela, eta beraz, modu horretan neurtutako euskarazko erabilerak altuagoak izango direla harreman mota guztiak kontuan hartuta neurtuko genituzkeenak baino. Kasu honetan ere, dena den, modu berean neurtutako hiru unean arteko alderaketan jartzen dugu arreta gehienbat, eta kontuan hartzen dugu neurtzen dugun erabilera horren eta errealitatearen artean nolabaiteko aldea egon daitekeela.

Hautu horiek guztiak eginik, ondorengo errekoadroan duzue hizkuntza-erabileraren neurketak egiteko baliatu dugun galdera eta erantzunak, “Mintzagrama” deitu dugun galdetegian¹³:

Erantzun ondorengo galdera:

“Azken aste honetan, zenbat denbora eman dut hitz egiten *nik lankide honekin?* [*Nik berari*] Eta *berak nirekin?*” [*Berak niri*]

Denbora horiek kontuan hartuta idatzi taulan ondorengo eskalan kasu bakoitzari gehien hurbiltzen den zenbakia. Nola izan da harremana?

- 1) Beti edo ia beti gaztelaniaz
- 2) Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- 3) Bietan berdin
- 4) Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- 5) Beti edo ia beti euskaraz

Izenak	Nik berari	Berak niri
Lankidea 1 (izen-abizenak)		
Lankidea 2		
Lankidea 3		
Lankidea 4		
... / ...		
... / ...		
(esperentzian parte hartu duten lankide guztien izenak)		

¹³ Eranskinetan ikus dezakezue galdetegi horri “Argazkia” ere deitu diogu, esperientzia hauetan hizkuntza-erabilerari buruz hiru “argazki” atera ditugunaren aldetik.

Era honetako galdetegia eta erantzunen eskala hori askotan erabili izan dira hizkuntza-erabilera aztergai duten ikerketetan. Besteak beste, era horretako galdetegia erabili zen bere garaian Kua-drillategi proiektuan¹⁴, eta Arrue Proiektuan ere *Mintzagrama* motako galdetegia erabili izan da¹⁵.

Hizkuntza-erabileraren neurketak egiteko, aipatutako hiru unetan bete dituzte galdetegiok lankideek. Prozesu hori koordinatzailearen bitartez bideratu da, eta hala ziurtatu da lankide bakoitzak bere galdetegia betetzea. Galdetegiak bete diren egunetan lankideren bat falta izan den kasuetan, koordinatzailea arduratu da lankide hori lanera bueltatu bezain pronto datuak lortzeaz. Galdetegia betetzeko moduari dagokionez, bestalde, lankide guztiei eskatu zaie koadro osoa betetzea, hau da, esperientzian parte hartu duten lankide guztiakin izan duten hizkuntza-erabilerei buruzko gelaxkak betetzea.

Hizkuntza-erabileraren neurketak, esan bezala, hiru unetan egin dira. Funtsean, erabilera neurtzeko modua berdina izan da hiruretan, baina galdetegi bakoitzak izan ditu bere xehetasunak. Lehenengo eta hirugarren neurketa egiteko baliatutako galdetegiak berdinak izan dira eta langileei emandako oharrak edo azalpenak baino ez dira aldatzen batetik bestera. Bigarren neurketan aldiz, hizkuntza-erabilera neurtzeko atala berdina da, baina atal horri beste bi gehitu zaizkio; hauek ere laburrak: bata lankideen arteko *Harremanaren maiztasuna* neurtzeko baliatu dena, eta beste bat, non langileei esperientziaren *Balorazio kualitatiboa* egiteko eskatu diegun, bi galdera laburren bitartez. Hiru galdetegi horien xehetasunak azter ditzakezue, hurrenez hurren, *Mintzagrama 1*, *Mintzagrama 2* eta *Mintzagrama 3* izeneko eranskinetan.

Balorazio kualitatiboari dagokionez, bi galdera hauek baliatu dira:

1. Idatzi lerro batean zure inpresio orokorra bi hilabete hauei buruz.
2. Idatzi lerro batean, egitasmoaren diseinua eta tresnak kontuan hartuta, zer gauza aldatuko zenituzkeen edo beste modu batera egingo zenituzkeen.

Harremanaren maiztasuna neurtzeari dagokionez, esperientziak garatu diren gune hauek txikiak eta hurbilekoak diren arren, lankide batzuek besteek baino maizago dute elkarrekin harremana. Aldagai horrek hemen aztergai diren dinamiketan nolabaiteko eraginik ote duen aztertzeari begira, *Mintzagrama 2* galdetegian horri buruz galdetu zaie langileei. Horretarako erabilitako galdera “Zenbat denbora ematen duzu harremanetan zure lankideekin?” izan da, erantzunerako bost aukera emanik (ikus *Mintzagrama 2* eranskina).

14 Ikus Egizabal, Huegun eta Jauregi, 2004.

15 Ikus Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Soziolinguistika Klusterra, 2013.



3.4.4.

Intzidentziak

Orokorrean, esperientzia hauek ongi garatu dira zazpi guneean. *Eusle metodologia* egingarri baloratu da arduradun zein lankideen aldetik, erraz ulertu da eta esperientziaren jarraipenerako irizpideek eta tresnek, oro har, oso ongi erantzun dute. Jarraian zehazten dira funtzionamendu orokor egoki horren baitan izandako intzidentzi aipagarrienak, eta bakoitzari eman zaion erantzuna:

- **“Atsedeen-aldia” ez errespetatzea:** zazpi interbentzioetatik batean gertatu da kasu hau, A gunean hain zuzen, eta intzidentzia garrantzitsua da, proposamen metodologikoaren muinetako bat ukitzen duen neurrian. Proposaturiko esperientzia bi hilabetekoa izan da, zortzi aste *eusle* izendatuekin eta asteroko jarraipenarekin, eta ondoren hiru hilabeteko “atseden-aldia” antolaketa formalik gabekoa. Esperientziak garatu diren guneeetako batean, ordea, bi hilabeteen amaieran baloratu zen bi hilabeteko dinamika emankorra izan zela lankideen artean euskarazko harreman berriak sortzeko eta finkatzeko, eta “atseden-aldiak” lorpen horietan atzera egitea ekar zezakeela. Hori horrela, gune horretako langile eta arduradunek erabaki zuten, Aldahitz ikerketa-taldeak proposaturikoaren aurka, atsedetik ez egitea, bederatzigarren astetik aurrera ere *eusle* izendatuekin eta asteroko berrespen-galdetegiarekin jarraitzea¹⁶. Horrek A gunearen esperientzia bereizi bihurtzen du datuak irakurtzeko garaian: gainerako sei esperientzien kasuan hizkuntza-erabileraren bigarren eta hirugarren neurketen artean jarraipenik eta *eusle* izendaturik egon ez den artean, A gunean egon dira, eta hori kontuan hartu behar da gune horren eta gainerakoen hizkuntza-erabileraren bilakaera datuak aztertzean.
- ***Eusle*en hizkuntza-araua betetzeko zailtasunak:** bigarren intzidentzia hau ere *Eusle metodologiaren* muinarekin loturikoa da. Esperientzia hauetan *eusle* aritu diren lankideek zortzi astez arau adostu baten ardurak izan dute, talde-erronka bat (lau aste *eusle* talde batek, eta hurrengo lauetan beste batek). Baina, zer egin dena delakoagatik arau hori bete ezin bada? Araua betetzen zen edo ez jakiteko bidea asteroko berrespen-galdetegiak izan dira. Horietan lankideek aitortutako “betetze-mailak” %80-85etik beherakoak izan diren kasuetan, pausoak eman dira arau hori betetzea erraztu dezaketen moduak bilatzeko. Pauso horiek, ikerketa-taldearen eta

¹⁶ Zortzigarren astetik aurrerako jarraipen hori auto-eratu izan zen, Aldahitz-eko ikerketa-taldearen parte hartzerik gabekoa.

guneko koordinatzailearen artean eman dira, eta, funtsean, bi urratsetan garatu dira:

- Kasuan kasuko *eusle*arekin harremanetan jarri eta eskatu zehazteko esaldi batean edo bitan non duen zailtasunik handiena jarritako hizkuntza-araua %100ean betetzeko.
- *Eusleari* galdetzea zein laguntza zehatz eskatuko liekeen guneko lankideei zailtasun hori(ek) gainditzeko.

Informazio hori jasota eman dira hurrengo pausoak. Kasu batean, beharrezkotzat jo zen guneko lankide guztiekin bigarren bilera bat egitea. Gainerako kasuetan, berriz, koordinatzaileak berak lankide batekin edo bestearekin izandako elkarrizketa laburretara edo bidalitako mezuetara mugatu dira emandako pausoak, beti ere, ahal zen neurrian ikerketa-taldeko irizpideak jarraituz.

- ➔ **Asteroko berrespen galdetegia betetzeko zalantzak:** asteroko galdetegietan lankide guztiek eusle ari zirenen arauaren “betetze-maila” baloratu dute, hiru aukeretako bat markatuz (bai/erdipurdi/ez). Hainbat kasutan zalantzak izan dituzte lankideek erantzuteko orduan. Ikerketa-taldek, koordinatzaileen bitartez eman zaizkie argibideak halakoetan lankideei (irizpideak eta adibideak). Hala ere, erabilitako eskalak sinpletasunaren irizpidea betetzen duen arren, behar bada egokiago izan daiteke eskala zehatzago bat erabiltzea ebaluazio horretarako (bost mailakoa, adibidez, edo izan liteke ere otik 10erako eskala bat).
- ➔ **Lankideen bajak eta lankide berriak:** esperientzia hauen ezaugarrietakoa bat da ongi definituta egon behar dela zein lankide diren parte hartzen dutenak eta zein ez. Horretarako, eguneroko funtzionamenduan euren arteko harreman naturala maiz duten sailak hautatu dira. Esperientziekin iraun duten bi hilabeteetan zehar, ordea, kasu batzuetan lankideen aldaketak egon dira guneko horietan: bajak eta lankide berrien inkorporazioak. Eta horrek zuzenean eragiten dio esperientziari. Halako aldaketen aurrean, hauek izan dira erabilitako irizpideak. Baja luzeak izan diren kasuetan, lankide horien datuak ez dira kontuan hartu analisisetan. Hau da, gunekoetako hizkuntza-erabilera aztertze soilik baliatu dira hiru neurketa-uneetan galdetegiak bete dituzten lankideen datuak. Bestalde, lankide berriak inkorporatu direnean esperientziak martxan egonik, irizpidea honakoa izan da: koordinatzaileak lankide berriari azaltzea nolako esperientzia dagoen martxan gunean, zein diren irizpideak eta funtzionamendua, eta horretan parte hartzeko prestutasunaz galdetzea (gainerako lankideekin hasierako erabakian egin zen moduan). Gerta zitekeen, lankide berri



bat sartu, hark esperientziaren aurkako jarrera nabarmena izan eta talde osoaren erabakia berritu behar izatea. Zazpi esperientzia hauen kasuan ez da halakorik gertatu: bidean sartu diren lankide berriak ados agertu dira esperientziekin eta kide bat gehiago bezala hasi dira asteroko berrespen-galdetegiak betetzen.

- **Zalantzak mintzagramak betetzeko garaian:** oro har, oso ongi jarraitu dira zazpi guneetan galdetegi horiek betetzeko irizpideak. Intzidentziarik aipagarriena zenbait lankideren gelaxkak hutsik uztearena izan da (zenbait kasutan gertatu da). Halakoetan, ia beti lankideen azalpena izan da hutsik utzitako lankide horrekin harreman gutxi duela, edo aste osoan ez duela hitz egin. Halakoetan jarraitu den irizpidea izan da koordinatzailearen bidez lankideari galdetegia osatzeko eskatzea eta kasurik gehien-gehienetan hori arazorik gabe lortu da.

3.5.

Ikerketaren fitxa teknikoa eta lantaldea

Ikerketaren izena

Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan

Iraupena

2013ko otsailetik 2014ko urrira

Egilea (erakundea)

Soziolinguistika Klusterra

Ikerlariak

Pello Jauregi (EHU) eta Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra).

Ikerketaren Garapen Taldea

AHIZE-AEK (Nerea Ibarluzea), Elhuyar Aholkularitza (Oihana Garcia, Ana Labaka eta Ainara Ibañez), Emun (Idoia Illarramendi, Elias Zumalde eta Josune Urbiet), Eusko Jaurlaritzako HPS (Jon Aizpurua eta Mari Jose Arrieta), Hernaniko Udala (Malores Etxeberria), EHU (Pello Jauregi) eta Soziolinguistika Klusterra (Ibon Usarralde eta Pablo Suberbiola).

Finantziak

Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 2013an eta 2014an.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza (2014)


Zarauzko Udalaren ekarpen ekonomikoa (2014)

Soziolinguistika Klusterraren ekarpena (2013 eta 2014)

Harremanetarako

Soziolinguistika Klusterra. <p.suberbiola@soziolinguistika.eus>

4.



EMAITZA OROKORRAK ETA DATUEN IRAKURKETA

4.1.

Abiapuntuko egoera

Aztergai dugun unibertsoan 78 lagun ageri dira zazpi lantokitan edo gunetan banaturik (ikus 4.1. taula). Lantoki horien tamainari erreparatuz gero, bi multzo antzematen ditugu: lau lantoki ertain (12-15 lankide bitartekoak), eta hiru lantoki txiki (7-9 lankide bitartekoak).

4.1. taula: gune bakoitzeko lankide kopurua

<i>Lantokiak</i>	<i>Kide kopurua</i>	<i>%</i>
A gunea	12	15,4
B gunea	8	10,3
C gunea	14	17,9
D gunea	7	9
E gunea	15	19,2
F gunea	9	11,5
G gunea	13	16,7
Guztira	78	100

Lantokien tamainak erraztu du, oro har, langileen arteko harremana maiz samarrekoa izatea (ikus 4.2. taula). Harremanen %14,7a besterik ez da harreman txikia edo oso txikia izan. Gainerako %85,3a harreman tarteko, nahiko edo handikoei dagokie.

4.2. taula: lankideen arteko harremanaren maiztasuna, guneka (ehunekotan)

<i>Lantokiak</i>	<i>Oso txikia</i>	<i>Txikia</i>	<i>Tartekoa</i>	<i>Nahikoa</i>	<i>Handia</i>	<i>Guztira</i>
A gunea	0	8,5	35,6	32,2	23,7	100
B gunea	0	0	10,7	25	64,3	100
C gunea	1,1	6,7	23,3	34,4	34,4	100
D gunea	0	9,5	14,3	19	57,1	100
E gunea	2,9	14,3	30,5	32,4	20	100
F gunea	0	5,6	30,6	38,9	25	100
G gunea	6,4	28,2	28,2	16,7	20,5	100
Guztira	2,2	12,5	27,1	29,3	29	100

Hizkuntza erabileraren lehen neurketan –esperientzia hasterakoan egina– %59,4koa ageri da euskararen erabilera ikertutako unibertso osoan, banakako guztien hizkuntza-jokaeraz batez beste eginda (ikusi 4.3. taula). Datu horrek adieraziko luke tarteko hizkuntza-egoera batetik abiatu dela egitasmoa, betiere euskararen erabilera gogoan hartuz gero. Hala ere, datuak guneka begiratuta, argi antzematen da bi multzotan bana daitekeela unibertso osoa: batetik, euskararen erabilera altu batetik abiatu direnak –hiru lantokik zegoeneko 71,4 eta 79,8 bitarteko neurria izan dute hasieran bertan–, eta bestetik, euskararen erabilera tarteko-txiki batetik abiatutakoak –lau lantoki zeuden horretan, 33 eta 49,4 bitarte batean–.

4.3. taula: gune bakoitzeko euskarazko erabileraren bilakaera, neurtutako hiru uneetan

<i>Lantokiak</i>	<i>Erabilera 1 (%)</i>	<i>Erabilera 2 (%)</i>	<i>Erabilera 3 (%)</i>	<i>Aldea 1 (+/-)</i>	<i>Aldea 2 (+/-)</i>	<i>Aldea 3 (+/-)</i>
A gunea	74,1	85,5	87,9	+ 11,4	+ 2,3	+ 13,8
B gunea	45,8	67	58,2	+ 21,2	- 8,8	+ 12,4
C gunea	79,8	89,6	86,5	+ 9,7	-3	+ 6,7
D gunea	44,6	85,2	63,7	+ 40,5	-21,5	+ 19,1
E gunea	71,4	83	80,3	+ 11,6	-2,8	+ 8,8
F gunea	49,4	68,8	62,4	+ 19,4	-6,3	+ 13,1
G gunea	33	61,8	43,8	+ 28,8	-18	+ 10,8
Guztira	59,4	77,9	70,7	+18,5	-7,2	+11,3

Hizkuntza-jokaeraz hitz egiterakoan –eta etengabe ari gara horretaz lan osoan zehar– beti go-goan hartu behar dugu neurri hori binakako harremanei buruzko datuetatik eskuratu dugula. Hortaz, biko harremanek ematen duten balioa “talde osoko” neurritzat hartu dugu, jakin arren eragiketa hori ez dela berez guztiz zuzena, zeren talde osoko hizkuntza-egoerak, biko harremanez gain, hiruko, lauko eta gehiagoko hizkuntza harremanak kontuan hartu beharko bailituzke. Izan ere, biko harremanetan erabiltzen den hizkuntza-araua eta hizkuntza-jokaera ez da beti modu



bertsuan aplikatzen hiruko, lauko edo gehiagoko taldeetara, eta, oro har, euskarazko erabilera altuagoa izango da biko harremanei soilik erreparatzen badiegu, mota guztietakoei erreparatzen badiegu baino.

Aztergai dugun unibertso osoan 417 bikote neurtu ahal izan ditugu. Haietatik %42,9k “beti edo ia beti euskaraz” egiten zutela aitortu dute jada lehenengo neurketan (ikus 4.4. taula). Hortaz, bazuten haiek, esperientzia abiatu aurretik ere, euskaraz egiteko ohitura.

4.4. taula: bikoteen hizkuntza kategoriak esperientziaren hasieran (ehunekotan)

<i>Lantokiak</i>	-	<	=	>	+	<i>Guztira</i>
A gunea	10,2	6,8	6,8	8,5	67,8	100
B gunea	10,7	25	17,9	25	21,4	100
C gunea	1,1	10	7,8	18,9	62,2	100
D gunea	9,5	42,9	23,8	4,8	19	100
E gunea	9,5	10,5	3,8	30,5	45,7	100
F gunea	13,9	36,1	11,1	8,3	30,6	100
G gunea	30,8	29,5	14,1	7,7	17,9	100
Guztira	12,2	18,2	9,6	17	42,9	100

Esan liteke, orduan, esperientziaren eraginkortasuna aztertze aldera, gure azter-unibertsoaren gainerako %57,1a dugula xede-talde nagusia, zeren haiek izango bailirateke euskarazko erabilera hobetzekotan aurrerapenak eman beharko zitzaizketenak. Xede-talde honek nahiko banaketa homogeneoa izan du hizkuntza kategorian guztietan:

4.5. taula: xede-taldearen banaketa hizkuntza kategoriatan

	(%)
(-) Beti edo ia beti gaztelaniaz	12,2
(<) Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	18,2
(=) Bietan berdin	9,6
(>) Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	17,0
Guztira	57,1

Esperientziaren abiapuntu nagusienetako bat eusleen izendapena izan da. Datuen argitan, ikus daiteke kideen %42,3k eusle zeregina bete duela esperientzian zehar, eta %57,7a zeregin horretatik libre ibili dela. Kopuru altua, inondik inora ere, eta, jakina, horrek ekarri du berekin bikote ugariaren eusleren baten presentzia ziurtatzea. 4.6. taulan ikus daitekeenez, bikote guztien artetik %52,5ek

izan du inoiz eusle bat tarteko¹, %17k bi eusle izan ditu, eta %30,4k ez du izan eusle bakar bat bera ere esperientzia osoan zehar.

4.6. taula: bikoteen sailkapena, lehenengo aldagairen arabera:
bikotean euslea izan ala ez

Tipologia	Bikote kopurua	%
E+E	71	17,0
E+A	219	52,5
A+A	127	30,4
Guztira	417	100

E+E : bi kideak eusle izan dira

E+A: kide bat eusle izan da eta bestea ez (kide “arrunta”)

A+A: ez bata ez bestea ez dira eusle izan, hots: biak kide “arruntak”

Eusle gisa jardun duten kideek, batez beste, %66,8koa zuten euskararen erabilera hasieran, lehenengo neurketa egin denean. Eusle zeregina bete ez dutenek, ordea, batez beste %55,4koa zuten euskararen erabilera hasieran (ikus 4.7. taula). Ez dirudi, beraz, oso hizkuntza-jokaera desberdina zutenik beren artean eusleek eta kide arruntek (hots, eusle gisa ari izan ez direnek), ez behinik behin eusleak izendatu diren garaian.

4.7. taula: eusle izan direnen eta izan ez direnen batez besteko erabilera neurketa bakoitzean

Tipologia	Erabilera 1 (%)	Erabilera 2 (%)	Erabilera 3 (%)	Aldea 1 (+/-)	Aldea 2 (+/-)	Aldea 3 (+/-)
Ez da euslea izan	55,4	72,4	67,2	+17	-5,2	+11,8
Euslea izan da	66,8	85,4	75,4	+18,6	-10	+8,6
Guztira	59,4	77,9	70,7	+18,5	-7,2	+11,3

Eusle izan ala ez izan faktore esanguratsua izan da gure diseinuan. Horregatik, bikoteen kategorizazio bat egiteko asmoa genuela, faktore hori aintzat hartu dugu aurrena. Bigarrenik, begiratu izan dugu kideek lantokian jada norbaitekin euskaraz aritzeko ohitura zuten ala ez zuten, pentsatzekoa baita honezkero norbaitekin euskaraz aritzeko ohitura duenak euskarazko ohiturarik inorekin ez duenak baino samurragoa aurkituko duela bidea beste norbaitekin erdaratik euskarazko ohiturara igarotzeko. Arestian aipatu izan dugu bikote harreman guztien %42,9a “beti edo ia beti euskaraz” kategoriari zegokiola, eta, besteak beste, horrek esan nahi du kide ugari

¹ Eusle hori esperientziaren lehen hilabeteen ala bigarren hilabeteen aritu izan da, gehienetan. Hainbat kasutan, bi hilabetetan ere izan da eusle pertsona bera.



bazekitela zer den norbaitekin euskara hutsez jardutea, hots, hizkuntza esperientzia horren jabe bazirela.

Lehenengo faktorea E (euslea) eta A (arrunta) hizkiekin berezi dugu. Bigarren faktorea, 5 (badu “beti edo ia beti euskaraz” harremana norbaitekin, esperientzia abiatzerakoan) eta 0 hizkiekin (ez du inorekin “beti edo ia beti euskaraz” harremanik, esperientzia abiatzerakoan). Bikotearen kide bakoitza aldagai bietako hizki banarekin izendatuta, honako tipologia hau ageri zaigu gure azter-unibertsoaren hasierako argazki gisa:

4.8. taula: bikoteen tipologia esperientziaren hasieran

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
E5-A5	141	33,8
A5-A5	76	18,2
E5-E5	54	13,0
Azpiguztira	271	65,0
E5-A0	49	11,8
A5-A0	41	9,8
E0-A5	26	6,2
E5-E0	16	3,9
Azpiguztira	132	31,7
A0-A0	10	2,4
E0-A0	3	0,7
E0-E0	1	0,2
Azpiguztira	14	3,3
Guztira	417	100

Kategoria guztiak bikote kopuruaren arabera sailkatzerakoan, berezko ordenamendu bat ageri da, zeinak 5-0 aldagaia (norbaitekin “beti edo ia beti euskaraz” harremana izan ala ez izan) baitu oinarri. Horren arabera, hiru multzo bereizten dira. Lehenean, bikotearen bi kideek 5 osagaia dute, hots, batak zein besteak badakite zer den lankideren batekin “beti edo ia beti euskaraz” egitea. Unibertso osoaren %65 dira era honetako bikoteak, eta haien artean E5-A5 azpimultzoa nagusitzen da, non kideetako bat eusle gisa ari izan den esperientzian zehar, eta bestea kide arrunta izan den. Bigarren multzoan, bikotearen kide batek 5 osagaia du, eta besteak ez (0). Unibertso osoaren %31,7 ordezkutzen dute gisa honetako bikoteek. Hirugarren multzoan, bikotearen bi kideek 0 osagaia dute ezaugarri, eta, hortaz, ez dute beren baitan 5 osagaia ezagutzen. Unibertso osoaren %3,3 batzen dute halakoek.

4.2.

Hizkuntza bilakaera

Hizkuntza bilakaera neurtzerakoan, euskararen erabileraren adierazlean zein aldaketa egon diren aztertu dugu lan honetan. Zehazki, aldaketa horren zenbatekoa eta norabidea (hazkunde negatibo ala positiboa). Era berean, aldaketa horretan ustez eragin duten faktoreen azterketa sartu beharko litzateke, baina hori hurrengo atalean egingo dugu. Hortaz, oraingoan mugatuko gara eusle sistemaren aplikazioak euskararen jokoeran eragin dituen aldaketen neurria eta norabidea ahalik eta argien azaltzera. Honek, era berean, eman beharko luke egitasmoaren emankortasunaren berri.

Modu ugari ditugu bilakaera hori ilustratzeko, ugari baitira kontuan har daitezkeen aldagaiak eta tipologiak.

Hala ere, eta hasteko, berriz ekarriko ditugu gogora gure azter-unibertso osoko hizkuntza bilakaeraren datuak, azaltzeko neurketatik neurketara zein aldaketak eman diren euskararen erabilerari dagokionez. Datu horiek ikuspeirik orokorrera ematen baitute, aukeratu ditugu aurrena.

Gogora dezagun hiru neurketa egin ditugula prozesuan zehar. Lehena (erabilera 1), esperientzia hasterakoan. Bigarrena (erabilera 2), bi hilabeteko esperientzia bukatzerakoan. Eta, hirugarrena eta azkena (erabilera 3), esperientzi formal amaitu eta hiru hilabetera.

Era berean, eragiketa batzuk aplikatu ditugu neurketa horietan, kalkulatzeko zenbateko aldaketa egon den, euskararen erabilerari dagokionez, esperientzia garaian (aldea 1: lehenengo neurketatik bigarreneara dagoen tartea), atsedeen garaian (aldea 2: bigarren neurketatik hirugarreneara dagoen tartea), eta, azkenik, egitasmo osoan zehar (aldea 3: lehenengo neurketatik hirugarreneara dagoen tartea).

4.9. taula: gune bakoitzeko euskarazko erabileraren bilakaera, neurtutako hiru uneetan


Lantokiak	Erabilera 1 (%)	Erabilera 2 (%)	Erabilera 3 (%)	Aldea 1 (+/-)	Aldea 2 (+/-)	Aldea 3 (+/-)
A gunea	74,1	85,5	87,9	+ 11,4	+ 2,3	+ 13,8
B gunea	45,8	67,0	58,2	+ 21,2	- 8,8	+ 12,4
C gunea	79,8	89,6	86,5	+ 9,7	-3,0	+ 6,7
D gunea	44,6	85,2	63,7	+ 40,5	-21,5	+ 19,1
E gunea	71,4	83,0	80,3	+ 11,6	-2,8	+ 8,8
F gunea	49,4	68,8	62,4	+ 19,4	-6,3	+ 13,1
G gunea	33,0	61,8	43,8	+ 28,8	-18,0	+ 10,8
Guztira	59,4	77,9	70,7	+18,5	-7,2	+11,3



Datuek adierazten dutenez, esperientzia zuzenaren ondorioz %18,5 puntutan gora egin du euskararen erabilerak lantokiko biko harremanetan. Atsedean garaian –esperientzia zuzen eta formal oro alde batera utzita zegoen garaian– %7,2 puntutan egin du behera euskararen erabilerak. Hala ere, tarteko igoera ondorengo jaitsiera baino handiagoa izan denez gero, egitasmo osoan zeharreko aldaketak erakusten duen azken balantzea positiboa da %11,3 puntutan.

Aparteko iruzkina merezi du A gunek, euskararen erabilerari dagokionez, atsedean garaian ere, gora egin izana, gainerako gunek guztietan behera egiten duen bitartean. A gunekoek euren kabuz eta euren erabakiz jarraitu dute euslearen sistema aplikatzen atsedean garaian ere, esperientzia formala amaituta zegoen arren. Horrek azalduko luke, seguru asko, atsedean garaian euskararen erabileran behera egin ez ezik, gora egin izana².

4.1. grafikoa: unibertso osoaren hizkuntza bilakaera



Orain arte emaniko datuek gure azter-unibertso osoa hartu dute barne, eta, hortaz, irudirik orokorra eman digu. Hala ere, azter-unibertso osoari begiratu gabe, azpimultzo berezi bati soilik begiratu bagenio, are nabariagoak lirateke hizkuntza-aldaketaren datuak. Azpimultzo berezi honi *xede-taldea* deituko diogu, bai orain bai aurrerantzean ere, eta bertan bakarrik sartzen dira euskarazko ohitura (“beti edo ia beti euskaraz”) eskuragai zuten kideak, hots, lehenengo neurketan euskaraz egiteko ohiturarik ez zutela aitortzen zuten kideak. Beraz, *xede-taldea* kontzeptu operatibo hutsa da, datuen analisisia era argian erakusteko balio duena. *Xede-taldea* ez da inondik inora ere esperientziari dagokion kontzeptua, *Eusle metodologiak* talde osoari eragiten baitio era berdinean, kideak hizkuntza multzo batekoak izan ala bestekoak izan. Beraz, *xede-taldea* kontzeptuaren bidez, erraz dugu kalkulatzeko zenbatekoa aldea dagoen azpimultzo horrek hasieran zuen hizkuntza erabilera mailaren eta eskalako mailarik altuenaren artean (zein baita: “beti edo ia beti

² Ikus “intzidentziak” 3.4.4. atalean

euskaraz”). Alde horri “*hobetzeko tartea*” esan diogu. Hobetzeko tarte horrekiko kalkulatu dugu gero zenbat egin duen aurrera euskararen erabilera esperientziaren ondorioz eta atsedean aldia igaro ondoren ere. Emaitzak, hurrengo taulan:

4.10. taula: Xede-taldearen hobetzeko tartea eta harekiko aurrerapena

<i>Lantokiak</i>	<i>Hobetzeko tartea hasieran (erabilera1, %)</i>	<i>Hobe zitekeenarekiko aurrerapena (erabilera2, %)</i>	<i>Hobe zitekeenarekiko aurrerapena (erabilera3, %)</i>
A gunea	25,9	44,0	53,3
B gunea	54,2	39,1	22,9
C gunea	20,2	48,0	33,2
D gunea	55,4	73,1	34,5
E gunea	28,6	40,6	30,8
F gunea	50,6	38,3	25,9
G gunea	67,0	43,0	16,1
Guztira	40,6	45,8	27,8

Datu hauen argitan, esan daiteke xede-taldeak hizkuntza-egoera aldatzeko zuen tartea 40,6 puntukoa zela. Era berean, tarte horren ia erdia (45,8) aldatu dela bi hilabeteko esperientzia zuzenaren ondorioz. Eta, atsedean garaian aldaketa horrek zertxobait atzera egin duen arren, azkenik alda zitekeenaren 27,8a aldatu dela era finko samarrean.

Aurreko azterketa guztia kideen banakako emaitzetan oinarritu da. Hala ere, aukera dugu datuak beste era batera aztertzeko, gogoan harturik binakako datuak. Biko harremanak zenbatuta jakin dezakegu zein bikote mota –hizkuntzari dagokionez– zeuden eta zein hizkuntza-bilakaera egin duten. Guztira, 417 bikote harreman erregistratu ditugu, eta haiek tipologietan sailkatze aldera, honako bost kategoriatan haiek sortu ditugu:

Aspaldiko euskarazko ohiturari eutsi:

Hasieran (erabilera1an) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon eta amaitu eta hiru hilabetera ere (erabilera3n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian jarraitu.

Aspaldiko euskarazko ohitura zertxobait jaitsi:

Hasieran (erabilera1an) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon eta amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3n) “euskaraz erdaraz baino gehiago” kategorian egon.

Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu:

Hasieran (erabilera1an) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon eta amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon.



Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu:

Hasieran (erabilera lan) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon eta amaitu eta hiru hilabetera berriz ere (erabilera3n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon.

Euskarazko ohitura berria lortu ez:

Hasieran (erabilera lan) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon eta amaitu eta hiru hilabetera ere (erabilera3n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon.

Hurrengo taulara ekarri ditugu datuak. Gure azter-unibertso osoa tipologia honen arabera nola banatu den ikus daiteke bertan.

4.11. taula: bikoteen sailkapena, “euskarazko ohitura” aldagaiaren arabera

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Aspaldiko euskarazko ohiturari eutsi	171	41,0
Aspaldiko euskarazko ohitura zertxobait jaitsi	8	1,9
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	51	12,2
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	40	9,6
Euskarazko ohitura berria lortu ez	146	35,0
Galdutako datua	1	0,3
Guztira	417	100

Datu hauen argitan, ikusten da bikote-kopuru handi batek (%41ek) jada hasieratik bertatik zuela euskaraz aritzeko ohiturarik eta esperientzian zehar ere horri eutsi diola. Bigarrenik, ikusten da kopuru handi batek ere (%35ek) ez duela lortu esperientzian zehar euskarazko ohituraren mailaraino iristea, nahiz eta erabileran aurrerapen nabariak egin (ikusi 4.15. taula, beherago). Hirugarrenik, bikote-kopuru esanguratsu batek (%21,8k) lortu du esperientzian zehar euskarazko ohituraren mailaraino iristea, nahiz eta haietako batzuek (%12,2k) ohitura horri eutsi dioten esperientzia bukatuta ere eta beste batzuek (%9,6k) ez dioten maila horri eutsi esperientzia bukatu eta gero. Hala ere, azken hauek euskarazko ohitura ez finkatu arren, esperientziaren hasieran baino nabarmen gehiago erabiltzen dute euskara azken neurketan (ikusi 4.11. taula)

Banakako azterketan egin dugun bezala, bikotekako azterketa honetan ere, unibertso osoari begiratu beharrean (417 bikote), xede-taldeari soilik begiratuko bagenio (237 bikote), konturatuko ginateke aldaketaren proportzioak askoz ere nabariagoak direla. Datuok 4.12. taulara ekarri ditugu, eta berriz kalkulatu ditugu proportzioak. Hona hemen:

4.12. taula: xede-taldearen sailkapena, “euskarazko ohitura” aldagaiaren arabera

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	51	21,5
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	40	16,9
Euskarazko ohitura berria lortu ez	146	61,6
Guztira	237	100

Datuek adierazten dutenez, xede-taldearen %21,5ek lortu du “beti edo ia beti euskaraz egitea” (euskarazko jokaera osoa) eta jokaera barneratua izatea egitasmoaren eragin zuzena bukatuta-koan ere (euskarazko ohitura). Xede-taldearen kopuru esanguratsu batek (%16,9k) lehenengo zatia lortu du: esperientzia zuzenaren eraginez “beti edo ia beti euskaraz egitea”, baina ez du lortu jokaera horri eustea esperientzia zuzena amaitzerakoan. Azkenik, xede-taldearen %61,6k ez du lortu “beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza kategoriara iristea, ez esperientzia zuzenaren aldi- ez atseden garaian ere.

Euskarazko ohitura bigarren neurketan eskuratu eta hirugarrenean galdu dutenek, atzera zertxobait egin arren, egitasmoaren balantze orokorrean (hasieratik bost hilabetera: “aldea3” adierazlea) 15 puntuko aurrerapena egin dute euskararen erabilerari dagokionez (ikusi 4.13. taula).

Hala berean, euskarazko ohitura sekula eskuratu ez dutenek ez diote horregatik aurrerapenari uko egin. Euren balantze orokorrek ere (hasieratik bost hilabetera: “aldea3” adierazlea) 15 puntuko aurrerapena iragartzen du (ikusi 4.13. taula).

4.3.

Alderik esanguratsuenak xede-taldeko azpimultzoen artean

Lehenengo desberdintasun esanguratsua abiapuntuko hizkuntza-egoerari lotuta ageri zaigu. Dirudenez, euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteek zuten, xede-taldeko gainerako azpimultzoekin alderatuta, hizkuntza-egoerarik altuena abiapuntuan. %67,5 puntukoa zen euskararen erabileraren batez besteko neurria lehen neurketan. Puntuazio hori “euskaraz erdaraz baino gehiago” hizkuntza kategoriari dagokio, batez beste. Beraz, koska bat besterik ez zuten falta “beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza kategoriara iristeko (kategoria hori identifikatu dugu guk “euskarazko ohitura” kontzeptuarekin). Berriz, euskarazko ohitura lortu arren galdu egin dutenak hizkuntza-egoera baxuagotik abiatu dira. Zehazki, 52,5koa zen euren euskararen erabilera, batez beste, zeina “bietan berdin” hizkuntza kategoriari baitzegokion. Hortaz, bi koska gainditu beha-



rrean ziren “beti edo ia beti euskaraz” kategoriara iristeko. Azkenik, euskarazko ohiturarik lortu ez dutenek hiruetatik hizkuntza-egoera baxuena zuten hasieran; hots, %25a, zeina “gaztelaniaz euskaraz baino gehiago” hizkuntza kategoriari baitzegokion. Ondorioz, hiru koska zuten aurretik “beti edo ia beti euskaraz” kategorია erdiesteko.


4.13. taula: xede-taldearen hizkuntza bilakaera, “euskarazko ohitura” aldagaiaren arabera sailkatuta

<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera 1</i>	<i>Erabilera 2</i>	<i>Erabilera 3</i>	<i>Aldea 1</i>	<i>Aldea 2</i>	<i>Aldea 3</i>
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	67,5	97,5	100	+30,0	+2,5	+32,5
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	52,5	100	67,5	+47,5	-32,5	+15,0
Euskarazko ohitura berria lortu ez	25,0	50,0	40,0	+25,0	-10,0	+15,0
Guztira	37,5	67,5	57,5	+30,0	-10,0	+20,0

Gauzak horrela, euskarazko ohitura lortu eta finkatu dutenek koska bat egin dute aurrera, esperientziaren ondorioz, eta horri eutsi diote atsedean garaian ere. Euskarazko ohitura lortu eta galdu dutenek bi koska aurrera egitea lortu dute esperientziari esker, baina ez dute lortu hizkuntza-jokaera berria egonkortzea atsedean garaian, eta, ondorioz, koska bat atzera egin dute. Euskarazko ohitura lortu ez dutenek urruti zeukaten, nonbait, “beti edo ia beti euskaraz” maila (hiru koska gainditu beharra), eta, esperientziari esker, koska bat aurrera egin dute, eta baita atsedean garaian zehar hizkuntza kategorია berriari eutsi ere.

Esan daiteke, hortaz, esperientziaren garaian hizkuntza-jokaera gehien aldatu duen multzoak berak -euskarazko ohitura lortu eta galdu dutenak- izan duela gero, atsedean garaian zehar, atzerapen handiena ere. Haiei dagokie, beraz, bilakaerarik gorabeheratsuena. Ausartuko ginатеke esaten, ezen esperientziak ahalmena izan duela bi kosketako hizkuntza aldaketak sorrarazteko (aldaketa handia, beraz), baina ez, ordea, aldaketa handi hori denboran zehar irauarazteko.

4.2. grafikoa: xede-taldearen hizkuntza bilakaera



Bigarren bereizgarriak xede-taldearen azpimultzoen osaketara garamatza zuzen-zuzenean. Azpimultzorik arrakastatsuen hartzen dugunean; hots, euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteak, joera argia ikusten dugu. Batetik, 5+5 tipologia nagusitzen da haien artean: bikoteen %68,6. Irakurketa era honetara egin genezake: euskarazko hizkuntza ohitura lortu eta finkatu dutenek aurretik ere bazuten beste lankideren batekin edo batzuekin euskarazko ohitura finkatua. Hortaz, bikote berrietara zabaldu dute hauek, egitasmoaren bultzadapean, aurretik beste bikote batzuetan horrezkero zuten hizkuntza-jokaera. Nolabait, euskarazko harremanen sareak zituen hainbat hutsune “josi” eta “ehundu” egin dira honi esker. Bestetik, E+A tipologia gailentzen da: %74,5. Eusle baten eta kide arrunt baten arteko bikote hauek izan dira, beraz, nagusi euskarazko ohitura lortu eta finkatu dutenen artean. Nahikoa izan da eusle baten bultzada bikotearen hizkuntza-egoera aldatzeko.

4.14. taula:
xede-taldearen azpimultzoak, inorekin euskarazko ohiturarik izan/ez izan osagaiaren arabera

<i>Tipologia</i>	<i>Ohitura lortu eta finkatu</i>	<i>Ohitura lortu eta galdu</i>	<i>Ohitura lortu ez</i>	<i>Guztira</i>
5+5	68,6	55,0	23,3	38,4
5+0	31,4	45,0	67,1	55,7
0+0	0	0	9,6	5,9
Guztira	100	100	100	100

4.15. taula: xede-taldearen azpimultzoak, euslea bai/ez osagaiaren arabera

<i>Tipologia</i>	<i>Ohitura lortu eta finkatu</i>	<i>Ohitura lortu eta galdu</i>	<i>Ohitura lortu ez</i>	<i>Guztira</i>
E+E	13,7	35,0	13,0	16,9
E+A	74,5	60,0	45,9	54,4
A+A	11,8	5,0	41,1	28,7
Guztira	100	100	100	100

Multzorik arrakastatsuenaren aurrean, gainerako biek gero eta nabarmenago galtzen dute 5 osagaiaren presentzia. Euskarazko ohitura lortu eta galdu duten bikoteen artean berdintzen dira 5+5 eta 5+0 kategoriak. Eta, horrenbestez, euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteen artean argiro nagusituko da 5+0 kategoria (%67,1)

Era berean, euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikoteen E+A joera beheraka etorrriko da multzotik multzora. Ia 15 puntu jaisten da kategoria horren presentzia euskarazko ohitura lortu eta galdu duten bikoteen artean. Eta, aldi berean, joera horren ahultzearekin batera, kopuru esanguratsu batek (%35k hain zuzen ere) E+E kategoriari helduko dio, beste multzoetakoek baino irmoago, zalantzarik gabe. Bikote berean bi eusle izateak azal lezake zergatik izan den multzo honetan hizkuntza aldaketarik handiena esperientziaren garaian, baina, baita, zergatik egin duen



behera ere nabarmen eusle sistema bertan behera utzitakoan. Badirudi E+A bikoteek hizkuntza aldaketa lasaiago eta egonkorragoa ekarri dutela E+E bikoteek baino. Azken hauek aldaketa bortsitzaileak ekarri bai, baina egongaitzagoak, nonbait. Azkenik, euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteen artean –hirugarren azpimultzoa– E+A kategoria A+A kategoriarekin parekatu egin da, eta, horrela, nabarmen ahuldu da E osagaiaren (eusleen) presentzia eta eragina euren harremanetan.

Joera orokor horiek, beren artean nahasterakoan, kasuistika aberatsa sorrarazten dute. Sakabana-keta eta oparotasun hori beheko taulan ikus daiteke. Era guztietako kasuak ikus daitezke kutxatxo bakoitzean, baina ugaritasun horrek ez liguke joera orokorren ikusmoldea gehiegi lausotu behar.

4.16. taula: xede-taldearen azpimultzoak, tipologiaka

<i>Tipologia</i>	<i>Ohitura lortu eta finkatu</i>	<i>Ohitura lortu eta galdu</i>	<i>Ohitura lortu ez</i>	<i>Guztira</i>
E5-A5	45,2	27,5	13,0	22,4
E0-A5	15,7	15,0	6,8	10,1
A5-A5	11,8	2,5	6,2	6,7
E5-E5	11,8	25,0	4,1	9,3
E5-A0	13,6	17,5	24,0	20,7
A5-A0	0	2,5	28,1	17,7
E5-E0	1,9	10,0	8,2	7,2
A0-A0	0	0	6,8	4,2
A0-E0	0	0	2,1	1,3
E0-E0	0	0	0,7	0,4
Guztira	100	100	100	100

Hala ere, utz dakigun parentesi labur bat egiten bi behaketa zehatz eta partikular egiteko. Gero itzuliko gara ikuspegi orokorrera.

Lehenengo oharra gogoan du 201 I. urtean Aldahitz egitasmoak egindako ikerketa. Hartan, euskara ikasi eta lankideren batekin euskarazko ohitura lortu eta finkatu zuten langileen kasuak aztertu genituen. Kasu arrakastatsu horietan identifikatutako gakoek oinarri jarri zioten orain esku artean dugun esku-hartze diseinuari. Orduan, honelako erronka luzatu genion geure buruari: gauza izango al ginateke kasu arrakastatsu hauetan berez sortu diren aldeko baldintzak guk geuk era artifizialean sortzeko? Oraingo hizkera aplikatuko bagenio orduko ikerketari, esan genezake orduko bikote arrakastatsu haiek bi osagai zituztela: batetik, A0; hau da: pertsona bat inorekin euskarazko ohiturarik ez zuena, euskara ikasten hasia zegoen neurrian, eta beste lankideekin euskaraz egiteko inizatibarik hartua ez zuena; eta bestetik, E5; hots, pertsona bat euskaldun aktiboa, eta, hortaz, beste euskaldunekin euskaraz egiteko ohitura zuena, eta, aldi berean, A0 bikotekidearekin euskaraz egiteko inizatiba hartu zuena. Esan daiteke, hortaz, orduko ikerketetan aztertu

genituen bikote arrakastatsuek E5-A0 kategoriakoak zirela. Zer esan kategorია horri buruz orain-
go azterketan? Hori ikusteko, jo beza irakurleak behean eskaintzen ditugun bi tauletara. Horko
datuak laburbildu eta hona ekarrita, esan dezakegu gure azter-unibertsoan guztira 49 bikote izan
direla E5-A0 kategoriakoak. Haietako 7 bikotek (%14,3k) euskarazko ohitura lortu eta finkatu
du, 7 bikotek (%14,3k) euskarazko ohitura lortu baina galdu egin du, eta, azkenik, 35 bikotek
(%71,4k) ez du euskarazko ohitura lortu. Esango genuke, hortaz, geure buruari egindako erronka
hark erantzun baikorra izan duela: bai, lortu dugu horrelako bikote arrakastatsu batzuk aktibatzea
diseinu berezi baten bidez, baina hori gutxi ez, eta halakoekin batera beste kategorია batzuetako
bikote ugari ere euskarazko ohituraren aldera abiatzea lortu du egitasmoak.

4.17. taula: xede-taldearen bikoteen hizkuntza-egoera bukaeran, E5 tipologiaren arabera
(bikote kopuruak)

<i>Bikote tipologia</i>	<i>Ohitura lortu eta finkatu</i>	<i>Ohitura lortu eta galdu</i>	<i>Ohitura lortu ez</i>	<i>Guztira</i>
E5-A5	23	11	19	53
E0-A5	8	6	10	24
A5-A5	6	1	9	16
E5-E5	6	10	6	22
E5-A0	7	7	35	49
A5-A0	0	1	41	42
E5-E0	1	4	12	17
A0-A0	0	0	10	10
A0-E0	0	0	3	3
E0-E0	0	0	1	1
Guztira	51	40	146	237

4.18. taula: xede-taldearen bikoteen hizkuntza-egoera bukaeran, E5 tipologiaren arabera
(ehunekoetan)

<i>Tipologia</i>	<i>Ohitura lortu eta finkatu</i>	<i>Ohitura lortu eta galdu</i>	<i>Ohitura lortu ez</i>	<i>Guztira</i>
E5-A5	43,4	20,8	35,8	100
E0-A5	33,3	25,0	41,7	100
A5-A5	37,5	6,3	56,2	100
E5-E5	27,3	45,4	27,3	100
E5-A0	14,3	14,3	71,4	100
A5-A0	0	2,4	97,6	100
E5-E0	5,9	23,5	70,6	100
A0-A0	0	0	100	100
A0-E0	0	0	100	100
E0-E0	0	0	100	100
Guztira	21,5	16,9	61,6	100



Bigarren oharrak fokua xede-taldeko 7 bikote zehatzetan jarri nahi du. Zazpi bikote horiek, aurrekoak bezala, E5-A0 kategoriakoak dira, eta bereziak dira “beti edo ia beti euskaraz” kategorian, ez esperientziaren garaian, baizik euren kasa eta berez atsedean garaian eskuratu dutelako. Horrek adierazten du, besteak beste, neurriren batean –neurri txikia dudarik gabe– euskararen aldeko inertzia lanean jarraitu duela esperientzia zuzena bukatuta ere. Beraz, kualitatiboki begiratuta, dena ez da izan beherako joera atsedean garaian zehar, izan bada gorako mugimendu berezkoa. Datu honek balio handiagoa du dakigunean zazpi bikote horiek ez direla A gunekoak izan, baizik eta C gunekoak (3 bikote), E gunekoak (3 bikote) eta G gunekoak (bikote bat). Azken hiru gune hauetan atsedean aldia erabatekoa izan zen, eusleen sistema formala zeharo bertan behera utzita, alegia. Hortaz, segurua da bikote horiek aurrera egindako mugimenduak berezkoak izan direla, eta ez esperientzia formal baten ondoriozkoak. Bikote horiek A gunekoak izan balira ez ginateke seguru izango mugimendu hauen berezkotasunez, zeren, behin baino gehiagotan esan dugun bezala, A gunean ez baitzen atsedean garaia diseinatu bezala ezarri, bertakoen ekimen eta erabakiz, eta, hala, haiek euren kasa jarraitu zuten eusle sistemaren esperientzia formalarekin atsedean garaia izan beharko lukeen horretan ere. Baina, paradoxikoki, ez dira gune horretakoak izan berez, aurrera, “beti edo ia beti euskaraz” kategoriaraino iritsi diren bikoteak.

4.4.

Hizkuntza aldaketaren neurria hizkuntza kategorien arabera

Ondoko taulak adierazten du bikoteen bilakaera bost hilabeteko tartean, hots, hasieratik esperimentzia amaitu eta hiru hilabetera artean. Azter-unibertso osoa aintzat hartzen dugunean, ikusten da lehenengo neurketan “beti edo ia beti euskaraz” kategorian zeuden bikoteek ia erabat eutsi diotela prozesuan zehar kategoria horri (%95,5ek zehazki)

Gainerako hizkuntza kategoriei dagokienez, 26,3tik 36,6ra doan proportzioan eutsi diote bukaeran bikoteek hasieran zuten hizkuntza kategoriari berari. Hortaz, aldaketarik ez. Ordea, 36,8tik 59,2ra bitarteko proportzio batek egin du koska bat gora hizkuntza kategoriaren sailkapenean. Bi koskako jautzia gora egin du 9,8tik 18,4ra doan tarte batek. Eta bada hiru koska gora ere egin duen proportzio txiki bat: 4tik 7,8ra doana. Beheraka egindako bikoteen kopurua arrunt txikia da. Izan ere, badago 3,4tik 14,5ra doan tarte bat, koska bat behera egin duena.

4.19. taula: unibertso osoaren bilakaera, hizkuntza kategorien arabera³

		Erabilera ³					Guztira
		-	<	=	>	+	
Erabilera ¹	-	31,4	49,0	9,8	7,8	2,0	100
	<	14,5	26,3	36,8	18,4	4,0	100
	=	0	0	33,3	53,9	12,8	100
	>	0	0	4,2	36,6	59,2	100
	+	0	0	1,1	3,4	95,5	100

Ikurren esanahia:

Beti edo ia beti gaztelaniaz	(-)
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	(<)
Bietan berdin	(=)
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	(>)
Beti edo ia beti euskaraz	(+)


3 Sarrera bikoitzeko taula da hau. Beraz, zuzen interpretatzeko, honako aholku hauei kontu egitea komeniko litzateke. Batetik, erreferentzia nagusia (100) eskuineko zutabean dagoela kontuan hartu behar da. Hortaz, irakurketa ezkerretik eskuinera, era horizontalean, egin behar da. Hona nola egin interpretazioa: “Baldin lehenengo erabilera-neurketan (erabilera¹), *beti edo ia beti gaztelaniaz* (-) kategorian zeudenak 100 badira, nola banatzen dira horiek hirugarren erabilera-neurketan (erabilera³) hizkuntza-kategorien arabera?”. Irakurketa mota honekin jakin dezakegu hasieran kategoria batean zeudenak nolako hizkuntza-bilakaera izan duten egitasmo osoan zehar. Berde argiz dauden laukiek adierazten dute ez dela aldaketarik izan hasieratik bukaerara. Lauki horietatik ezkerrean dauden guztiek atzerapena adierazten dute, eta lauki horietatik eskuinera daudenek aurrerapena adierazten dute.



Xede-taldearen datuak besterik gogoan hartzen ez baditugu, ikusten da bikote guztien %63k gora egin duela hizkuntza kategoriaren sailkapenean lehenengo neurketatik hirugarrenera. %28k eutsi egin dio hasieran zuen hizkuntza kategoriari berari. Eta, azkenik, %9k soilik egin du behera. Gogora dezagun xede-taldetzat hartzen dugula gure azter-unibertso osotik baztertzen ditugunean hasieran bertan jada “beti edo ia beti euskaraz” kategorian zeudenak, kide hauek ez baitzuten hizkuntza kategorian aurrera egiteko tarterik.

4.3. grafikoa: xede-taldearen norabide aldaketa erabilera1tik erabilera3ra

Xede-taldearen norabide aldaketa erabilera1tik erabilera3ra



Xede-taldearen barruan euskarazko ohitura lortu eta finkatu dutenak ez besterik gogoan hartzen ditugunean, ikus dezakegu zein hizkuntza kategorietatik zetozen; hots, zein hizkuntza kategorian zeuden sailkatuta hasierako neurketan. Nabarmen ikusten da gehien-gehienak “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” gertueneko kategoriatik zetozela: %82,3 alegia. Gainerako kategorია guztietako alerik ere bada azpimultzo honetan, eta kuantitatiboki garrantzi txikia badute ere, kualitatiboki, bederen, esanahi berezia, izan, badute, aurreko atalean aipatua izan den bezala.

4.20. taula: euskarazko ohitura lortu eta finkatu dutenen bilakaera, hizkuntza kategorien arabera⁴

		<i>Erabilera3</i>
		+
<i>Erabilera1</i>	-	2,0
	<	5,9
	=	9,8
	>	82,3
Guztira		100

⁴ Taula hau, 4.19. taula bezala, bikoitza da. Oraingo honetan, erreferentzia nagusia (100) behean dago. Zuzen irakurtzeko, honako galdera hau egin beharko genuke: “Baldin hirugarren erabilera-neurketan (erabilera3), *beti edo ia beti euskaraz* kategorian zeuden xede-taldeko bikoteak 100 badira, zein hizkuntza-kategoriatan zeuden horiek lehenengo erabilera-neurketan (erabilera1)?”

4.5.

Maiztasuna

Oso harreman txikia zuten bikoteak oso gutxi izan dira. Gainerako kategoriatan (harreman txikia, tartekoa, nahikoa edo handia), ordea, bikoteen kopuruak oso modu berdintsuan banatuta ageri dira. Eta hori hala da, erreferentzia bezala gure azter-unibertso osoa izan, xede-taldea izan, edo xede-taldeko hiru azpimultzoak izan.

Badira, normala denez, zenbakien arteko bariazio batzuk, baina haiek ez zaizkigu esanguratsuak iruditzen. Ez dugu aldaketatxo horietan fenomeno sendo eta aipagarriren presentziarik sumatzen.

Esango genuke, beraz, harremanaren maiztasunari buruzko datuek ez dutela bereziki eragin gure azter-unibertsoaren hizkuntzaren bilakaeran.

4.21. taula: harremanaren maiztasuna, unibertso osoan eta xede-taldean

<i>Maiztasuna</i>	<i>Ohitura lortu eta finkatu</i>	<i>Ohitura lortu eta galdu</i>	<i>Ohitura lortu ez</i>	<i>Xede-talde osoa</i>	<i>Unibertso osoa</i>
Oso txikia	0	0	3,4	2,1	2,2
Txikia	21,6	12,5	13	14,8	12,5
Tartekoa	21,6	15	29,5	25,3	27,1
Nahikoa	21,6	30	23,3	24	29,3
Handia	35,3	42,5	30,8	33,7	29
Guztira	100	100	100	100	100



4.6.

Eusleak eta ez eusleak

Ikusten denez, eusle jardun dutenek euskararen erabilera altuxeagoa zuten (%66,8) egitasmoaren hasieran, eusle izan ez direnek baino (%55,4). Ez dirudi, ordea, oso alde esanguratsuaren aurrean gaudenik. Horrek adieraziko luke, aurrena, taldeek eusleak aukeratzerakoan, ez dituztela hasieran jada euskaraz egiteko joerarik argiena zutenak hautatu. Eusleen eta ez-eusleen multzoek hizkuntza ezaugarri antzekoak ageri dituzte.

4.22. taula: eusleen eta ez-eusleen hizkuntza bilakaera

<i>Tipologia</i>	<i>Erabilera 1 (%)</i>	<i>Erabilera 2 (%)</i>	<i>Erabilera 3 (%)</i>	<i>Aldea 1 (+/-)</i>	<i>Aldea 2 (+/-)</i>	<i>Aldea 3 (+/-)</i>
Ez da euslea izan	55,4	72,4	67,2	+17	-5,2	+11,8
Euslea izan da	66,8	85,4	75,4	+18,6	-10	+8,6
Guztira	59,4	77,9	70,7	+18,5	-7,2	+11,3

Hizkuntza bilakaerari dagokionez ere, bai batzuek bai besteek antzeko aurrerapena egin dute esperientziaren garaian. Datu hori “aldea 1” izeneko adierazleak ematen digu zuzen. Hala, eusleek 18,6 puntuko aurrerapena egin duten bitartean, ez-eusleek, hots, kide arruntek 17 puntukoa egin dute. Nolabait, diseinuaren eragina berdintsu barreiatu da harreman sare osoan zehar, berdina da kideak euslea izan ala ez izan. Bai egiteko aktiboa zuten kideek (eusleak) bai egiteko pasiboa zutenek (ez-eusleak) antzeko hizkuntza bilakaera izan dute. Hizkuntza eragina era paretsuan barreiatu da eremu osora.

Aipatzekoa da, ordea, atsedean garaian gehiago jaitsi direla euskararen erabilera eusle izandakoak kide arruntak baino, desberdintasuna oso altua ez bada ere (5 puntuko aldea). “Aldea 2” adierazleak ematen digu horren berri. Desberdintasun hori hobeto ikusten da fokua gure azter-unibertsu osoan jarri beharrean azpimultzo berezietan jartzen dugunean. Azterketa hori jada egin dago aurreko atalean, “euskarazko ohitura lortu eta finkatu” azpimultzoaren eta “euskarazko ohitura lortu eta galdu” azpimultzoaren arteko aldeak aztertu ditugunean. Hartan baieztatzen genuen ezen “eusleen” presentzia nabarmenagoa izan dela “euskarazko ohitura lortu eta galdu” duten bikoteetan, “euskarazko ohitura lortu eta finkatu” duten bikoteetan baino. Ohartu ginen orduan –eta oraingo datuek ere norabide berera garamatzate– bereziki bi eusle izaniko bikoteetan hizkuntza aldaketa handia gertatu dela esperientzia zuzenaren garaian, baina, era berean, hainbesteko astinaldiari eustea ere beste bikote motei baino gehiago kosta egin zaiela atsedean garaia etorri zenean. Hitz gutxitan: haien prozesu osoaren intentsitatea biziagoa izan da, bai aurrerapena egiteko orduan, bai behera egiterakoan ere. Badirudi, baina, eusle eta ez-eusle bikoteetan eman dela, aurrekoetan baino, hizkuntza bilakaera lasaiagoa. Lasaia bai, baina baita emankorra eta iraunkorra ere.

Arestian esandakoa berresten da hurrengo taulako datuekin. Horretan ikusten da bi eusle izan dituzten bikoteek (“eusle1, txanda2”, eta “eusle2, txanda1”) gora eta behera biziak izan dituztela. Esperientziaren garaian 25 eta 24 puntutan egin dute gora, hurrenez hurren. Eta, atsedenaldian, ordea, 13,4 eta 12,7 puntutan egin dute behera. Eusle bakarra izan duten bikoteek, aitzitik, aurrerako mugimendua aurrekoena baino motelagoa izan da: 19,3 puntukoa, baina beherakoa ere txikiagoa: %8,1 puntukoa. Oso aipatzekoa da, nola euslerik gabe egon diren bikoteetan ere euskararen erabilera gorako mugimendu moderatua egon den: 10,9 puntukoa, eta oso aldaketa egonkor izan da gainera, apenas baitago atzerako mugimendurik atseden garaian: 1,4 puntuko beherakada txikia. Batzuek eta besteek, bestelako bilakaerak egin arren, azkeneko neurketaren datuek (“aldea3”) erakusten dute antzekotasun ikaragarria aldaketaren proportzioan: hiru multzo 11 puntu inguruan dabilen bitartean, laugarrena 9,5 puntuazioaren bueltan dabil.

4.23. taula: eusleen araberako bikote tipologiaren hizkuntza bilakaera⁵

<i>Bikote motak</i>	<i>Erabilera 1 (%)</i>	<i>Erabilera 2 (%)</i>	<i>Erabilera 3 (%)</i>	<i>Aldea 1 (+/-)</i>	<i>Aldea 2 (+/-)</i>	<i>Aldea 3 (+/-)</i>
Eusle 0, txanda 2	55,8	66,7	65,3	+10,9	-1,4	+9,5
Eusle 1, txanda 1	63,6	82,9	74,8	+19,3	-8,1	+11,2
Eusle 1, txanda 2	64,6	89,6	76,2	+25	-13,4	+11,6
Eusle 2, txanda 1	63,7	87,7	75	+24	-12,7	+11,3
Guztira	61,2	78,6	71,9	+17,4	-6,7	+10,7

5 Taula hau bikotekako azterketatik ekarri dugu hona (“Datuen analisis atalez atal”: 6.64. taula). Badira eusleei buruzko beste taula batzuk banakako azterketan oinarrituta. Batean eta bestean datuak ez dira guztiz berdinak, normala den bezala, datua eskuratzeko bidea desberdina baita. Guk, bikotekako azterketarena lehenetsi dugu ikuspegi orokorra emateko.



4.7.

Eusleen hizkuntza-arauaren betetze maila

Hurrengo taulan ikus daitezke zenbat lagun ari izan diren eusle gisa guneko bakoitzean, eta haietako bakoitzak zein neurritan bete duen eusleari emandako hizkuntza-araua. Betetze maila, “bai”, “erdipurdi” eta “ez” kategoriatan sailkatzeko, honako irizpide hauek erabili izan dira⁶:

Bai:	%90-%100
Erdipurdi:	%70-%89
Ez:	%0-%69

Lehenengo datua: hizkuntza-araua “bai” bete duten eta “erdipurdi” bete duten eusleen kopurua antzekoa izan da: %48,5 eta %45,5 hurrenez hurren.

4.24. taula: eusleen hizkuntza-arauaren betetze maila, guneko bakoitzean

<i>Lantokiak</i>	<i>bai</i>	<i>(%)</i>	<i>erdipurdi</i>	<i>(%)</i>	<i>(%)</i>	<i>guztira</i>	<i>(%)</i>
A gunea	2	33,3	3	50,0	16,7	6	100
B gunea	4	100	0	0	0	4	100
C gunea	4	66,7	2	33,3	0	6	100
D gunea	2	50,0	1	25,0	25,0	4	100
E gunea	1	16,7	5	83,3	0	6	100
F gunea	2	100	0	0	0	2	100
G gunea	1	20,0	4	80,	0	5	100
Guztira	16	48,5	15	45,5	6,1	33	100

Bi multzo horien hizkuntza bilakaera aztertzen dugunean, ordea, ez da berezitasun handirik antzematen bien artean, ezpada “bai” hizkuntza-araua bete dutenek “erdipurdi” bete dutenek baino hizkuntza erabilera altuagoa zutela abiapuntuako egoeran: %79 puntuazioa lehenak, bigarrenen %66,8 puntuazioaren aurrean. Ondoriozta liteke hizkuntza-arauari eutsi diotenen bazutela hasieratik bertatik euskaraz egiteko erraztasun handiagoa, hizkuntza-araua erdipurdi bete dutenek baino. Baina, datu horrez gain, ez da gero multzo bakoitzaren hizkuntza bilakaeran daturik sumatzen baieztatzen beren artean alde esanguratsuak izan direnik. Azterketa honetatik kanpo utzi dugu “ez”, hizkuntza-araua bete ez dutenena, datuen kopurua arrunt txikia baita (bi kide besterik ez), eta, beldur gara haien irakurketak ez izatea nahiko oinarri sendorik.

6 Betetze mailari buruzko datu hauek kideek aitortutakoak dira, ez behaketaren bidez lortuak. Honi buruzko xehetasun metodologikoak ezagutzeko, 3.4.2 puntura jo beza interesa duenak.

4.25. taula: eusleen hizkuntza bilakaera, hizkuntza-arauaren betetze mailaren arabera

<i>Betetze maila</i>	<i>Erabilera 1 (%)</i>	<i>Erabilera 2 (%)</i>	<i>Erabilera 3 (%)</i>	<i>Aldea 1 (+/-)</i>	<i>Aldea 2 (+/-)</i>	<i>Aldea 3 (+/-)</i>
Bai	79,0	93,0	85,8	+14,0	-7,2	+6,8
Erdipurdi	66,8	84,4	76,2	+17,6	-8,2	+9,4
Ez	53,4	80,8	66,6	+27,4	-14,2	+13,2
Guztira	66,8	85,4	75,4	+18,6	-10,0	+8,6

Aurreko azterketa, banakako kideen datuen arabera egin ordez, bikote kopuruaren arabera egi-ten dugunean ere, ondorio bertsuetara iristen gara. Hurrengo taulan, kasurako, bikote kopuru antzekoak ikusten ditugu “bai” hizkuntza-araua bete duten eusleentzat (%42,8) eta “erdipurdi” bete dutenentzat (%52,6)

4.26. taula: bikote kopurua, eusleen hizkuntza-arauaren betetze maila

<i>Lantokiak</i>	<i>bai</i>	<i>(%)</i>	<i>erdipurdi</i>	<i>(%)</i>	<i>Ez</i>	<i>(%)</i>	<i>guztira</i>	<i>(%)</i>
A gunea	11	23,9	25	54,3	10	21,8	46	100
B gunea	22	100	0	0	0	0	22	100
C gunea	46	73	17	27	0	0	63	100
D gunea	7	38,9	8	44,4	3	16,7	18	100
E gunea	10	14,5	59	85,5	0	0	69	100
F gunea	15	100	0	0	0	0	15	100
G gunea	10	20	40	80	0	0	50	100
Guztira	121	42,8	149	52,6	13	4,6	283	100

Hala ere, xede-taldean bikoteek izan duten hizkuntza bilakaera aztertuta, berriz ere ez da alde esanguratsurik “bai” eta “erdipurdi” kategoriako bikoteen artean antzematen. Bai batzuk eta bai besteak berdintsu banatzen dira xede-taldearen hiru azpimultzoetan barrena.




4.27. taula: bikoteen hizkuntza bilakaera, eusleen hizkuntza-arauaren betetze mailaren arabera

<i>Bikote tipologia</i>	<i>Ohitura lortu eta finkatu</i>	<i>Ohitura lortu eta galdu</i>	<i>Ohitura lortu ez</i>	<i>Guztira</i>
Bai	30,5	18,6	50,9	100
Erdipurdi	26	27	47	100
Ez	10	0	90	100
Guztira	26,6	22,4	50,9	100

Beraz, ez dirudi “erdipurdiko” betetze mailak emaitza kaxkarragoak ekarri dituenik hizkuntza-araua osoki “bai” bete dutenekin alderatuta. Badirudi, proposatutako araua lan-kideen iritziz erabat bete ez den kasuetan ere ohitura finkatzeko adinako eragina ekarri duela halere. Gogoratu beharra dago, dena den, “erdipurdi” kategoriak %70tik %89ra bitarteko betetze-maila dakarrela, zeina eskalako goiko mailetan kokatzen baita.

5.



ONDORIOAK

Asko eta askotarikoak izaten dira galderak ikerketa baten hasieran. Erantzunak, ordea, ez dira hainbestekoak izaten, eta eskura ditugunak, askotan, oso behin behinekoak izaten dira. Galdera jakin batzuek gidatuta erantzun batzuen bila jardutea izango litzateke, gure aburuz, edozein ikerketaren funtsezko izaera.

Zeintzuk ziren, bada, gure hasierako galdera nagusiak, eta zeintzuk orain, ikerketa egin ondoren, eskura ditugun behin behineko erantzunak?

Eman bekigu baimena kontu horri orain taxuz heltzeko. Ahalik eta modurik argienean, bai eta sintetikoenean ere, erantzuten saiatuko gara. Galdera guztiak elkarri lotuak dauden arren, kezka-unibertso bateratua osatuz, banan bana ariko gara, aurkezpenaren alderdi didaktikoa ororen gainetik lehenetsita.

Ba al du Eusle metodologiak ahalmenik, hizkuntza ohiturak astinduz, euskararen erabilera areagotzeko?

Bai, badu horretarako ahalmenik, ikaragarri handia gainera. Bikoteen hizkuntza-bilakaera aztertuta, ikusten da bikote gehien-gehienek hobetu dutela euren hizkuntza-kategoria esperientziak iraun duen tartean, bi hilabetetan alegia. Bikote gehienek, hortaz, euren hizkuntza ohitura astindu dute, eta aurrera egin dute euskararen erabileraren norabidean. Jakina, ondorio horretatik kanpo geldituko lirateke, jada hasieran bertan euskaraz beti edo ia beti egiten zuten bikoteak. Metodologiaren helburua ez baita horien hizkuntza ohiturak astintzea eta aldatzea, finkatzea baizik. Eta finkatze hori, eman, eman da. Esan dezagun hasieran beti edo ia beti euskaraz egiten zuten bikoteak 179 zirela, eta horietatik 176k egoera berari eutsi diotela esperientzia bukatuta ere (Ikusi 6.69. taula).

Benetan euren hizkuntza ohitura astindu duten bikoteak izan dira hasierako neurketan euskaraz beti edo ia beti egiten ez zuten bikoteak. Era honetako 237 bikote erregistratu ditugu, eta haietatik 186k (%78,5ek) aurrerapen esanguratsua egin dute hizkuntza-katego-



rian (euskararen erabilera, nahi bada), bi hilabeteko esperientziaren ondorioz. 43 bikotek (%18,1ek) eutsi diote bukaeran hasieran zuten hizkuntza-kategoria berari, eta, hortaz, ez dute mugimendu aipagarriarik egin bi hilabeteotan. Azkenik, 8 bikotek soilik (%3,4k) egin dute atzera hizkuntza-kategoriari dagokionez metodologia aplikatu den tartean (Ikusi datu hauek guztiak 6.83. taulan). Esan daiteke, beraz, multzo honi begiratuta, hizkuntza ohiturak astintzeko aukera zuten bikote gehien-gehienek astindu egin dutela euren hizkuntza-jokaera, eta, ondorioz, era esanguratsuan areagotu dutela euskararen erabilera. Apenas egon den bikoterik metodologiaren eraginpetik kanpo gelditu denik. *Eusle metodologia* harreman-eremu osora zabaldu da.

Zenbateko ahalmena du Eusle metodologiak –eraginkortasuna– euskararen erabilera areagotzeko?

Euskararen erabilera pasa da bi hilabeteetan %59,4koa izatetik %77,9koa izatera; hau da, 18,5 puntuko aurrerapena (Ikusi 4.9. taula). Hauxe izan daiteke, beraz, *Eusle metodologiaren* emankortasuna, gure azter-unibertso osoa aintzat hartzen dugunean. Hau da, oro har, gure esperientziaz eman dezakegun daturik funtsezkoen eta osoena.

Hala ere, emankortasun tasa hori, handia izanagatik, are ikusgarriagoa izan daiteke azterketaren begia zorrozten badugu. Hala, gure azter-unibertso osoa aintzat hartu beharrean, bakarrik begiratzen badiogu euskararen erabilera hobetu zezaketen bikoteen bilakaerari (Ikusi 4.10. taula), eta euskararen erabilera hobe zitekeen hori %100 modura hartzen badugu, ikus dezakegu %100 horretatik %45,8 (ia erdia) egin duela aurrera euskararen erabilerak bi hilabeteko epean.

Nahikoa al da bi hilabete euskarazko ohitura sortzeko?

Bai eta ez. Bikoteen hizkuntza ezaugarrien arabera izango da. Kasuistika guztiz zabala da, baina joera nagusiari erreparatu gero, esango genuke bi hilabete epe egokia izan daitekeela euskarazko ohitura sortzeko, baldin bikotekideek lehendik norbaitekin euskaraz egiteko ohitura zer den ezagutzen badute. Beste bikoteetan duten hizkuntza jokaera dakarte, beraz, bikote berrira. Euskaraz egiteko ohituraren esperientzia ez dute arrotz. Toki ezagun batetik toki berri batera aldatzen dute hizkuntza jokaera, *Eusle metodologiak* bultzatuta. Hauen kasuan, bi hilabete izan gabe emaitza bera lor zezaketen denbora gutxiagorekin ere.

Aldiz, ez da denbora nahikoa norbaitekin euskaraz egiteko ohituraren esperientzia ezagutzen ez dutenentzat. Honelakoentzat euskara hutsez egiterainoko jautzia guztiz arrotza da, benetako esperientzia berria, eta bi hilabete aukera eman liezaieke esperientzia hau dastatzeko eta balioesteko, baina nekez barrenean finkatua gelditzeko. Euskara hutsezko esperientzia ezagutu arren, ez dute behar adinako denborarik izan jokaera berria barneratzeko, naturaltzeko eta, finean, ohiko bihurtzeko. Beraz, euskarazko jokaera sortu eta esperimentatu bai, baina ohitura gisa finkatzea lortu ez.

Zenbat finkatzen da astinaldiaren ondoren?

Ikusia dugu zenbateko astinaldia eragin duen hizkuntza jokaeran *Eusle metodologiak*, baina jakin nahi genuke, orain, astinaldi horretatik zenbat gelditzen den finkatuta eta zenbat galitzen den.

Azter-unibertso osoko datuei erreparatuz gero, ikusten dugu esperientzia bukatu eta hiru hilabetera euskararen erabilerak behera egin duela, baina ez hasierako mailara jaisteko adina. Esperientzia bukatutakoan egindako neurketatik handik hiru hilabetera egindakora 7,2 puntuko jaitsiera ikusten da, baina kontuan hartzen badugu gora egindakoa 18,5 puntu izan direla, ikusten dugu esperientziaren hasieran egindako neurketa atsedeen-osteko egoerarekin alderatuz gero, 11,3 puntukoa da guztira aurrerapena (Ikusi 4.9. taula). Hortaz, metodologiak eragindako astinalditik erdia-edo galdu eta beste erdia-edo finkatu egin da.

Galera handienak, hain zuzen, esperientzian zehar aldaketarik handiena egindako bikoteek egin dute gero. Bikote ugari egin du bi, hiru edo lau kosketako jauzi bizia hizkuntza-kategoriaren eskalan bi hilabeteko esperientzian, baina halako iraulketa handiari ezin gehienek eutsi metodologiaren eragina desagertu ahala. Honek garamatza pentsatzera esku-hartzearen iraupena eta dosifikazioa hobetu beharko direla halako bikote moten emaitzak hobetzekotan.

Hizkuntza-bikote naturalak era artifizialean sor al daitezke?

Geure buruari egindako oinarritzko galdera lehenetarikoa da berau. Aldahitz 2011. ikerketaren ondorioak lantzen ari ginen hartan, eta jada buruan esku-hartzeari begira ginela, kezka genuen ea lantokietan era naturalean sortutako hizkuntza-bikoteak –haiek ziren gure ondorioen arabera hizkuntza-jokaera iraultzeko eta finkatzeko gune pribilijiatuak– guk era artifizialean sortzeko gauza izango ote ginen metodologia jakin baten bidez. Hau da: era naturalean ikusitakoa guk nahita sortzeko gauza izango ote ginen. Galdera horretatik sortu zen, hain zuzen ere, *Eusle metodologia*.

Bada, sortu al ditugu halako hizkuntza-bikote naturalak? Poztasun handiz esan behar dugu baietz, halako bikote ugari sortzea lortu dugula. Halako bikoteen ezaugarri nagusiak honako hauek ziren: kide bat euskalduna eta beste hainbat jenderekin euskaraz egiteko joera duena, batetik, eta kide bat euskara nolabait ulertzen duena ikasbidean murgilduta dagoelako, bestetik. Gure unibertsoan baziren ezaugarri antzekoak zituzten 49 bikote. Haietako 7 bikotek (%14,3k) euskarazko ohitura lortu eta finkatu du, 7 bikotek (%14,3k) euskarazko ohitura lortu baina galdu egin du, eta, azkenik, 35 bikotek (%71,4k) ez du euskarazko ohitura lortu. Beraz, gauza izan gara era honetako bikote kopuru polit bat aktibatzeko.

Baina, aurrekoa gutxi izan ez, eta dinamika berak balio izan du bestelako bikote mota ugari euskara hutsezko dinamikara ekartzeko eta hartan finkatzeko. Emaitzek ez dute zalantzar-



ko tarterik uzten (Ikusi 4.12. taula). Euskaraz egiteko ohitura finkatua ez zutenen bikoetatik (237 bikote) kopuru esanguratsu batek (51 bikote, %21,5) lortu du euskarazko ohitura finkatzea, esperientzia bukatu eta gero ere. Eta egoera goren hartara multzo aipagarri bat ere hurbildu da dezente: 40 bikote (%16,9) iritsi da euskara hutsezko funtzionamendura esperientzian zehar, esperientzia bukatu eta gero zertxobait atzera egin duen arren.

Eusleak al dira hizkuntza-jokaera gehien aldatu dutenak?

Bada uste zabaldua dioena zerbait lortzekotan era aktiboan jardun behar dela. Egia erdia baino ez da hori. Guk ditugun datuen arabera (Ikusi 4.22. taula), eusle gisa aritu diren kideek 18,6 puntu egin dute batez beste aurrera euskararen erabilera esperientziaren bi hilabetetan, eta eusle izan ez direnek batz bestea 17 puntu egin dute aurrera epealdi berean. Ez dago, beraz, alde esanguratsurik.

Hizkuntza jokaera zeregin kolektiboa da, eta kide aktibo baten jokaerak zeharo eragiten du kide pasibo baten jokaeran. Halaxe aipatua genuen marko teorikoan, eta halaxe ikusi dugu praktikan ere bai. Euslearen jokaera aktiboa funtsezkoa izan da hizkuntza-eremua berritze bidean jartzeko, baina horren eragina berarentzat bezala hartzaileentzat ere izan da. Eusleek beren burua, hainbat kasutan, zertxobait behartu beharko zuten zereginari eustearren. Kide arruntek, ordea, euren postura pasibotik hizkuntza-eragina jaso dute eroso, lasai eta presio handirik gabe. Baldintza horiek ez dira aldarte txarrak hizkuntza-eragina gozo eta ia oharkabean barneratzen.

Betiko euskaltzaleak izan al dira eusle izateko hautatuak?

Pentsa zezakeen baten batek eusleak aukeratzea taldearen esku utzita, berezko joera egongo zela taldeko betiko euskaltzaleak hautatuak izateko. Eta, agian, horrek arriskua ekar lezake hizkuntza-egoera gehiegi ez astintzeko, zeren euskaraz egiteko joera dutenak eusle izateko aukeratuz gero, ez baitzen berrikuntza handirik izango. Gu, ordea, ez ginen biziki kezkatu kontu honekin metodologia finkatzerakoan. Pentsatzen genuelako, batetik, euskaltzaleak aukeratuak izanda ere, hizkuntza-berrikuntza gertatuko zela, euslearen hizkuntza-arauaren zorrotasunak berez hala ekarrita. Baina, bestetik, taldeen berezko senean genuen oinarriko konfiantza, talde bakoitzak jakingo zuelakoan beren egoerako egokiena bereizten.

Datuei begiratuta (Ikusi 4.22. taula), ordea, ezin da esan galderaren aurreikuspena bete denik. Eusle izan diren kideen batez besteko euskararen erabilera %66,8koa zen lehenengo erabilera-neurketan. Eusle guztien batez bestekoa datua izanik, adierazten du tarteko egoeran kokatuak zeudela, batzuek euskaraz egiteko joera zuten bitartean, horiek adinako beste batzuek ez zuten euskaraz egiteko grina nabarmenik. Hortaz, hizkuntza-jokaera nabarrak antzematen ditugu eusleen artean. Eusle hizkuntza-soslaia, bide batez, oso antzekoa da kide arruntek –ez-eusleek– dutenarekin: hauek %55,4ko euskararen erabilera erakusten zuten lehenengo erabilera-neurketan.

Neurriz kanpoko al da eusle-jokaera eskatzea?

Esango genuke ezetz: ez da neurritz kanpoko al izan eusleei eskaturiko hizkuntza-araua. Datuei erreparatuta (Ikusi 4.24. taula), esan genezake eusleen %48,5ek bete egin duela hizkuntza-araua %90-%100 proportzian, eta %45,5-ek %70-%89 proportzian. Soilik eusleen %6,1ek dio ez dela gauza izan hizkuntza-araua betetzeko.

Bestalde, pentsatzekoa da egitasmoak ez zukeela aurrera egingo, baldin eta eusleek beren burua zereginari ezin heldurik ikusi izan balute. Izan ere, egitasmoak bazuen diseinaturik honelako egoeretarako tresna eraginkorrik: asteroko erabakiaren berrespena. Astero-astero, hutsik egin gabe eta lantoki guztietan, ordea, egitasmoan jarraitzeko gogoia berretsi dute kideek. Horrek adieraziko luke gure ustez, zeharka bada ere, euslearen zeregina neurritzat hartu dutela kideek, nolabait eskaera egingarri, eramangarri eta desiragarria suertatu zaiela.

Eusle-jokaerak oztopatu al du lan-dinamika?

Hau bazen egitasmoak zuen erronkarik handienetarikoa, zeren hala gertatuz gero, hots, eusleen jokaerak lan-dinamikari traba ekartzea, nekez egin bazezakeen aurrera egitasmoak era operatiboan. Eta ez da, zorionez, hala gertatu. Egitasmoan jarraitzea astero-astero berretsi izanak berriro ere adieraziko luke, zeharka bada ere, euslearen jokaerak ez diola lan-dinamikari oztopo nabarmenik ekarri.

Esango genuke haxe izan dela protagonistentzat irakaspenik handienetarikoa; hots, ohar-tzea euskara hutsez egiteak ez dakarkiola lanari oztoporik. Langileekin egin dugun bilera orotan ez dugu honen harira sekula kexarik entzun –lantoki batean eta kide jakin batekin aipaturiko kasu zehatz bat izan ezik–. Lantokietako arduradunekin eta euskara teknikariekin izaniko hartu-emanetan ere ez dugu inoiz honen harira aipamenik entzun. Aitzitik, era zuzenean jaso ditugun iruzkin guztiek adieraziko lukete dinamika berezi hori guztiz bateragarria izan dela eguneroko lan jardunarekin.


Eusle metodologiaren egitura hain sinplea izateak, kalte ala onura ekarri du?

Onura, argi eta garbi. Protagonista gehienek haxe, sinpletasunarena, aipatu dute maiz metodologiaren balio handienetarikotzat. Batetik, egitasmoari heltzeko gogoia pizteko garaian funtsezkoa izan da metodologiaren sinpletasuna. Bestetik, eusle jokaeraren sinpletasunak lagundu du egitekoak argi ulertzen eta bestelako kontuekin ez nahasten. Azkenik, alferrikako kontuez erantzirik, metodologiak hizkuntza-jokaeraren muinari heldu dio, inongo distrakzionik gabe.



6.87. taula: euskarazko ohitura eskuragai zuten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua esperientzi garaian (erabilera1tik erabilera2ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	186	78,5
Eutsi	43	18,1
Behera	8	3,4
Guztira	237	100

6.88. taula: euskarazko ohitura eskuragai zuten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua atsedean garaian (erabilera2tik erabilera3ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	23	9,7
Eutsi	111	46,8
Behera	103	43,5
Guztira	237	100

6.89. taula: euskarazko ohitura eskuragai zuten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua egitasmo osoan zehar (erabilera1tik erabilera3ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	148	62,4
Eutsi	75	31,6
Behera	14	6
Guztira	237	100

6.90. taula: euskarazko ohitura eskuragai zuten bikoteen harreman maiztasuna

<i>Maiztasuna</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Oso txikia	5	2,1
Txikia	35	14,8
Tartekoa	60	25,3
Nahikoa	57	24
Handia	80	33,7
Guztira	237	100

6.3.18.

Euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikoteen osaketa eta hizkuntza bilakaera

Identifikazioa

Hasieran (erabilera I an) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon eta amaitu eta hiru hila-betera (erabilera 3n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon.

Bikote kopurua = 51

6.91. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikote kopurua eta proportzioa, guneka

<i>Lantokiak</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
A gunea	4	7,8
B gunea	7	13,7
C gunea	11	21,6
D gunea	0	0
E gunea	18	35,3
F gunea	3	5,9
G gunea	8	15,7
Guztira	51	100

6.92. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikote kopurua eta proportzioa, tipologiaka (euslea bai/ez)

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
E+E	7	13,7
E+A	38	74,5
A+A	6	11,8
Guztira	51	100

6.93. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikote kopurua eta proportzioa, tipologiaka (hasieran lankideren batekin euskarazko ohitura izan bai/ez)

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
5+5	35	68,6
5+0	16	31,4
0+0	0	0
Guztira	51	100

6.94. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikote kopurua eta proportzioa, tipologiaka (aldagaiak: 1) euslea bai/ez, 2) hasieran lankideren batekin euskarazko ohitura izan bai/ez)

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
E5-A5	23	45,1
E0-A5	8	15,8
E5-A0	7	13,7
E5-E5	6	11,7
A5-A5	6	11,7
E5-E0	1	2
Guztira	51	100

6.95. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikoteen bilakaera erabilera1-tik erabilera2-ra (bikote kopurua)

		<i>Erabilera2</i>					<i>Guztira</i>
		-	<	=	>	+	
<i>Erabilera1</i>	-	0	0	0	0	1	1
	<	0	0	0	0	3	3
	=	0	0	0	2	3	5
	>	0	0	0	5	37	42
	+	0	0	0	0	0	0
Guztira		0	0	0	7	44	51

6.96. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikoteen bilakaera erabilera2-tik erabilera3-ra (bikote kopurua)

		<i>Erabilera3</i>					<i>Guztira</i>
		-	<	=	>	+	
<i>Erabilera2</i>	-	0	0	0	0	0	0
	<	0	0	0	0	0	0
	=	0	0	0	0	0	0
	>	0	0	0	0	7	7
	+	0	0	0	0	44	44
Guztira		0	0	0	0	51	51

6.97. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikoteen bilakaera erabilera1-tik erabilera3-ra (bikote kopurua)

		<i>Erabilera3</i>					<i>Guztira</i>
		-	<	=	>	+	
<i>Erabilera1</i>	-	0	0	0	0	1	1
	<	0	0	0	0	3	3
	=	0	0	0	0	5	5
	>	0	0	0	0	42	42
	+	0	0	0	0	0	0
Guztira		0	0	0	0	51	51

6.98. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikoteen hizkuntza bilakaera (ehunekotan)

<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
67,5	97,5	100	+30	+2,5	+32,5

6.99. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua atsedean garaian (erabilera2tik erabilera3ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	7	13,7
Eutsi	44	86,3
Behera	0	0
Guztira	51	100

6.100. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua egitasmo osoan zehar (erabilera1tik erabilera3ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	51	100
Eutsi	0	0
Behera	0	0
Guztira	51	100

6.101. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta finkatu duten bikoteen harreman maiztasuna

<i>Maiztasuna</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Oso txikia	0	0
Txikia	11	21,6
Tartekoa	11	21,6
Nahikoa	11	21,6
Handia	18	35,3
Guztira	51	100

6.3.19.

Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikoteen osaketa eta hizkuntza bilakaera

Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu:

Hasieran (erabilera 1an) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran “beti edo ia beti euskaraz” kategorian egon eta amaitu eta hiru hilabetera berriz ere(erabilera 3n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon.

Bikote kopurua = 40

6.102. taula: euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikoteen kopurua eta proportzioa, guneka

<i>Lantokiak</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
A gunea	0	0
B gunea	5	12,5
C gunea	3	7,5
D gunea	9	22,5
E gunea	11	27,5
F gunea	0	0
G gunea	12	30
Guztira	40	100

6.103. taula: euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikote kopurua eta proportzioa, tipologiaka (euslea bai/ez)

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
E+E	14	35
E+A	24	60
A+A	2	5
Guztira	40	100



6.104. taula: euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikote kopurua eta proportzioa, tipologiaka (hasieran lankideren batekin euskarazko ohitura izan bai/ez)

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
5+5	22	55
5+0	18	45
0+0	0	0
Guztira	40	100

6.105. taula: euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikote kopurua eta proportzioa, tipologiaka (aldagaiak: 1) euslea bai/ez, 2) hasieran lankideren batekin euskarazko ohitura izan bai/ez).

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
E5-A5	11	27,5
E0-A5	6	15
E5-A0	7	17,5
E5-E5	10	25
A5-A5	1	2,5
E5-E0	4	10
A5-A0	1	2,5
Guztira	40	100

6.106. taula: euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikoteen bilakaera erabilera1-tik erabilera2-ra (bikote kopurua)

		<i>Erabilera2</i>					<i>Guztira</i>
		-	<	=	>	+	
<i>Erabilera1</i>	-	0	0	0	0	2	2
	<	0	0	0	0	10	10
	=	0	0	0	0	11	11
	>	0	0	0	0	17	17
	+	0	0	0	0	0	0
Guztira		0	0	0	0	40	40

6.107. taula: euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikoteen bilakaera erabilera2-tik erabilera3-ra (bikote kopurua)

		<i>Erabilera2</i>					<i>Guztira</i>
		-	<	=	>	+	
<i>Erabilera2</i>	-	0	0	0	0	0	0
	<	0	0	0	0	0	0
	=	0	0	0	0	0	0
	>	0	0	0	0	0	0
	+	0	2	7	31	0	40
Guztira		0	2	7	31	0	40

6.108. taula: euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikoteen bilakaera erabilera1-tik erabilera3-ra (bikote kopurua)

		<i>Erabilera3</i>					<i>Guztira</i>
		-	<	=	>	+	
<i>Erabilera1</i>	-	0	0	0	0	0	0
	<	0	0	0	0	0	0
	=	0	0	0	0	0	0
	>	0	0	0	0	0	0
	+	0	2	7	31	0	40
Guztira		0	2	7	31	0	40

6.109. taula: euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikoteen hizkuntza bilakaera (ehunekotan)

<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
52,5	100	67,5	+47,5	-32,5	+15

6.110. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta galdu duten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua esperientzi garaian (erabilera1tik erabilera2ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	40	100
Eutsi	0	0
Behera	0	0
Guztira	40	100



6.111. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta galdu duten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua atsedean garaian (erabilera2tik erabilera3ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	0	0
Eutsi	0	0
Behera	40	100
Guztira	40	100

6.112. taula: euskarazko ohitura berriki lortu eta galdu duten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua egitasmo osoan zehar (erabilera1tik erabilera3ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	19	47,5
Eutsi	20	50
Behera	1	2,5
Guztira	40	100

6.113. taula: euskarazko ohitura berria lortu eta galdu duten bikoteen harreman maiztasuna

<i>Maiztasuna</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Oso txikia	0	0
Txikia	5	12,5
Tartekoa	6	15
Nahikoa	12	30
Handia	17	42,5
Guztira	40	100

6.3.20.

Euskarazko ohitura berria lortu ez duten bikoteen osaketa eta hizkuntza bilakaera

Euskarazko ohitura berria lortu ez:

Hasieran (erabilera I an) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon, amaieran “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon eta amaitu eta hiru hilabetera ere(erabilera 3n) “beti edo ia beti euskaraz” kategorian EZ egon.

Bikote kopurua = 146

6.114. taula: euskarazko ohitura berria lortu ez duten bikoteen kopurua eta proportzioa, guneka

<i>Lantokiak</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
A gunea	15	10,3
B gunea	10	6,8
C gunea	20	13,7
D gunea	8	5,5
E gunea	28	19,2
F gunea	22	15,1
G gunea	43	29,5
Guztira	146	100

6.115. taula: euskarazko ohitura lortu ez duten bikote kopurua eta proportzioa, tipologiaka (euslea bai/ez)

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
E+E	19	13
E+A	67	45,9
A+A	60	41,1
Guztira	146	100



6.116. taula: euskarazko ohitura lortu ez duten bikote kopurua eta proportzioa, tipologiaka (hasieran lankideren batekin euskarazko ohitura izan bai/ez)

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
5+5	34	23,3
5+0	98	67,1
0+0	14	9,6
Guztira	146	100

6.117. taula: euskarazko ohitura lortu ez duten bikote kopurua eta proportzioa, tipologiaka (aldagaiak: 1) euslea bai/ez, 2) hasieran lankideren batekin euskarazko ohitura izan bai/ez).

<i>Tipologia</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
E5-A5	19	13
E0-A5	10	6,8
E5-A0	35	24
E5-E5	6	4,1
A5-A5	9	6,2
E5-E0	12	8,2
A5-A0	41	28,1
A0-A0	10	6,8
A0-E0	3	2,1
E0-E0	1	0,7
Guztira	146	100

6.118. taula: euskarazko ohiturarik lortu ez duten bikoteen bilakaera erabilera1-tik erabilera2-ra (bikote kopurua)

		<i>Erabilera2</i>					<i>Guztira</i>
		-	<	=	>	+	
<i>Erabilera1</i>	-	9	18	18	3	0	48
	<	6	14	18	25	0	63
	=	0	1	4	18	0	23
	>	0	0	1	11	0	12
	+	0	0	0	0	0	
Guztira		15	33	41	57	0	146

6.119. taula: euskarazko ohiturarik lortu ez duten bikoteen bilakaera erabilera2-tik erabilera3-ra (bikote kopurua)

		<i>Erabilera3</i>					<i>Guztira</i>
		-	<	=	>	+	
<i>Erabilera2</i>	-	10	5	0	0	0	15
	<	11	18	1	3	0	33
	=	6	13	15	7	0	41
	>	0	7	26	24	0	57
	+	0	0	0	0	0	0
Guztira		27	43	42	34	0	146

6.120. taula: euskarazko ohiturarik lortu ez duten bikoteen bilakaera erabilera1-tik erabilera3-ra (bikote kopurua)

		<i>Erabilera3</i>					<i>Guztira</i>
		-	<	=	>	+	
<i>Erabilera1</i>	-	16	24	4	4	0	48
	<	11	19	26	7	0	63
	=	0	0	10	13	0	23
	>	0	0	2	10	0	12
	+	0	0	0	0	0	0
Guztira		27	43	42	34	0	146

6.121. taula: euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteen hizkuntza bilakaera (ehunekotan)

<i>Erabilera1</i>	<i>Erabilera2</i>	<i>Erabilera3</i>	<i>Aldea1</i>	<i>Aldea2</i>	<i>Aldea3</i>
25	50	40	+25	-10	+15

6.122. taula: euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua esperientzi garaian (erabilera1tik erabilera2ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	100	68,5
Eutsi	38	26
Behera	8	5,5
Guztira	146	100

6.123. taula: euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua atsedean garaian (erabilera2tik erabilera3ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	16	11
Eutsi	67	45,9
Behera	63	43,1
Guztira	146	100

6.124. taula: euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteen hizkuntza kategorien mugimendua egitasmo osoan zehar (erabilera1tik erabilera3ra)

<i>Norabidea</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Gora	78	53,4
Eutsi	55	37,7
Behera	13	8,9
Guztira	146	100

6.125. taula: euskarazko ohitura lortu ez duten bikoteen harreman maiztasuna

<i>Maiztasuna</i>	<i>Bikote kopurua</i>	<i>%</i>
Oso txikia	5	3,4
Txikia	19	13
Tartekoa	43	29,5
Nahikoa	34	23,3
Handia	45	30,8
Guztira	146	100


6.3.21.

Diagramak lantokika


A GUNEA

6.1. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea hasieran (erabilera1), A gunean.

Gorriz, eusleak




6.2. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3), A gunean. Gorriz, harreman berriak.




B GUNEA

6.3. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea hasieran (erabilera1), B gunean. Gorriz, eusleak.




6.4. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3), B gunean. Gorriz, harreman berriak.




C GUNEA

6.5. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea hasieran (erabilera1), C gunean. Gorriz, eusleak.




6.6. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3), C gunean. Gorriz, harreman berriak




D GUNEA

6.7. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea hasieran (erabilera1), D gunean. Gorriz, eusleak.




6.8. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3), D gunean. Gorriz, harreman berriak.




E GUNEA

6.9. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea hasieran (erabilera1), E gunean. Gorriz, eusleak.




6.10. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3), E gunean. Gorriz, harreman berriak.




F GUNEA

6.11. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea hasieran (erabilera1), F gunean. Gorriz, eusleak.




6.12. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3), F gunean. Gorriz, harreman berriak.





G GUNEA

6.13. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea hasieran (erabilera1), G gunean. Gorriz, eusleak.



6.14. irudia: “Beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza harreman sarea amaitu eta hiru hilabetera (erabilera3), G gunean. Gorriz, harreman berriak.






Bibliografia

- Alemany, C. (1997). *Psicoterapia experiencial y focusing: la aportación de Eugene T. Gendlin*. Bilbao: Desclée de Brouwer.
- Altuna, O., Basurto, A. (2013) *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.
- Aronson, E. (2007). *Social psychology*. New Jersey: Prentice Hall.
- Ashby, W.R. (1972). *Introducción a la Cibernética*. Buenos Aires: Nueva Visión.
- Beauvois, J.L. eta Joule, R. (1981). *Soumission et idéologies: psychosociologie de la rationalisation*. Paris: Presses Universitaires de France.
- Bordieu, P. (2008). *¿Qué significa hablar?: economía de los intercambios lingüísticos*. Madrid: Akal.
- Bruner, J. (2010). *Realidad mental y mundos posibles: los actos de la imaginación que dan sentido a la experiencia*. Barcelona: Gedisa.
- Csikszentmihalyi, M. (1997). *Fluir: una psicología de la felicidad*. Barcelona: Gedisa.
- Csikszentmihalyi, M., Donaldson, S.I. eta Nakamura, J. (2011). *Applied positive psychology: improving everyday life, health, schools, work and society*. New York: Psychology Press.
- De Bono, E. (1992). *Yo tengo razón, tú estás equivocado*. Barcelona: Ediciones B.
- De Bono, E. (1996). *Lógica fluida: la alternativa a la lógica tradicional*. Barcelona: Paidós.
- De Bono, E. (2009). *Simplicidad: técnicas de pensamiento para liberarse de la tiranía de la complejidad*. Barcelona: Paidós.
- Egizabal, D., Huegun, A. eta Jauregi, P. (2004) "Kuadrillategi egitasmoa", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 53, 103-111 orr.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Soziolinguistika Klusterra (2013) *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak*.
- Festinger, L. (1975). *Teoría de la disonancia cognoscitiva*. Madrid: Instituto de Estudios Políticos.
- Gendlin, E.T. (1997). *A process model*. New York: Focusing Institute.
- Gigerenzer, G. (2008). *Decisiones instintivas: la inteligencia del inconsciente*. Barcelona: Ariel.
- Jauregi, P. (1994). *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas-estrategia*. Doktorego tesia. Bilbo: EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.
- Jauregi, P. eta Suberbiola, P., "Hizkuntza aldaketa bikoteen harremanean: ikuspegi teorikoa eta ikerketaren ondorioak", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 71 (2009): 177-191
- Krashen, S. (1985). *The input hypothesis: issues and implicacions*. London: Longman.

- Lewin, K. (1997). *Resolving social conflicts: Field theory in social science*. Washington: American Psychological Association.
- Marx, K. (2010). *La crisis del capitalismo*. Barcelona: Diario Público.
- Maturana, H. eta Bloch, S. (1996). *Biología del emocionar y Alba Emoting*. Santiago de Chile: Dolmen.
- Maturana, H. eta Dávila, X. (2008). *Habitar humano en seis ensayos de biología-cultural*. Santiago de Chile: J.C. Sáez.
- Morin, E. (2010). *Pensar la complejidad: crisis y metamorfosis*. Valencia: Universidad de Valencia.
- Parsons, T. (1999). *El sistema social*. Madrid: Alianza.
- Pujolar, J., González, I., Martínez, R. (2010). “Les mudes lingüístiques dels joves catalans”, *Llengua i ús*, 48: 65-75.
- Pujolar, J., Puigdevall, M. (2015). “Linguistic mudes: how to become a new speaker in Catalonia”, *IJSL*, 231: 167-187.
- Prigogine, I. (1997). *¿Tan sólo una ilusión? Una exploración del caos al orden*. Barcelona: Tusquets.
- Rixon, S. (1988). *Entzumena lantzen*. Donostia: HABE Itzulpen Saila.
- Soziolingüistika Klusterra (2009). *Bikoteen artean hizkuntza-ohituren aldaketa: Ikerketalana*. Argitaratu gabeko txostena. Sarean eskura: <http://www.soziolingüistika.org/files/Bikoteen%20ohituren%20Tx%20Lab.pdf>
- Soziolingüistika Klusterra (2011a). *Aldahitz Ikerketa. Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan munduan. Ondorio nagusien txostena*. Argitaratu gabeko txostena. Sarean eskura: http://www.soziolingüistika.org/files/Aldahitz_2011-Ondorio_nagusien_txostena.pdf
- Soziolingüistika Klusterra (2011b). *Aldahitz Ikerketa. Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan munduan. Ondorioen sintesia*. Argitaratu gabeko txostena. Sarean eskura: http://www.soziolingüistika.org/files/Aldahitz_2011-Ondorioen_sintesia.pdf
- Tortora, G.J. eta Grabowsky, S.R. (1998). *Principios de Anatomía y Fisiología*. Madrid: Harcourt Brace.
- Von Bertalanffy, L. (1993). *Teoría general de los sistemas: fundamentos, desarrollo, aplicaciones*. Madrid: FCE.
- Vygostsky, L. (2010). *Pensamiento y lenguaje*. Barcelona: Tusquets.
- Wagensberg, J. (2008). *El gozo intelectual: teoría y práctica sobre la inteligibilidad y la belleza*. Barcelona: Tusquets.
- Watzlawick, P., Weakland, J.H. eta Fisch, R. (1985). *Cambio: formación y solución de los problemas humanos*. Barcelona: Herder.
- Watzlawick, P., Bavelas, J.B. eta Jackson, D. (1997). *Teoría de la comunicación humana: interacciones, patologías y paradojas*. Barcelona: Herder.
- Weiner, B. (1995). *Judgments of Responsibility: A foundation for a Theory of Social Conduct*. New York: Guilford Press.



8.



ERANSKINAK

8.1.

Zehaztapen teknikoak

Eranskin honetan duzuen txosten laburra da esperientziak garatu aurretik, lantegietako agintari, teknikari eta langileei informazioa banatzeko baliatu den euskarrietako bat. Bertan deskribatzen dira esperientzien nondik norako teknikoak.

ALDAHITZ IKERKETA – ESPERIENTZIA PILOTUA: DISEINU ETA JARRAIPENERAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

• EUSLEAK

Izendapen hori emango diegu taldearen baitan esperientziak irauten duen artean euskarzko jardunari eusten diotenei.

• EUSLEEN ETA BESTE LANKIDEEN HIZKUNTZA-JOKAERAK

- 1) Eusleek beti egingo dute euskaraz lantegi barruko harreman guztietan, bai ahozkoetan bai idatzizkoetan, bai formaletan bai informaletan (dokumentu idatzietan, kontuan hartuko da dokumentuen ibilbidea). Hizkuntza-arau hori ez da aplikatuko lantegi kanpoko harremanetan (bezeroekin, hornitzaileekin, eta abarrekin) edo lantegi barruan bilerak kanpoko kideekin batera direnean. Kasu horietan, euslearen esku geldituko da zein hizkuntzan diharduen.
- 2) Eusleek baldintza horren arabera jardun ahal izateko, gainerako lankideek beste baldintza bat beteko dute: ez diete eusleei eskatuko –ez formalki, ez informalki– euskaraz esan edo idatzitakoa gaztelaniaz jartzeko. Bai eska dezakete euskaraz beste modu batean azaltzea, baina ez

gaztelaniaz egitea. Era berean, lankideren batek beharko balu eusle batek euskaraz sorturiko dokumenturen bat (edo zati bat) itzultzea, ez dio eusleari berari eskatuko; beste lankideren bati eskatuko dio laguntza. Gainerakoan, eusle izateko hautatuak izan ez diren lankideek ez dute zertan eusleei euskaraz egin (beraien esku egongo da).

• EUSLE KOPURUA

Talde osoaren % 20a izango da. Taldea txikia izan arren, eusle kopurua ez da izango inoiz bi lagunena baino txikiagoa. Esperientzia garatuko den saila edo lan-taldea, gutxienez 8-10 lagunekoa izango da eta gehienez 30ekoa.

• EUSLEEN HAUTAKETA

- 1) Botazio edo galdeketaren bidez egingo da. Lankide bakoitzak aukera izango du hiru izen proposatzeko.
- 2) Galdera honako hauxe izango da:

“Zeure ustez, euskaraz erraz samar egiteko gaitasuna duten lankideen artean, zein komeniko litzateke eusle gisa aritzea? Aipatu hiru izen.”

- 3) Gehien agertzen diren izenekin zerrenda bat egin eta lehen tokietan daudenak izango dira aukeratuak euslearena egiteko.

• BORONDATEZKO ESPERIENTZIA - TALDE ERABAKIAK LOTESLEAK.

Lehenengo unetik gelditu behar du garbi baino garbiago taldeak hartzen dituen erabakiak onartu beharrekoak izango direla. Horregatik:

- 1) Zuzendaritzaren eta sindikatuen egitasmoarekiko onespina beharko da (Batzorde txikia).
- 2) Langileen onspen kualifikatua (hiru laurdenak) beharko da esperientzia abiatzeko.

Langile artean egin beharreko botazioa honako termino hauetan planteatuko da:

“Prest nago Aldahitz esperientzia pilotuan parte hartzeko eta neronek eusle papera jokatuzeko lankideek halaxe aukeratzen banaute. Aukeratzen ez banaute, prest nago eusle gisa ari direnen euskarazko jardunera moldatzeko, gaztelaniaz egiteko eskatu gabe ”

Bai.....

Ez.....

Zuzendaritzaren eta langileen ordezkarien aurre-oniritziarekin batetik, eta bestetik, botazio bidez langileen %75aren aldekotasunarekin edo oniritzi kualifikatua beharko da esperientzia martxan jarri ahal izateko. Eta jarraian, eusleek aukeraketa. Esperientzia abian jartzea erabakitzen bada, aurka ager litezkeen lankideek aukera izango dute gaztelaniaz egiteko, baina ez gainerakoen hautua baldintzatzeko.



• ERABAKIAREN BERRISKUPENA ALDIORO

Esperientzia pilotu honek bi hilabeteko iraupena izango du, baina lehenago buka daiteke baldin eta taldeak halaxe erabakitzen badu aldiroko berrikuspenetan. Bi hilabeteetan zehar astean behin berretsi beharko da erabakia (guztira, zazpi berrikuspen).

•EUSLEEN TXANDAKETA

Lehen aukeraketan hautatu diren eusleek hilabeterako hartuko dute ardura. Lehen hilabetearen buruan, beste aukeraketa bat egingo da bigarren hilabeterako. Pertsona berdinak atera daitezke bigarren aldirako ere taldeak hala erabakitzen badu.

•EUSLEEN HIZKUNTZA-ARAUAREN JARRAIPENA

Bi hilabeteetan zehar astero egingo da eusleen hizkuntza-arauaren jarraipena. Jarraipen honek bat egingo du erabakiaren berrespenarekin.

• ASTEZ ASTEKO EGUTEGIA

Ondorengo egutegia jarraituko da:

- 1. astearen bukaeran: hizkuntza-arauaren baieztapena eta erabakiaren berrespena.
- 2. astearen bukaeran: hizkuntza-arauaren baieztapena eta erabakiaren berrespena.
- 3. astearen bukaeran: hizkuntza-arauaren baieztapena eta erabakiaren berrespena.
- **4. astearen bukaeran: hizkuntza-arauaren baieztapena, erabakiaren berrespena eta eusle berrien aukeraketa.**
- 5. astearen bukaeran: hizkuntza-arauaren baieztapena eta erabakiaren berrespena.
- 6. astearen bukaeran: hizkuntza-arauaren baieztapena eta erabakiaren berrespena.
- 7. astearen bukaeran: hizkuntza-arauaren baieztapena eta erabakiaren berrespena.
- **8. astearen bukaeran: balantzea eta datuen bilketa.**

Bai eusleen hizkuntza-arauaren baieztapena eta bai esperientziaren berrespena modu errazean egingo da fitxatxo baten bidez, eta gai bakoitzerako galdera bakar bat erabiliz. Era honetan jasoko dira bi galderak:

A)

Euslearen hizkuntza-arauaren betetzea

	<i>Bai</i>	<i>Erdipurdi</i>	<i>Ez</i>
<i>Izena</i>			
<i>Izena</i>			
<i>Izena</i> ¹			

¹ Eusle kopurua esperientzia garatzen den lantegiaren, sailaren edo departamenduaren lankide-kopuruaren araberakoa izango da (%20tik hurbilen dagoen kopurua, gutxienezkoa bi izanik). Fitxa honetan eusle guztien izenak jasoko dira.

B)

Jarraituko dugu esperientziarekin beste astebetez?

Bai Ez

• ARAUAREN BAI EZTAPENERAKO ETA ERABAKIAREN BERRESPENERAKO SISTEMA

Oso sistema sinpleak hautatu dira esperientziaren jarraipen eta berrespenerako. Sinpletasun hori praktikoa izan dadin, ordea, jarraipen arin eta sistematiko bat eskatuko du. Asteroko errebisioa izango denez, beharrezkoa izango da:

- Fitxen pasatzea hori alde aurretik finkaturiko asteko egun jakin batean egitea.
- Egun horretan lanean dauden langile guztien erantzun laburra jasotzea.
- Jasotako datuak esperientziaren jarraipena egingo duen ikerlari taldeari hurrengo egunean helaraztea.

Fitxen pasatzeko modu ezberdinak egon litezke (adibidez, ageriko lekuan jarri eta adostutako egunean langile bakoitzak bertan betetzea, saileko kide guztiak biltzen dituen asteroko bilera bat baliatzea (han bertan betetzeko), langile bakoitzari lantokian utzi eta egunaren amaieran biltzea, mezu elektronikoz egitea...).

Esperientzia garatuko den lantegi bakoitzean baloratuko da zein izan litekeen sistemarik egokiena, baina esperientzia abiatzeko beharrezko baldintza izango da jarraituko den sistema definitzea eta bideragarri izango dela baloratzea.

• KOORDINATZAILEA ETA BATZORDE TXIKIA

Esperientzia garatu ahal izateko lotura bat antolatuko dugu Aldahitz-eko lantaldearen eta lantegiko langileen artean. Lantegiko ordezkariari dagokionez, koordinatzaile bat eta Batzorde txiki bat beharko dira. Jarraian zehazten dira beren ezaugarriak eta izango dituzten egitekoak:

- Batzorde txikia:
 - 2-3-4 kidez osatutako taldea izango da eta bertan bilduko dira lantegiaren zuzendaritzako (edo arduradunen) ordezkariak, langileen ordezkariak eta (balego edo egoki ikusten bada), sindikatuen ordezkariak.
 - Bere egitekoak izango dira:
 - > Esperientzia pilotu hau garatzeko aukera baloratzea eta, baiezkotan, erabakitzekeo prozesua bideratzea (langileen botazioa egin, aztertu eta emaitza jakinarazi).
 - > Baiezkoa erabakitzen bada, jarraipenerako sistema definitzea (Aldahitz-eko lantaldearen laguntzarekin).
 - > Koordinatzailea hautatzea.
 - > Esperientziaren garapenean koordinatzailearen zein Aldahitz-eko ordezkarien



aldamenean egotea, informazioa konpartitzeko eta erabakiak hartzeko, hartu behar izatekotan.

> Esperientziaren amaieran, baloratzea.

– Koordinatzailea:

– Lantegian euskara teknikari edo euskara planaren koordinatzaile lanak egiten dituen izan daiteke koordinatzaile (halakorik balego); beste edozein lankide ere izan daiteke (kasu bakoitzean baloratuko da, Batzorde txikian eta Aldahitz-eko taldean).

– Bere egitekoak izango dira:

> Hizkuntza-arauaren jarraipena eta esperientziaren berrespenerako galdetegiak pasatzea, aurrez zehaztutako egutegia jarraituz.

> Hizkuntza-arauaren betetzean arazoak detektatuz gero, haien jarraipena egitea (eusleekin zein Aldahitz-eko lantaldearekin). (ikus beherago)

> *Egoeraren argazkiak* datuen jasoketak bideratzea, 3 alditan. (ikus beherago).

• HIZKUNTZA-ARAUAREN BETETZEAN ARAZOAK DETEKTATUZ GERO

Koordinatzaileak fitxak aztertu ondoren hizkuntza-arauaren betetzean arazoak detektatuz gero esperientzi protokolo moduko bat jarraituko du. Eusle batek bere eginkizuna ez badu betetzen edo erdipurdi besterik ez, ez horregatik aldatuko da, ez behintzat hilabetea egin arte (orduan, aukera legoke aldaketak egiteko).Arazoa konpontzeko esperientzia bideratuko da.

Koordinatzaileak harreman pertsonala izango du eusle horrekin eta honako protokolo bati ekingo dio:

1) Diagnostikoa: Non dago zailtasuna?

2) Neurri zuzentzailea: Eusleak berak eskaera batzuk egingo ditu adierazten dutenak zerk lagunduko liokeen hizkuntza-aruari eusten.

3) Aplikazioa: Neurriek laguntza pertsonalizatua eskatzen badute halaxe egingo da. Baina neurriek beste lankideentzat eskakizunak badira, orduan haien berri zabalduko zaie jakitun izan daitezen (emailaren bidez esaterako).

• EGOERAREN ARGAZKIAK DATUEN JASOKETAK

Esperientzia pilotuak baliagarria izan nahi du aplikatzen den lantegian euskarazko harremanetan dinamika berri bat sortzeko.Aldiberean, ikerketa mailako jarraipena ere egingo zaio esperientziari.

Jarraipen horretarako ere tresna simple bat erabiliko da: *egoeraren argazkiak* galdetegia.

Soziograma tankerako galdetegia da eta esperientzia garatuko den sail edo lantegiko lankide guztien zerrenda jasoko du. Lankide bakoitzak besteekin duen ohiko harremana zein hizkuntze-

tan den jasoko da bertan². 2-3 minutuan betetzen den galdetegia da, eta 3 alditan egingo da datu jasotzea:

- Esperientzia abiatu aurretik
- Esperientzia amaitu ondorengo astean
- Esperientzia amaitu eta hiru hilabetera

Andoainen, 2013ko urrian

Aldahitz Ikerketako Talde Teknikoa
Soziolinguistika Klusterra

² Bost mailetan bereizita: 1) Beti edo ia beti gaztelaniaz; 2) Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago; 3) Bietan berdin; 4) Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago; 5) Beti edo ia beti euskaraz.



8.2.

Aurkezpena

Eranskin honetan duzuen dokumentua da esperientziak garatu aurretik, lantegietako agintari, teknikari eta langileei proposamena aurkezteko baliatu den euskarrietako bat. Bertan esperientzia horien nondik norako nagusiak aurkezten dira.

Aldahitz ikerketa – Esperientzia pilotua

AURKEZPENA

2013ko urria



Kokapena

Azken hamarkadetan, euskararen aldeko lan sozialak aurrera-pauso handiak ezagutu ditu gure gizarteko arlo batzuetan; besteak beste, hezkuntza arloan eta erakunde publiko batzuetan. Lantegi askotan ere, euskarak orain 30 urte baino leku nabarmenagoa du gaur egun.

Dena den, euskararen aldeko planak garatu dituzten lantegietan, esperientziak erakutsi du lankideen artean eguneroko harremana euskaraz izateko, askotan ez dela nahikoa *hala nahi izatea* bakarrik. Eguneroko lan-erritmo estuan, euskaraz aritzea gustuko genukeen langile asko, gaztelaniaz edo beste hizkuntzetan aritzen gara, hamaika arrazoi ezberdin tarteko: seguruago sentitzen garelako, laneko terminologia eta hizkera gaztelaniaz edo ingelesez askoz errazago erabiltzen dugulako, baditugulako lankideak euskaraz jakin arren oso ongi moldatzen ez direnak...

Batzuetan pentsatzen dugu halakoak “guri bakarrik” gertatzen zaizkigula. Gure lantokiko egoera bereziengatik topatzen ditugula halako zailtasunak edo ezinak. Beste batzuetan

berriz, pentsatzen dugu euskararen kasuan gertatzen diren kontuak direla halakoak. Aldiz, European edo mundu mailan ezagutzen ditugun beste hizkuntzen ehunka kasu erakusten digute hori ez dela horrela.

Gure hurbileko lankideekin eguneroko harremanean ahoz euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo beste hizkuntza batean aritzen gara. Eta jende guztiak ez diogu garrantzia bera ematen hizkuntza batean edo bestean aritzeari. Zenbait langilerentzat eta zenbait lan-talderentzat garrantzia gutxiko kontua da hori. Beste batzuetan, aldiz, pertsonen edo lan-taldeen identitate ikur garrantzitsua da, eta bereziki zaintzen den kontua da ahoz lankideekin erabiltzen dugun hizkuntza.

Esperientzia pilotu baten aukera

Eguneroko lanean zein hizkuntza erabiltzen diren, eta horrek nolako bizipenak sortzen dituen aztertu izan dute gure inguruan hainbat erakunde eta profesionalak azken urteotan. Esperientzia praktikoak garatu dira han eta hemen, eta horiek aztertuz gaiari buruzko ezagutza zabalagoa da gaur egun.

Soziolinguistika Klusterrak, esate baterako, 2006. urtetik hona ERALAN proiektua garatzen du. Proiektu horren aztergai nagusia da lan-munduko hizkuntza-erabilera, bereziki euskararena. Eta bertan parte hartu dute, besteak beste, Elhuyar Aholkularitzak, Emun Kooperatibak edota AEK-Ahize aholkularitzak.

2013. urteko udazkenean, Soziolinguistika Klusterrak, EHUrekin eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarekin lankidetzan, **esperientzia pilotu bat garatuko du EAEko hiru lantegitan**, enpresa pribatu batean bata, eta beste biak erakunde publikoetan. Esperientzia pilotu horiek, EHUko irakasle den Pello Jauregi doktoreak zuzenduko du, Soziolinguistika Klusterreko Aldahitz batzordearen laguntzaz, eta hizkuntza-erabilera kontuetan ikuspegi funtzional sistemikoaren azken ekarpenetan oinarritua egongo da.



Esperientzia pilotuaren helburuak eta ezaugarriak

Helburu nagusia ondorengo hau izango da:



Aplikatzeko den lantegian dinamika berri bat sortzea, lankideen arteko eguneroko harremanetan euskaraz gehiago egiteko aukera emango duena.

Helburu hori lortzeko begira, ezaugarri jakin batzuen arabera garatuko da esperientzia:

- Ahalegin neurtua eskatuko du: jarraipenerako batzorde bat osatuko da, baina langileen aldetik ez du lantalerik osatzea edo saio bereziak egitea eskatuko.
- Epe labur eta mugatua: bi hilabeteko interbentzioa izango da.
- Koste ekonomiko txikia izango du, eta antolaketa erraza.
- Hala ere, martxan jarriko den dinamika lankideen arteko euskarazko erabileran aldaketa nabarmena ekarriko duela aurreikusten dugu.

Baldintzak

Esperientzia hau garatuko den lantegiak eta bertako lan-taldeak baldintza batzuk bete beharko ditu:

1.- Euskarazko ezagutza edo ulermen-maila langile guztiek izatea. Esperientzia garatuko den lan-taldean edo sailean lankide guztiek izango dute euskarazko gutxieneko ezagutza bat; hau da, ez da sailean lankiderik egongo ahoz elkarriketa arrunt bat edo idatziz testu erraz bat ulertzeko gai ez dena. Horrek ez du esan nahi lankide guztiek euskaraz maila ona edo erraztasun handia izan behar dutenik, baina bai guztiak izatea euskara ahoz eta idatziz nahiko ongi ulertzeko gai.

2.- Langileek esperientzia pilotu hau garatzeko erabakia hartzea. Borondatez garaturiko esperientzia izango da; lan-taldeko edo saileko langileen nahia izango da abiapuntua eta oinarria. Nahi hori adierazteko, saileko langile eta arduradunek erabaki kolektibo bat hartu beharko dute, esperientzia martxan jartzearen alde, eta beharrezkoa izango da baiezko hori zabala izatea: gehien-gehienak alde agertzea, eta kontrako jarrera nabarmenik ez egotea.

Prozesua

Esperientzia pilotuari buruzko informazioa baloratuko dute lantegiko arduradunek eta langileen ordezkariak.

Aldahitz ikerketaren arduradunek azalpena emango dute lantegian: esperientziaren nondik norakoak azaldu eta zalantzak argitu.

Lantegian esperientzia garatzeko erabaki kolektiboa hartuko da.

Esperientzia martxan jarriko da.
Bi hilabeteko iraupena izango du.

Ebaluazioa egingo da: esperientzia hasi aurretik, amaitu eta berehala eta hiru hilabete beranduago.



8.3.

Jarraipenerako eta berrespenerako galdetegia

JARRAIPENERAKO ETA BERRESPENERAKO GALDETEGIA

- A) **Euslearen hizkuntza-arauaren betetzea aste honetan**
[hilabetea / egunak]

<i>Euslearen izena</i>	<i>Bai</i>	<i>Erdipurdi</i>	<i>Ez</i>

Gogoan hartu euslearen hizkuntza-araua:

“Eusleek beti egingo dute euskaraz lantegi barruko harreman guztietan, bai ahozkoetan bai idatzizkoetan, bai formaletan bai informaletan (dokumentu idatzietan, kontuan hartuko da dokumentuen ibilbidea). Hizkuntza-arau hori ez da aplikatuko lantegi kanpoko harremanetan (bezeroekin, hornitzaileekin, eta abarrekin). Kasu horietan, euslearen esku geldituko da zein hizkuntzan diharduen.”

- B) **Jarraituko dugu esperientziarekin beste astebetez?**

BAI

EZ

8.4.

Mintzagrama 1

ALDAHITZ EGITASMOA

Aurrena, ongi etorriak ALDAHITZ egitasmora. Benetan estimatzen dizuegu honetan parte hartzeko erakutsi dituzuen kemena eta ausardia. Eskerririk asko.

Esperientziari, jakina, oinarrizko jarraipena emango diogu. Horretarako tresna simple bat prestatu dugu. Guk “**egoeraren argazia**” deitzen diogu, eta mintzagrama moduko bat da; betetzeko, nahikoa dira bi minutu.

Guztira, hiru “argazki” aterako ditugu denboran zehar.

- Esperientzia abiatu aurretik, lehenengo argazia
- Esperientzia amaitu ondorengo astean, bigarren argazia
- Esperientzia amaitu eta hiru hilabetera, hirugarren argazia

Argazia betetzeko, taula bat erabiliko dugu. Taularen ezkerreko zutabeari begiratu gero, zure lankide guztien izenak, zurea barne, agertzen direla ohartuko zara³. Gero, izen horietako bakoitza banan-bana gogoan hartuta, honako galdera hauek egin beharko dizkiozu zeure buruari: “Azken aste honetan, zenbat denbora eman dut hitz egiten *nik lankide honekin?* [*Nik berari*] Eta *berak nirekin?* [*Berak niri*] Denbora horiek kontuan hartuta, aukeratu ondorengo eskalan izan duzuen harremanari gehien hurbiltzen zaion zenbakia eta jarri taulan (kasu bakoitzean zenbaki bat). Nola izan da harremana?

- 1) Beti edo ia beti gaztelaniaz
- 2) Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- 3) Bietan berdin
- 4) Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- 5) Beti edo ia beti euskaraz

³ Taula hauek betetzeko izenak erabiliko ditugu. Dena den, gero datuak ikerketan aztertzen direnean izen guztiak kodetu egingo dira, langileen konfidentzialtasuna zainduz.

Galdetegia bete bezain laster, arren bidali edo emaiozu zeuen lantegian ALDAHITZeko koordinatzailearena egiten duen kideari, eta berak bidaliko dizkigu gero guri.

Eskerrik asko, berriro ere, Aldahitz talde osoaren izenean

Proiektuaren arduradunak:
Pello Jauregi (Euskal Herriko Unibertsitatea)
Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)

LEHENENGO ARGAZKIA

Zure izena?.....

Erantzun ondorengo galdera:

“Azken aste honetan, zenbat denbora eman dut hitz egiten *nik lankide honekin?* [*Nik berari*] Eta *berak nirekin?*” [*Berak niri*]

Denbora horiek kontuan hartuta idatzi taulan ondorengo eskalan kasu bakoitzari gehien hurbiltzen den zenbakia. Nola izan da harremana?

- 1) Beti edo ia beti gaztelaniaz
- 2) Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- 3) Bietan berdin
- 4) Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- 5) Beti edo ia beti euskaraz

<i>Izenak</i>	<i>Nik berari</i>	<i>Berak niri</i>
Lankidea 1 (izen-abizenak)		
Lankidea 2		
Lankidea 3		
Lankidea 4...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
[esperientzian parte hartu duten gune horretako lankide guztien izenak]		



8.5.

Mintzagrama 2

ALDAHITZ EGITASMOA

Data:

Zure izena:

BALORAZIO KUALITATIBOA

Ez dugu galdera gehiegi egin nahi, egia esan. Baina, zinez, eskertuko genizueke bi galdera hauei erantzun zintzorik emango bazeniete.

1.- Idatzi lerro batean zure inpresio orokorra bi hilabete hauei buruz.

2.- Idatzi lerro batean, egitasmoaren diseinua eta tresnak kontuan hartuta, zer gauzak aldatuko zenituzkeen edo beste modu batera egingo zenituzkeen.

MINTZAGRAMA

Erantzun ondorengo galderari:

“Pasa den astean, zenbat denbora eman nuen hitz egiten *nik lankide honekin?* [*Nik berari*] Eta *berak nirekin?*” [*Berak niri*]

Denbora horiek kontuan hartuta, idatzi taulan ondorengo eskalan kasu bakoitzera gehien hurbiltzen den zenbakia. Nola izan da harremana aste horretan?

- 1) Beti edo ia beti gaztelaniaz
- 2) Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- 3) Bietan berdin
- 4) Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- 5) Beti edo ia beti euskaraz

<i>Izenak</i>	<i>Nik berari</i>	<i>Berak niri</i>
Lankidea 1 (izen-abizenak)		
Lankidea 2		
Lankidea 3		
Lankidea 4...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
[esperientzian parte hartu duten gune horretako lankide guztien izenak]		



HARREMANAREN MAIZTASUNA

Erantzun ondorengo galderari:

“Zenbat denbora ematen duzu harremanetan zeure lankideekin?”

Horri erantzuna emateko, erabili ondoko eskala hau:

- 1) Azken bolada⁴ honetan oso gutxi hitz egiten dut berarekin
- 2) Azken bolada honetan gutxi hitz egiten dut berarekin
- 3) Azken bolada honetan tarteko hitz egiten dut berarekin
- 4) Azken bolada honetan nahiko hitz egiten dut berarekin
- 5) Azken bolada honetan asko hitz egiten dut berarekin

<i>Izenak</i>	<i>Maiztasuna</i>
Lankidea 1 (izen-abizenak)	
Lankidea 2	
Lankidea 3	
Lankidea 4...	
... / ...	
... / ...	
... / ...	
... / ...	
... / ...	
... / ...	
... / ...	
... / ...	
... / ...	
[esperientzian parte hartu duten gune horretako lankide guztien izenak]	

ESKERRIK ASKO ZURE PARTE HARTZEAGATIK!

4 Hartu “azken bolada”ren erreferentzia modura azken zortzi asteak, esperientziak iraun duen denbora.

8.6.

Mintzagrama 3

ALDAHITZ EGITASMOA

Kaixo berriro ere!

la hiru hilabete pasa dira Aldahitz proiektuko esperientzia pilotua zuenean amaitu genuenetik. Zer gertatu da denbora honetan guztian hizkuntza-egoerari dagokionez? Bi hilabeteko esperientzian gertatu ziren aldaketek bere horretan diraute? Hizkuntza-egoera lehenera itzuli al da? Galdera asko, dudarik gabe.

Martxoaren amaieran, bi hilabeteen astez aste jarraituriko esperientzia amaitu eta berehala egin genuen bigarren datu jasoketa; datuen bigarren "argazkia". Eta orain, esperientzia amaitu eta hiru hilabetera osatu nahi dugu **hirugarren datu jasoketa**, ikusteko lantokian zein den oraingo hizkuntza-egoera.

Eta hemen gaukazue, hain zuzen ere, ate joka, zeuen denboraren eta borondate onaren eske: zehazki, **ekainaren 16-20 aste honetan zehar honekin batera doan galdetegia bete eta koordinatzaileari bueltatzea eskatzen dizuegu**. Ikusiko duzue, galdetegia aurreko bi "argazkietan" erabili dugun berdina da, eta erraza egingo zaizue betetzea. Datuak betetzeko erreferentzia modura, erabili aurreko astea (ekainaren 9-13 artekoa).

Hirugarren neurketa hau izango da azkena, eta horrekin bukatutzat emango genuke, gure aldetik behintzat, Aldahitz egitasmoa zeuen lantokian. Erabat amaitutzat eman aurretik, hori bai, bilera bat egin nahi genuke zuekin lantokian -ahal bada udako oporren aurretik-, esperientziaren hasieran egin genuen moduan.

Hortaz, adiskideok, mila esker oraingoan ere zeuen parte hartzeagatik, Aldahitz ikerketan ari garen talde osoaren izenean. Ondo izan eta laster arte.

Andoainen, 2014ko ekainean.

Proiektuaren arduradun teknikoak:
Pello Jauregi (Euskal Herriko Unibertsitatea)
Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)



HIRUGARREN ARGAZKIA

Zure izena?.....


Erantzun ondorengo galdera:

“Azken aste honetan, zenbat denbora eman dut hitz egiten *nik lankide honekin?* [*Nik berari*] Eta *berak nirekin?*” [*Berak niri*]

Denbora horiek kontuan hartuta idatzi taulan ondorengo eskalan kasu bakoitzari gehien hurbiltzen den zenbakia. Nola izan da harremana?

- 1) Beti edo ia beti gaztelaniaz
- 2) Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- 3) Bietan berdin
- 4) Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- 5) Beti edo ia beti euskaraz

<i>Izenak</i>	<i>Nik berari</i>	<i>Berak niri</i>
Lankidea 1 (izen-abizenak)		
Lankidea 2		
Lankidea 3		
Lankidea 4...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
... / ...		
[esperientzian parte hartu duten gune horretako lankide guztien izenak]		



Aldahitz IKERKETA 2014

EUSLE METODOLOGIA ETA HIZKUNTZA
OHITUREN ALDAKETA LAN MUNDUAN